

## AISIARI BURUZKO IKASTOLEN MARKO OROKORRA

1. Sarrera: aisiari begira jarri beharraz.
  - 1.1.- Ikastoletan urteetan zehar aisiari begira egindako ibilbidea, ahulguneak.
  - 1.2.- Gizarte-eragileekin indarrak batzeko abagune egokia.
2. Aisia ikastoletan: aisia kontzeptua eta hari buruzko begirada.
  - 2.1.- Kokatze orokorra.
  - 2.2.-Ikastolen Hezkuntza-proiektuaren gakoak: ikaslearen irteera-profila.
  - 2.3.-Euskal curriculumaren garapena eremu ez-formalean: aisialdia, Hezkuntza-proiektu integralaren osagarri.
    - 2.3.1.- Aisialdia nola uztartzen den kompetentzia orokorretan.
    - 2.3.2.- Aisialdi ikuskera honetan nola uztartzen diren ikaslearen irteera-profila eta oinarritzko kompetentziak.
    - 2.4.-Aisialdiaren kompetentzia espezifikoak.
3. Nola egin aisia gazte euskaldun eleaniztunak hezteko ahaleginari lotzea?
  - 3.1.- Aisiak hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari egiten dion ekarpenaz hezitzaileak ohartaraztea.
    - 3.1.1.-Hizkuntza-portaeran eta hizkuntza-jarreretan nola eragin:
      - 3.1.1.1.-Komunikazio-egoera esanguratsuak ustiatzeko estrategiak.
      - 3.1.1.2.- Haur, nerabe eta gazteen hizkuntza-portaeran eragiteko esku-hartze metodikoa.
      - 3.1.1.3.- Hizkuntza-jarreretan eragin beharraz.
    - 3.1.2.- Kalitateaz. lagunarteko hizkeraren errepertorioa: ahozkoaren gatza eta piperra.
4. Esku-hartze orokortu eta sistematizatu beharra: zuzendaritza, irakasle-taldea, hezitzaileak eta familiak inplikaturik eta herri-eragileekin elkarlana sustatuz.
  - 4.1.- Hizkuntza-proiektua: diagnosia, plangintza mailakatua, ebaluazio-adierazleak eta betetze-maila.
  - 4.2.- Aisiari begirako esku-hartzeen ebaluazioa: erabilera-indizeari begira jarrita.
5. Aisiari buruzko begirada, ekosistemak: haur, nerabe eta gazteak erdigunera ekarrita, ikastolatik herrirako garapena.
  - 5.1.- Aisiaren berariazko esparruak, begirada eta estrategiak etapetan.
    - 5.1.1.- Haur Hezkuntza (HH)/Ama-Ikastola (AI) eta Lehen Hezkuntza (LH)/Lehen Maila (LM).
    - 5.1.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)/Bigarren Maila (BM)
    - 5.1.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoa (DBHO)/Lizeoa
6. Zirimolaren (IE) aisia-egitasmoen eskaintza.
7. Aisian eragiteko baliabide-bilduma.
8. Eranskinak: “Komunikazio eraginkorra ustiatzeko estrategiak” (ppt-a).
9. Bibliografia

## 1. Sarrera: aisiari begira jarri beharraz.

*Aisiari buruzko ikastolen marko orokorra* izenburupean bildu da, dokumentu honetan, Ikastolen Elkartek aisiaz duen ikuskera. Helburua da EHItik, Zirimolaren bidez, aisialdirako bideratzen den eskaintzak ez ezik, ikastola bakoitzak hari begira egiten duen esku-hartze orok Ikastolen Hezkuntza-proiektuan definitzen den pertsona-ereduarekin koherentzia gordetzea eta haur, nerabe eta gazteen irteera-profilari ekarpena egitea. Hala, dokumentu honek lagungarri behar luke, aurreikusi beharreko xede eta estrategiak definitzeko garaian, ikastolen testuinguruan aisialdiari begirako edonolako ekimen edo esku-hartze bideratzerakoan.

Aisiak, oro har, eta aisialdiko ekimen bezala ikastoletan garatzen diren egitasmoek ekarpen ordezka ezina egiten diote Hezkuntza-proiektuari, han definitutako pertsona-eredua hezteko bidean. Hortik datorkio ikastolen Hezkuntza-proiektuari izaera integrala, gela barruko curriculumak eta gelaz kanpokoak, askotariko aisia-jardunen bidez, pertsona bere dimentsio guztietan harrapatzea baitute helburu. Izan ere, ikasleari, norbanako bezala garatzeko aukera emateaz gain, euskal kultur komunitatean integratzeko aukera ere ematen dio, horrela, hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan eraginez.

Ikastolon ikuskeratik, aisiak balio hezitzaileak dakartza berarekin, bai edukietan eta baita egiteko moduetan ere. Eta bideratzen diren askotariko esku-hartzeek ekimen ludiko, parte-hartzaileak izanik, ikastola-barneko komunitatea saretzen eta talde-pertenentzia sentimendua indartzen laguntzen dute. Horretaz gainera, baldintza jakin batzuen baitan garatuz gero, behinik behin, ekarpen guztiz baliotsua egiten dio haur, nerabe eta gazteen euskalduntzeari, esparru horretako egoera ez-formaletan harreman-sarea euskaraz eraikitzeak aukera emanez eta, hura denboran luzatuz, euskal hiztun bihurtzeko ohitura ere txertatuz. Horixe da euskal hiztun aktibo bihurtzeko bidean lehen urratsa: ikastolako "lagun" taldean, zeina, haur eta nerabeen adinean bereziki, sozializazio-gune eta garai garrantzitsua den, euskaraz komunikatzeko ohitura sortzea. Lagun-arte euskaraz aritzeko usuarioa indartzeak, finean, hizkuntza hori egiteko akademikoetatik bizitzako erdigunera ekartzea dakar berarekin.

Badakigu jakin hizkuntzek eta kulturek, oro har, garatuko badira, espazio komunak eta elkarreraginerako aukerak behar dituztela. Gaur egun euskararekin bizi dugun bidegurutzean, ikastolok lidergoa hartu behar dugu ikastola-esparrua euskararen arnagune indartu bihurtzeko ahaleginean. Horretarako, gela barruko eskaintza eta gelaz kanpoko maila berean kokatuz, batean zein bestean komunikazioa oinarrian dagoelako eta historikoki gela barruko curriculumari, euskalduntzeari dagokionez, aitortu zaizkion helburuak eskuragaitzak dituelako, bere aldetik soilik arituz gero. Halaxe erekutsi dute azken aldiko inkesta soziolinguistiko eta ikerketek, eta jendartean ere eragile asko ohartu da jada duen garrantziaz.

Ikastolak euskararen arnagune indartu bihurtzeko ahaleginean eta Hezkuntza-proiektu integrala garatzekotan, aisiari garrantzia emateak derrigorrean garamatza ikastola-komunitatea osatzen duten eragile guztiei begirako esku-hartzean

pentsetara. Ikastola, azken finean, elkarreragin etengabeen ari den giza taldea da, zeinetako subjektuak esparru, une eta askotariko egoeratan, helburu jakinez elkarrekin harremantzen diren. Hezkuntza-komunitate izendatzen dugun horren kide ditugu zuzendaritzako kideak eta irakasleak ez ezik, hezitzaileak (kirol-jardueretan dihardutenak *entrenatzaile* izendatuak), askotariko zaintzaile eta dinamizatzaileak ere. Guztiak ditugu aintzat hartu beharrekoak. Eta Haur-Hezkuntza/Ama-Ikastola eta Lehen Hezkuntza/Lehen Maila etapetan, bereziki, baita familiak ere. Etxekoen portaerak eta hartzen dituzten erabakiek, azken finean, zerikusi handia baitute, ikastolatik kanpo, haurrari eskaintzen zaizkion harreman-sarearen eta kultur baliabideen hizkuntza-ezaugarrietan. Albora ezina baitugu familiak jokatzen duen eredu-rola, alegia, badakigu seme-alabek “zer ikusi hura ikasi” jokatzen dutela. Hala, haiek, dena delako hizkuntza-profiiletakoak izanik ere, paper garrantzitsua jokatzen dute seme-alabekin eta, oro har, edozein harremanetan erakusten duten hizkuntza-portaerarekin, eredu-emaile baitira. Hori horrela, ikastolak ahalegin berezia egin behar du, familiak ikastolaren helburu hezitzaileekin bat egin dezan eta haien hedapenean inplika dadin. Horrela lor genezake ikastolaren eragina biderkatzea eta, batik bat, ikasleak ikastolan eta etxean jasotzen duen inputa koherentea izatea, hots: familia ikastolaren luzapena izatea, bat egitea ikastolak euskararen normalizazioan duen konpromisoarekin eta seme-alaben euskalduntzean eta euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko egokiak diren jokamoldeetan inplikatzeko.

Bestalde, ezin ahaztu dugu haur, nerabe eta gazteen garapenean, gelaz kanpoko esparrua ez dela mugatzen, soilik, ikastolaren eskumeneko denbora-tarte eta egitarau-eskaintzara. Ikasleak adinean aurrera joan ahala, are eta gehiago, herri-mailako askotariko eskaintzak pisu handia du haiengan eta, zentzu horretan, ikastolako ordezkarien, Udal teknikarien eta tokian tokiko euskara-eragileen arteko elkar-lana behar-beharrezkoa da, herriko aisia-eskaintza (kultura eta kirola) ikastolan bizi den arnagunearen luzapen al bait gertukoena izan dadin. Gure irudiko, horrela baino ez baita aldeneko euskara egun Euskal Herri guztian bizi duen egoera diglosotik, hots: haurrek, nerabeek eta gazteek, egiteko akademikoetatik haratago, funtzio barrenkoi eta lagun-arteetan euskaraz aritzeko gaur egun nozitzen duen izugarritzko hizkuntz funtzio defizit horretatik. Dokumentu honetan bereziki azpimarratzen den helburua da hori, ulertzen baitugu, une honetan, ikastolon egiteko funtsezkoenatariko bat dela eta jendarteari ekarpenik ere egin diezaikegula zentzu horretan. Probestu dezagun, beraz, azken aldirian euskalgintzako eragileak aisia euskalduntzeko beharrez egiten ari diren aldarria, eta saia gaitezen elkar-lanerako ildoak herriz herri jorratzen.

Azkenik, ondoko orrietan zabaltzen diren ideia nagusien aurkezpen hau amaitze aldera, dokumentu hau zein norantzatan hedatuko dugun aipatu nahi dugu. Hala, bi norantza nagusitan eragin nahi bada ere, helburua bakarra da, hots: aisia euskararen ezagutza eta erabileran aurreratzeko bitartekotzat berariaz baliatzeko premia azpimarratzea eta, hala gerta dadin, bitarteko jakinei erreparatzea. Dokumentu honen bi hartzaile nagusiak dira, batetik, Ikastolen Elkartearen Zirimola taldea eta haren aisia-eskaintza da eta, bestetik, ikastola guztiak eta haien aisialdirako eskaintza.

Lehenari dagokionez, azpimarratu behar dugu Zirimola taldearen aisialdirako egitarau eskaintza ikastolen Hezkuntza Proiektuan txertatu ohi dela eta ikaslearen irteera-profilari ekarpena egiten diola ikuskera eleaniztunetik eta gela barruko curriculumean lantzen den zenbait alderdiren osagarri dela. Horretaz gainera, Zirimola taldearen eta

Hizkuntzen Mahaiko kideen arteko elkarlanean idatzi den dokumentu honek izan du jada eraginik Ikatolen Elkartetik aisiarako egiten den eskaintzan eta, bereziki, bistaratuarazi eta indartuarazi ditu euskararen ezagutza, erabilera eta harekiko sentiberatzeari loturiko aldeak, baita horien lanketak zein inpakto duen neurtzeko tresna eta estrategiak sortarazi ere. Alegia, Ikastolen Elkartearen aisialdirako eskaintzan berariazko ahalegina egin da, euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko bitarteko modura ustiatzeko, helburuak finkatzen eta haietara iristeko, aisia-eskaintza horretan hizkuntz helburuak ezartzen. Era berean, urratzen hasitako bide horretan doikuntzak egiten jarraitzeko konpromisoa ere hartu da.

Bigarren hartzaile nagusia ikastolak dira eta haietan diharduten Hizkuntz Proiektuko erreferenteak. Kasu horretan ere, dokumentu honek garrantzi nabarmena hartzen du, izan ere, ororen gaintik azpimarratzen du edonolako aisia-eskaintza euskararen zabalkundearen aldeko gune modura ustiatzekotan, jarduera bera antolatzearekin batera zein premiazkoa den hizkuntz helburuak finkatzea eta haietara iristeko baliatuko diren estrategiak zehaztea.

Sinetsita gaude, dokumentu honetan zehazten den bidean sakonduz eta jokamoldea sistematizatuz, ikastoletako ikasleen irteera-profilean definitzen den pertsona-eredu horretan, *euskaldun eleaniztuna*, *euskaldun* ezaugarria euskal hiztun oso eta aktibo izatetik gertuago izango dela. Hala bedi!

## **1.1.- Ikastoletan urteetan zehar aisiari begira egindako ibilbidean, hobetzekoak.**

Aisialdiak haur, nerabe eta gazteengan duen garrantziaz ikastolon ikuspegitik aritzeak, hezkuntza-erakunde garenez, lehen unetik ikaslearen irteera-profilari eta haiek biharko egunean izan daitezten amesten dugun pertsona-ereduari begira jartzea dakar, nahi eta nahi ez. Ikastolak sorreratik izan dugun gizartea euskalduntzen eragiteko konpromisoan, “gazte euskaldun eleaniztunak heztea” ez ezik, gure gazteei euskal kulturaren murgiltzeko aukera luzatzea ere gure lehentasunezko helburuen artean kokatzen da. Are eta gehiago, 50 urteko ibilbidea egin ostean, egungo gizartean nabarmentzen diren premiei erreparatuta, lehentasun estrategikoko bihurtzen du. Izan ere, eleaniztasunerako bidea uka ezina izanik, ikastolak (eta euskal Hezkuntza-sisteman, oro har) berezitasun garrantzitsu bat dugu, gure izatea zeharo baldintzatzen duena: euskararen biziberriatzearen alde egina dugun hautua. Euskarazko kalitatezko komunikaziorako, hots, euskarazko komunikazio eraginkorrerako gaitasuna garatzea irizpide nagusizat joa duen eskola-ereduan, nekez iritsiko gara helburura, bizi dugun hizkuntza-ukipen egoeran, hizkuntza nagusiak (gaztelera eta frantsesa) gailentzen zaizkigulako, euskararen ardaztutako eleaniztasuna bultzatu ezean. Ikastola-esparruan eta gizartean testuinguru soziolinguistikoen arabera euskararen aldeko indartze-neurriak hartu ezean, euskaldun eleaniztunak binomioaren lehen zatia lauso antzera erdiesten jarraituko dugu, azken inkestek eta ikerketek erakutsi duten moduan<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Arrue ikerketa: EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2017; EHU\_Hernandez, Jone M. eta Altuna, Jaime (2017): “Gazteak euskararen jolastokian”.

Egiteko horretan, haur, nerabe eta gazteak euskalduntzeko bidean, aspaldi ohartu ginen, helburua erdietsiko bagenuen eta ikaslea bizitzako egoerei eta beharrei euskaraz egoki erantzuteko beharrezko dituen konpetentzien jabe egingo bazen, horien lanketa ezin genuela mugatu gela barruko jardunera eta, are gutxiago, hizkuntza-arlora. Ondorioz, *komunikatzen ikasi* konpetentziaren ardura, gainontzeko konpetentzia guztien baitan oinarritzkoa eta bereizi ezina dena, komunitate osoaren egiteko bezala ulertzen dugu eta ikasleak bere inguruan, ikastolan eta handik kanpo, gizarte hurbilean, bizi dituen askotariko bizi-esperientziek, ezinbestean hizkuntza-esperientzia ere badirenek, haren ezagutza eta erabilerari ekarpena egiten dietela eta, beraz, kontuan hartu beharrekoak ditugula. Azken aldian, Paula Kasaresen tesia lagun, teoria soziolinguistiko klasikoak lehen hizkuntzaren transmisioan familiak jokatzeko duen paper erabakiorrari haur, nerabe eta gaztearen gizarte-sozializazioak jokatzeko duena gehitu zaio. Izan ere, oro har, egungo gizartean gertatzen den erdaretarako mudak zera erakusten baitu: hiztunaren lehen hizkuntzarekiko atxikimendua, sarri askotan, sozializazioan gailentzen zaion hizkuntzak lausotzen duela. Horrenbestez, hizkuntzalari nafarrak bereziki erreparatzen dio gizarte-mailako sozializazio hori zein hizkuntzatan gertatzen den, zeren egungo ikerketek frogatzen baitute hiztunaren hizkuntza-hautuan eragin nabarmena duela.

Horregatik, aldarrikatzen dugu duela 30 urtez geroztik<sup>2</sup>, gelaz kanpoko askotariko egoeratan ere modu hausnartu eta planifikatuan jokatu beharra, baldin eta egoera minorizatuan dagoen euskarari funtzionaltasuna eta ikusgarritasuna emango bazaio, eta harenganako ideologia sendotuko bada, hizkuntza-ukipenean dituen arriskuen erdian. Batik bat, eremu ez-formal horrek eta bertan gauzatzen den edonolako aisiak ematen digulako aukera ordezka ezina pertsonen arteko harreman ez-formaletan egokiak diren hizkuntza-ereduak, jarrerak eta konpetentziak jorrazteko eta barnerratzeko.

2002an Ikastolen Hizkuntza-proiektua<sup>3</sup> abian jarri zenean (2009an argitaratu zen liburu-formatoan), gelaz kanpoko eremuari gela barruko eremuari bezainbesteko garrantzia aitortu zitzaion, izan ere, euskarari begirako hizkuntza-helburuak lortzeko ezinbestekotzat hartu zen:

*“Eremu horrek (gelaz kanpokoak) bi helburu izango ditu edozein dela ere ingurune soziolinguistikoa: batetik, euskara egoera informaletarako ere baliagarri dela aitortzea eta ikasleari gelaz kanpoko jardunerako behar duen hizkuntz erreperitorioa eskaintzea; eta, bestetik, ikaslea euskaraz garatzen den harreman-sarean integratzea eta talde horren kohesioa indartzea, denboran iraun dezan”.*

Hona hemen Ikastolen Hizkuntza-proiektuak zein hedapenetako esku-hartzea irudikatzen eta proposatzen duen goian aipatu helburua erdiestekokotan, hots: ikastolak euskararen arnagune babestu izatea. Bistakoa da, finean, hezkuntza-komunitate osoa

---

<sup>2</sup> Garai hartan sortu zen Euskaraz Bizi egitasmoa ikasleari gela barruko giro euskalduna gelaz kanpoko eremura eta, bereziki aisiara hedatzeko asmoz. Helburua ikastola euskararen eremu babestua sortzea zen eta bertan ikasleen arteko harreman-sarea ahalik eta euskaldunena finka zedila.

<sup>3</sup> Askoren artean, Euskal Herriko Ikastolen konfederazioa (2009): “Ikastolen Hizkuntz Proiektua”. Honela definitzen du proiektua: “Ikastolaren hizkuntz proiektua ikastolan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa da”.

barneratzen duela eta hura bere osotasunean hizkuntza-helburuen baitan aktibatu beharra aldarrikatzen duela:

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK					
HEZKUNTZA-PROIEKTUA					
Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza					
EREMU PEDAGOGIKOA			EREMU INSTITUZIONALA		
GELA BARRUKOA		GELAZ KANPOKOA (jolasa/oliak, kirol ekintzak, jantokia, garrarioa, irteerak eta abar)	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA		KANPO-HARREMANAK <small>(beste ikastetxeak, gazte-ekarteak, udal-ak eta hem-erakundeak, homitzaileak)</small>
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA		IKASTETXEA	FAMILIA	
<b>1. HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA</b> o Hizkuntza arloaren kudeaketa o Helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak <b>2. BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK</b> o Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak (hizkuntzen tratuera instrumentala). <b>3. PROIEKTU OSAGARRIAK</b> o Zehar-lerroen hizkuntz tratuera o Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak <b>4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA</b> o Hizkuntz hobekuntza o Arloko metodologia eta didaktika o Hizkuntzekiko jarrerak <b>5. BALIABIDEAK</b> o Arlo bakoitzeko ikasmaterialak o Espazioen banaketa eta hizkuntz tratuera o Informazio iturrien eta beste-lako baliabideen hizkuntza	<b>1. HIZKUNTZ ERABILERA</b> o Arlo bakoitzeko hamar-hizkuntza o Irakaslearen hizkuntz eredu eta hizkuntzarekiko jarrera o Ikaslearen arteko hizkuntz erabilera <b>2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA</b> o Komunikazio-egoera esanguratsua o Taldekatze motak eta irizpideak <b>3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA</b> o Hizkuntz hobekuntza o Jardueraren metodologia o Hizkuntzekiko jarrerak <b>4. BALIABIDEAK</b> o Gune eta zerbitzu-erako baliabideen hizkuntz tratuera	<b>1. HIZKUNTZ ERABILERA</b> o Gobernu, administrazio eta funtzionarienduen hizkuntz erabilera eta tratuera o Langileen hizkuntz profila o Hizkuntzen tratuera iruzki erabakiak bilzen dituzten dokumentuak <b>2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA</b> o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak <b>3. BALIABIDEAK</b> o Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz tratuera o IKT euskarriren hizkuntz tratuera o Ikastolako espazioen hizkuntz tratuera	<b>1. HIZKUNTZ ERABILERA</b> o Familien hizkuntz tipologia o Familia barruko hizkuntz erabilera o Ikastolen eta gurasoen arteko harremanak <b>2. GURASOEN PRESTAKUNTZA</b> o Hizkuntz hobekuntza o Hizkuntzekiko jarrerak <b>3. BALIABIDEAK</b> o Komunikazio baliabideak: aldizkariak eta abar	<b>1. HIZKUNTZ ERABILERA</b> o Harremanetarako hizkuntz irizpideak <b>2. ERABILERA EREMUEN SUSTAPENA</b> o Harreman-sareak indartzea o Euskal kultur ekintzak bultzatzea o Euskarazko ekintzak bultzatzea.	

Dagoeneko, urteak dira ikastola bakoitzak bere lehen Hizkuntza-proiektua dokumentua idatzi zuela. Ibilbide horretan, lau urtez behin, Plan Estrategikoak berriro dituzte eta haien baitako urtez urteko planen arabera, lanean murgildu. Bizi dugun berrikuntza pedagogikoen une honetan, berriz ere badagokigu, *euskalduntzeari* dagokionez, non gauden aztertzea, hartuak ditugun erabakiak berrikustea eta indartze-neurri albait eta eraginkorrenak bideratzea, baldin eta, erakunde bezala definitzen gaituen helburu nagusia, beste askoren artean, lausotzerik nahi ez badugu. Bereziki, lehen hizkuntza erdararen bat duten haur, gazte eta nerabeen euskalduntzean, orain bitartean baino eraginkortasun handiagoz arituko bagara.

Azpitarragarria da, dena den, Ikastolen Hizkuntza-proiektuak gelaz kanpoko esparrua dioenean, ikastolak eta Ikastolen Elkarteak erakunde bezala, kudea dezaketenaz ari dela, soilik. Alegia, bere gidaritzapean gauzatzen denaz. Eta ezin ahaztu handik kanpo ere aisiari loturiko esparru zabal eta garrantzitsua izan badela. Hortik datorke ikastoletan barrura begira ez ezik, herrira begira ere aritu beharra eta, batik bat, euskararen normalizazioari ekarpenik egin diezaioketen elkarte eta erakundeekin elkar-lana estrategikoki eraikitzea.

Aipatutakoak aipatuta, badu, ordea, aisiak albo batera utzi ezin dugun bestelako funtzio hezitzaileak ere, sarritan ahanzi xamar izan ohi dena. Ikastolen Hezkuntza-proiektuak definitzen duen ikaslearen irteera-profilari ekarpen ordezkia ezina egiten dio gelaz kanpoko eremuan garatzen den curriculumak, batik bat, duen izaera ez-formal eta bibentzialarengatik, zeinaren alderik esanguratsuenetariko bat den, hain zuzen ere, gela barruko simulazio-egoeratik atera eta ikasleak, unean uneko jardura ludiko

jakinetan, ekiten eta egiten murgiltzea. Horrek ematen dio, bereizki, aparteko balioa aisialdian ikastolaren ekimenez, Ikastolen Elkarteko Zirimolaren edo herriko aisia-talderen baten gidaritzapean bideratzen den jarduera ludikoari. Horrenbestez, aisiari balio hezitzaileerik aitortzen diogularik, berariaz landu nahi diren balioen mesedetan den aisia-eskaintza jakina bideratzearen alde, kontzienteki, egin beharra dugu, garbi utzita, edozein eskaintzak ez duela balio. Beraz, ezinbestean, ikastoletan definitu dugun pertsona-ereduarekiko koherentea den aisia-eskaintza haren alde egin beharko dugu.

## **1.2.- Gizarte-eragileekin indarrak batzeko abagune egokia.**

Esana dugu, jada, aitortzen diogula aisialdiari balio hezitzaileerik. Ondorioz, aldi berean ari gatzazkio aitortzen gaitasun eraldatzaileerik, zeina ikastolako hornez gandi jendartera hedatzen den. Finean, sinetsita baikaude, ikastoletan garatzen dugun curriculumak, kasu honetan aisialdi-ereduak, ekarpen esanguratsua egin dieziokeela bizi dugun gizarte-moldeari, balio jakin batzuk hedatuz, bai euskararen sustapenari dagokionez, bai ludikotasunari buruzko ikuskera jakin bat indartuz eta hartan heziz.

Alde batetik, euskararen bizi-indarrarekin kezkatuta gauden honetan, begi-bistakoa dugu, jendartean oro har, euskararen ezagutzak ez duela beti bermatzen erabilera, eta harenganako jarrera ona izateak ere, ez dakarrela berarekin, kasu guztietan, hiztun aktibo izatea. Errealitate hori ikastolen ibilbidean aspaldi nabarmendu bazen ere, egun, are eta orokortuagoa ageri zaigu. Horregatik, gela barruko eremuari gelaz kanpoko eremua gehitu beharraz kontzienteago gara, kasurik onenean ere, D eredura inguratzen diren haur eta gazteek euskararekin duten harremana, ehuneko handi batean, eskolaren esparrura mugatzen baita. Horrek esan nahi du euskara bigarren hizkuntza duten haur eta gazteak asko direla. Azken Inkesta Soziolinguistikoaren arabera<sup>4</sup> Euskal Herriko euskaldunen %50,2 euskara lehen hizkuntza dutenak dira, hots, etxean ikasi dutenak. Jatorrizko elebidunak —etxean euskara eta beste hizkuntza bat jaso dituztenak— %13,6 dira, eta euskaldun berriak, %36,2. Herena baino gehiago dira, hortaz, gaur egun euskara bigarren hizkuntza bezala eskolan jasotzen dutenak. Bistan da datu orokor horiek Euskal Herrian sakabanatuta dauden ikastoletan ez direla proportzio berean gordetzen; badakigu esparru soziolinguistikoek aniztasun handia dakartela ikastola bakoitzaren testuingurura, hortaz, premiak ere askotarikoak dira han eta hemen.

Gainera, ezin dugu ahaztu Iñaki Arrutik<sup>5</sup> aspaldi kalkulatu zuenez, eredurik euskaldunenean eta, beraz, hizkuntzaren ezagutza eta erabileran emaitzarik onenak ematen dituen horretan, ikasten duen ikasleak esna ematen dituen orduen %14 bakarrik pasatzen duela gela barruan, euskara eta euskaraz ikasten, hortaz euskarazko inputa jasotzen. Gainontzeko %86n jasotzen duen hizkuntza-inputa ez dago eskolaren ardurapean, baldin eta ez badu beren-beregi antolatzen esku-hartzerik gelaz kanpoko esparruetarako. Hortik datorke gazte askoren ustea dena, alegia: euskarak, berez, derrigortasuna eta nekea baino ez dakarrela. Horixe, aldatu beharreko ustea, eta, haren lekuan, pozaren eta dibertimenduaren munduan murgiltzeko ere baliagarri dela sinestea eta hartan biziarazteko grina piztea edo ohitura indartzea, behinik behin. Gaur egungo haur eta gazte askoren

<sup>4</sup> VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera (16. or.). Euskal Herriko datuak (Iparralde eta Nafarroa barne).

<sup>5</sup> Iñaki Arruti, soziolinguista. Lasarte.

bizi-esperientzia horri buelta eman beharrean gaude, al bait eta azkarren, ikastolon, herriko udalean diren gaztedia-saileko teknikarien eta euskara elkartearen arteko elkar-lana sustatuz eta horretarako, ikastolak akuilu-lanean protagonismoa hartuz. Izan ere, une honetan, inoiz baino nabariagoa da jendartean aisia-eskaintza erdigunera ekartzeko behararen aldarria, gazteen artean komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin eragiteko.

Bestetik, herri-eragileekiko aipatu elkar-lan horrek, bistan da, hizkuntza-helburuak indartzearekin batera, ludikotasunari buruzko ikuskera jakin bat herrian hedatzeko eta indartzeko parada eskaintzen du eta horretan ere ahalegina egitea merezi du.

Beraz, aisialdiko esku-hartzeetan pentsatzen jarritakoan, gune soziolinguistikoaren arabera beharrak desberdinak izanik ere, guztiok bat egin beharko dugu xede honetan: ikastolen Hezkuntza-proiektua ardatzen duten balio hezitzaileak helburu dituen eskaintza egitean. Hala, honako osagai hauek komunak behar dute eta aintzat hartzekoak: balore jakin batzuk lantzea dakarren aisialdi-eredua izatearekin batera, euskararen-erabilera bultzatuko duten eta euskarazko harreman-sareak sortu eta indartzeko dituzten askotariko egitasmoak eta espazio anitzetan gauzatzekoak izatea, emozio atseginak eragingo dituztenak, zaletasunez gozatzeko aukera eskainiko dutenak eta euskal kulturaren ezagutzan sakotzeko aukera emango dutenak, tokian tokiko testuingurua aintzat hartuta.

## **2.- Aisia ikastoletan: aisia kontzeptua eta hari buruzko begirada.**

### **2.1.- Kokatze orokorra.**

Ikastolen Elkarteko Zirimolak aisiarekiko duen begirada bi norabidetan garatzen da: batetik, aisiak duen ezaugarri hezitzaile eta pedagogikoan eta, bestetik, komunitatearen baitan aisiak duen indar kohesionatzailean.

Ikuskera horrek, muinean biltzen du, honako ideia nagusi hau, alegia, esperientzia gozagarriek badutela ahalmena, barnebiltzen dituzten osagai eta ezaugarriekiko atxikimendua garatzeko. Hots, esperientzia autotelikoak izateko. Teoria horren arabera, aisialdia gozagarria bada eta, euskara esperientzia horren osagai funtsezkoa, harekiko izango dugun atxikimendua sakona eta iraunkorra izango dela.

Ikuskera hori xedetzat hartuta, ikastoletan garatzen diren aisia-ekimenetan bereziki erreparatzen zaio euskaraz bideratuak izateari eta euskal kulturaren errotuta egoteari. Era berean, ahalegin berezia egiten da Zirimolatik helburu eta osagai horiek herrian antolatzen diren bestelako aisia-eskaintzetan ere txerta daitezen. Hala, ikastolen ahalegina soilik ez baino, jendarte osoarena izatera iritsi dadin; azken finean, bada ageriko ahalegin bat, ikastolaren eta herriaren artean elkar elikatze esanguratsua gerta dadin.

Horretaz gainera, ikastoletan sustatzen den aisia-ereduak pertsona eta kultura erdigunean jartzea dakar eta, horretarako, balore anitzak eta ikuskerarekiko koherenteak direnak biltzen dituen aisialdi eraldatzailea bultzatzen da. Izan ere, Ikastolen Hezkuntza Proiektuak haur, nerabe eta gazteak aisian ere hezteko aurreikusten du, ulertuta, hezkuntza-ereduaren egitekoa soilik ez baino, tokian tokiko herri-erakundearen egitekoa ere badela, eta, horretarako, askotariko antolaketa komunitario, kooperatibo eta publikoak ezinbestekoak direla. Era berean, ekimenen horien guztien arteko saretzea sustatzea ere behar-beharrezkotzat jotzen da.



Horrenbestez, aisiarekiko begirada horrek bat egiten du ikastolek, sortze beretik, mugimendu gisa izan dituzten izatezko ezaugarriekin: izaera kooperatibo eta publikoarekin.

Azkenik, azal dezagun zein den Zirimolaren aisiarekiko begiradan sakondu baino lehen, aisialdia eta astialdia terminoen arteko desberdintasuna. Astialdia denbora libre da; aisialdia, berriz, denbora libre hori betetzen duen antolaturiko jarduera. Horrela, ikastoletara bideratzen den aisialdi-eskaintzaren xedea ikaslea denbora librearen erabilera egokian heztea da. Alegia, gazteak konformismotik eta globalizaziotik urrunduz, ikuspuntu kritikoan hezi nahi ditu, norberaren ikuskeraren arabera, denbora librearen erabilera subiranoa egitera irits daitezzen.

## 2.2.- Ikastolen Hezkuntza-proiektuaren gakoak: ikaslearen irteera-profila.



Ikastoletan, aisialdia Hezkuntza-proiektu pedagogiko integralaren baitan kokatzen da. Pertsonari garatzeko laguntza eskaintzeaz gain, komunitate kulturalen bere burua txertatzeko aukera ere eskaintzen dio. Azken finean, Euskal Curriculumak arloetan gazteek euskal kulturaz izan behar duten oinarritzko ezagutza finkatzen du eta hari ekarpena egiten dio aisiari begirako ikastolen eskaintzak, haur, nerabe eta gazteen euskal komunitate kulturalarekiko identifikazioa garatzen laguntzeko helburuz. Baita, egun jendartean, globalizazioaren izenean gero eta hedatuago dauden individualismoa eta konpetitibitatea bezalako baloreei aurre egiteko gai izango diren gazteak heziz ere eta bestelako zenbait baloretan (erabakimenean, aniztasunarekiko errespetuan, sormenean...) trebatuz.

Ondoko kuadroan biltzen dira ikastolen Hezkuntza-proiektuaren gakoak, hots, ikastolako ibilbidean ikasleak eskuratzea helburu dugun izate-ezaugarriak.

<p>1. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIKO KONPROMETITUA</p>	<p>Euskara, euskal kultura eta gizartearekiko konprometitua dena, ikastolan eta gizarte mugimenduetan auzolanean parte hartuz, munduko euskal herritarra izateko.</p>
--	---

2. EUSKALDUN ELEANIZTUNA	Egoerak eskatzen dituen hizkuntzak eraginkorki erabiltzen dituena, ahoz, idatziz edota digitalki, azalpenak, iritziak eta sentimenduak ulertuz eta adieraziz, besteekin elkarreragiteko eta jakintza partekatzeke.
3. BERE BURUAREKIKO KONFIANTZADUNA	Norbere buruarengan konfiantza duena, bere indargunez eta ahulgunez kontziente izanez eta egindako bidetik ikasiz, pertsona bezala hazteko eta bere bizitza proiektua garatzeko.
4. LANKIDETZAN IKASKIDEA	Helburu bera duten kideen artean lankidetzan aritzen dena, norberaren ardurak beteaz eta beste kideekiko enpatikoa izanez, elkarrekin ezagutza berriak eraikitzeke.
5. ERABAKI HARTZAILE KRITIKOA	Kritikoki jarduten duena, galderak eginez, informazio fidagarria bilduz eta iritziak libreki eta asertiboki osatuz, norbere buruaren jabe izateko eta erabakien aurrean erantzukizunez jokatzeko.
6. EKINTZAILE GOGOETATSUA	Ekintzak planifikatzen, gauzatzen eta ebaluatzen dituena, ekina eta gogoetatsua izanez, ideia berrietara irekita egonez eta jakin-mina elikatuz, bizitzan zehar etengabe ikasteko eta erronka pertsonalei zein kolektiboari aurre egiteko.
7. JOKABIDE ETIKODUNA	Giza eskubideetan oinarritutako printzipio etikoekin bat datozen jokabideak dituena, gizartearen aniztasunekin aberastuz, elkarriketa eta negoziazioaren bidez eguneroko gatazkei irtenbideak bilatzeko.
8. IKUSMIRA ZIENTIFIKODUNA	Errealitatea ikusmira zientifikoaz aztertzen duena, zientziaren ezagutzan eta metodologian oinarrituz eta aplikazio zientifiko eta teknologikoak erabiliz, aurreiritziak ekiditeko eta iraunkortasunean eragiteko.
9. OSASUN-OREKAREN ZAINZAILEA	Norberaren gorputz, buru eta emozioen oreka zaintzen duena, bizi-ohitura osasungarriak planifikatuz eta praktikatzuz, zoriontsuagoa izateko eta besteengan positiboki eragiteko.
10. SORTZAILEA	Adierazpen eta ideia berriak sortzen dituena, barne-mundua eta ingurunea irudikatuz eta jarduteko modu anitzekin esperimendatuz, errealitatearen ikuskera ezberdinei ekarpen propioa egiteko.

### **2.3.- Euskal curriculumaren garapena eremu ez-formalean: aisialdia, Hezkuntza-proiektu integralaren osagarri.**


Ikastola-eredua Euskal Curriculumaren gauzapenean zertzen da, eta haren helburu nagusia ikasleak bizitzareko oinarrizko kompetentzietan hezte da, integrazioaren pedagogia bitarteko dela. Oinarrizko kompetentziak dira, Europako Erkidegoen Batzordeak proposatutakoaren arabera (2006), *“persona guztiek behar dituztenak beren burua errealizatzeko eta garatzeko, bai eta inklusio sozialerako eta herritartasun aktiborako ere”*.

Euskal Curriculumean zehaztutako hezkuntza-xedeak eta eskolaldirako hezkuntza-kompetentzia oinarrikoak eskuratzeko bidean, bitartekari aparta da aisialdia. Ikas-esparru bakoitzak bere ekarpena egiten dio ikaslearen irteera-profilari eta, aisialdiaren kasuan, zeregin hori, ludikotasunaren bidez gauzatzen da, zeina ikaslearen adimenaren, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasunaren, emozioak adierazteko eta kontrolatzeko gaitasunaren eta ekintzak egokitasunez bideratzeko gaitasunaren baitan garatzen den.

Aisialdiari begirako esku-hartzearen izaera eta eragina, gure ikuskeratik, ez da mugatzen eskolaldira, baizik eta haur, nerabe eta gazteen eguneroko bizitzara eta bizi osora hedatzen da. Alegia, ikasleak aisian heztea da gure helburua eta horretarako ezinbestean, gozamenerako trebetasuna landu beharra dugu, hots: gogoia.

### 2.3.1.- Aisialdia nola uztartzen den oinarriko kompetentziekin.

#### EUSKAL CURRICULUMA ETA HIZKUNTZA-IKUSPEGIA



Duela urte batzuk, Euskal curriculumarekin batera ikasleak kompetentzietan hezi beharraz hizketan hasi ginenean, bost puntako izar baten bidez irudikatzen genituen oinarriko konpetentzia orokorrak. Denborarekin konturatu gara horietako bat, *Komunikatzen ikasi* delakoa, beste guztiengandik bereizi ezina dela, hain zuzen ere, hizkuntzarik gabe pentsamendurik ez dagoelako eta ezagutza hizkuntzaren bidez barneratzen delako. Horrela

bada, gaur egun, *Komunikatzen ikasi konpetentzia* (konpetentzia digitala barne), gainontzeko konpetentzia guztien oinarrian dagoela ulertzen dugu, azken finean, komunikaziorako gaitasuna egoki garatua ez duenak nekez garatuko dituelako gainontzekoak.

Dokumentu honetan ahozko komunikazioaz ariko gara bereziki, eta, haren lanketarako, aisialdiak zenbaterainoko aukera ematen digun azaltzen saiatuko gara. Konpetentzia orokor bakoitza bere aldetik garatu badugu ere, bistakoa da lehen tokian azaltzen dugun *Komunikatzen ikasi konpetentzia* ondotik datozenen oinarrian dagoela, eta hura gabe besteak garatu ezinak direla.

### ***Komunikatzen ikasi (KI)***

*Euskaldun eta euskal hiztun aktiboa hezteko bidean, aisiak aukera ezin hobea damaigu hizkuntzen ikaskuntza-prozesuan erdigunean kokatzen den elkarreraginerako:* ezagutzatik erabilerara eta erabileratik ezagutzarako kiribilean, ahozko adierazpena beharrezko bihurtzen baita. Egoera ludikoen gure barnean sortarazten duten sententzio atsegina baliatuz, bizipen horien gaineko erakargarritasuna, euskararen estetika, sentiaraztea gauzagarria da aisian. Aisiarekiko erakarpenean euskarara hurbiltzea badakar, euskaraz aritzeak aiderazpen-gaitasunean aurrera egitea. Kiribil horretan irudikatzen dugu euskararen aldeko motibazio positiboa areagotzea.

*Aisian jolasa komunikazioaren oinarrian kokatzen da.* Jolasa komunikaziorako bide oso garrantzitsua da, jokabide motorra garatzen laguntzen duelako. Aisialditik garrantzia berezia eman nahi diogu pertsonen jokabide motorrari, azken finean, soin-adierazpena ezinbesteko baldintza baita besteekin modu asertiboan komunikatzeko. Hori dela eta, jolas, joko eta jardura ludikoen eskaintzen diguten aukera-aniztasuna erdigunean ezarri behar dugu.

*Bestearen eta izadiarekiko onarpenerako bidea.* Pertsonaren garapen integrala bermatzeko, ezinbestekoa da ingurune sozialarekin eta fisikoarekin harreman estuan izatea, eta bakoitzaren ezaugarriez jabetzea. Jolas, joko eta jardura ludikoen bidez, garapen sozio-ekologiko orekatua duten uneak eskaintzea ahalbidera genezake, eta norbera besteekin zein ingurune naturalarekin elkarrekintzan aritu ahal izateko aukera.

### ***Norbera izaten ikasi (NI)***

*Adimen emozionala.* Emozioek bizitzako momentu eta arlo guztietan duten eraginaz jabetuta, aisialdirako heziketaren bitartez, aukera zabal bezain aberatsa izango dugu alderdi emozional hori lantzeko. Horren arrazoia sinplea da, egoera ludikoen eguneroko bizitzako egoerak irudikatzeak aukera ematen digute, eta, horien bidez, hainbat egoera esperimenta dezakegu. Aisiak adimen emozionalari dagozkion lau gaitasun hauek lantzeko aukera eman beharko liguke:

- norberaren eta beste pertsona batzuen egoera emozionala zehazteko eta identifikatzeko gaitasuna
- emozioen bilakaera naturala ulertzeko gaitasuna

- norberak zein beste pertsona batzuek bizitako emozioei buruz arrazoitzeko gaitasuna
- norberaren zein beste pertsona batzuen emozioak behar bezala kudeatzeko gaitasuna

*Osasuna bere osotasunean ulertzeko aukera.* Pertsonen ongizateaz ari garenean, osasunaren dimentsio zabala hartu behar dugu aintzat, bere esparru guztiekin: osasun fisiologikoa, psikologikoa, afektiboa, soziala, ekologikoa eta kulturala. Jarduera ludikoen bidez garatzen dugun jokabide motorra, ez da osasunak dituen ezaugarriak lantzeko bide bakarra, hala ere, “talaia” ona da osasuna dimentsio osoan ulertzeko, ezagutzeko eta bizitzeko.

*Autoestimua eta autokontzeptua.* Norbere buruarekiko konfiantza izateko, ezinbestekoak diren bi baldintza daude: lehenik, norbere buruaren gaineko irudia (autokontzeptua) positiboa izatea; bestetik, norbere buruaren gaineko irudi horrekiko balorazioa (autoestimua) altua izatea. Horretarako, beharrezkoa da norbere emozioak ulertzea, onartzea, kudeatzea eta horien baitan aritzea.

### **Pentsatzen eta ikasten ikasi(PII)**

*Jokabide motorra, pertsonaren garapenaren ardatza da.* Mugimendua da gizakion ekintza ororen ardatza. Mugimendurik gabe ez dago ekintza motorrik, ezta jokabide motorrik ere. Hala eta guztiz ere, mugimendua ez da pertsonen garapenaren oinarrizko baldintza bakarra, mugimenduak ekintza behar baitu, eta mugimendua, ekintzarik gabe, intentziorik gabeko mugimendua izan daiteke. Horrenbestez, aisialdiaren muina ekintza motorra da, eta erabakiak izan ohi dira ekintza motorren atzean. Erabakiak asmo zehatza, helburua, intentziora bilatzen du, eta hortik sortzen da jokabide motorra.

*Senak.* Etologiaren arabera, haurrak berezko senak ditu espeziearen biziraupenaren zerbitzura eta besteekiko elkarrekintzan aritzeko. Horiek ikasi gabeak eta berez genoman dakartzanak dira. Barruko edota kanpoko estimulu batek eraginda pizten dira eta, piztearekin batera, desira, nahi, gogo eta beharrak asetzeko ekintzen katea (jokabideak) martxan jartzen da.

Sen horiek pizten direnean, transmititzen dituen seinaleak interpretatzen jakitea eta behar horiei modu egokian erantzuna ematea funtsezkoa da, eta horrek aisialdian gakoa den sentikortasunera garamatza. Hiru fase ditu sentikortasunak: zentzumenen bidez seinaleez jabetzea (pertzepzioa); zer eta noiz behar duen eta zer eta noiz ez duen behar jakiteko seinale horiek egoki interpretatzea (barne-irudia) eta haiei modu aprobean erantzutea (ekintza).

*Ziurgabetasunaren erabilera pedagogikoa.* Geure burua egoera ziurgabeen hautematen dugun bezain laster, gure burmuinak (linbikoak) erabakia zein izan behar duen transmititzen du, egoera horri buruz era arrazionalen pentsatzeko aukera izan baino lehen. Ziurgabetasuna mekanismo linbikoa martxan jartzeko bidea da. Egoerak bizi ahala, ziurgabetasun-eremua gero eta txikiagoa da, eta, ondorioz, erabakiak askoz ere neurtuagoak izaten dira.

### **Elkarrekin bizitzen ikasi (EBI)**

*Jolasa, sozializazioaren oinarria.* Jolas eta joko guztietan gertatzen den moduan, pertsonen arteko harremanetan elkarbizitzarako arau jakin batzuk errespetatu behar dira. Ume batek, jolasean, murgilduta dagoen unibertso soziala zer nolakoa den ikasten du. Baiezta genezake, hortaz, jolas eta joko oro etnoludismoaren testuinguruan sartzen dela, non jolas eta jokoen barneko logika jendartearen balioei edo ezaugarriari atxikitzen zaien, ondotik, kulturaren partaide aktibo bihurtuz.

*Herriaren kultura bizitzeko erronka.* Herri baten pentsatzeko erak, sentitzekoak, komunikatzekoak eta jarduteko edo egiteko moduak, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan dira, ohitura kontzeptuaren bidez, kultur adierazpen ezberdinekin: jolas eta jokoak, dantzak, sinesmenak, kondairak, esaerak, jakintzak... Modu horretan, jendarte bereko kideek halako harreman-mota berezia izan ohi dute euren kulturarekin. Horregatik, aisialdian proposatzen dugun egoera orok izango dute helburu jakinik: ikasle euskaldunak, euskararekiko jarrera aktiboa dutenak, ekologia baliotzat dutenak eta aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzen dutenak hazi eta hezteko, Euskal Herria justuago eta orekatuago bat lortzeko xedez.

*Euskal kulturaren eta kultura unibertsalen arteko harremana eta oreka.* Jarduera ludikoen eta kulturalen arteko loturei dagokionez, jolas eta jokoen hetereogeneizazioa bultzatzeaz gain, herri guztietako kulturarenganako errespetua lantzen da, batzuk ez baitira beste batzuk baino hobeak: kultura ondasun unibertsala da. Horiek errespetatzea da kultura guztien arteko orekari erreparatzeko bidea. Munduko zein Euskal Herriko jolas eta jokoak ezagutzea bide egokia da, ikasleak horretaz jabe daitezen.

### **Egiten eta ekiten ikasi(EEI)**

*Bizitza ludikotasunaren perspektibatik aztertzeo filosofia.* Bizitzan, ludikotasuna egunekotasuneko ilunari argia ematea bezalakoa da. Une gogorrei, monotonoei edo desatseginei aurre egiteko bitartekoa. Ludikotasunak imajinazioa elikatzen du, erabakiak hartzeko gaitasuna indartzen du eta harremanak errazten ditu. Ludikotasunak, beraz, pertsonen autonomia eta konfidantza indartzen ditu. Gainera, tresna oso egokia da gatazkak konpontzeko.

*Euskararen garapenerako esparru komunitario, kooperatibo eta publikoa.* Euskara eta euskal kulturaren transmisioa erdigunean izanik, auzolanean planifikatutako, gauzatutako eta ebaluatutako ekimen ludikoak bideratzea. Batez ere, ludikotasunaren eraginaz jabeturik eta kontzienteki erabiliz, bizi-estilo osasuntsua eta bizi-ohitura osasuntsuak sustatuz, zoriontsu izateko.

*Aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzea.* Aniztasunarekiko errespetuan, askatasuna eta interes orokorreko erabakietan parte hartzea bezalako balio sozialen eraikuntzan ahalegintzen gara. Konpartitzeak eta adostekak bestea baloratzea eskatzen baitu. Publikoa dena zaintzeko eta interes komunak lortzera bideraturiko akordioak eraikitzeko, taldean aritzeko, elkarrekin eraikitzen eta eraldatzen diren arauak garrantzia ematea ere nahitaezkoa da.

## 2.3.2.- Aisialdi-ikuskeraren honetan, nola uztartzen diren ikaslearen irteera-profila eta oinarrizko kompetentziak.

Hona hemen, eskematikoki, batetik, irteera-profileko izate-ezaugarriak aisialdi-eredu honetan nola eta zertarako lantzen diren eta, bestetik, alde horietan nola uztartzen diren oinarrizko kompetentziak.

	ZER	NOLA	ZERTARAKO
<b>1. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIN KONPROMETITUA</b>	Euskara eta euskal kulturarekiko konprometitua dena, <b>EBI</b>	jarduera ludikoetan auzolanean parte hartuz, <b>EBI - EEI</b>	euskaldun eta euskal hiztun komunitateko kide aktiboa izateko <b>NI - EBI</b>
<b>2. BERE BURUAREKIN KONFIANTZADUNA</b>	Norbere auto-kontzeptu positiboa eta auto-estima altua duena, <b>NI</b>	bere emozioak kudeatzeko gaitasunak zehaztuz, ulertuz eta adieraziz, <b>NI</b>	persona bezala hazteko eta aisia denbora subiranoki kudeatzeko <b>NI</b>
<b>3. LANKIDETZAN IKASKIDEA</b>	Kideekin hausnartzen, eztabaidatzen, adosten eta aritzen dena, <b>EBI</b>	norbere nahi zein beharrak errespetatuz eta besteenak kontutan hartuz eta errespetatuz, <b>NI</b>	ongizate kolektiboa lortzeko eta elkarrekin gozamina sentitzeko. <b>EBI</b>
<b>4. ERABAKI HARTZAILE KRITIKOA</b>	Erabakiak kritikoki hartzen dituen, <b>PI</b>	pizturiko nahi, desio, gogo eta beharrei erantzunaz, <b>PI - NI</b>	norbere buruaren jabe izateko eta erabakiak neurtuagoak izateko. <b>NI</b>
<b>5. EUSKALDUN ELEANIZTUNA</b>	Euskal hiztun aktiboa dena, <b>KI</b>	bizipen ludikoen bitartez hizkuntzarekiko erakargarritasuna sentituz, <b>PI - NI</b>	ezagutzarekiko motibazioa pizteko eta erabilera hedatzeko <b>KI</b>
<b>6. EKINTZAILE GOGOETATSUA</b>	Komunitatean jarduerak ludikoak planifikatzen, gauzatzen eta ebaluatzen dituen, <b>EEI</b>	ekintzailea eta gogoetatsua izanez eta naturan arituz, <b>PI - NI</b>	ludikotasuna norbere bizitzan integratua izateko. <b>PI - NI</b>
<b>7. JOKABIDE ETIKODUNA</b>	Aukera-berdintasuna aldarrikatzen eta sustatzen dituen, <b>NI</b>	aniztasuna positiboki baloratuz eta ikuspegi feminista izanez, <b>PI - NI - EBI</b>	gizarte justuagoa, orekatuagoa eta aberatsagoa izateko. <b>EBI</b>
<b>8. IKUSMIRA ZIENTIFIKODUNA</b>	Teknologia eta komunikazio bide berriak menperatzen dituen, <b>PI</b>	dakartzaten aukerak eta mugak ezagutzuz, duten eraginaz jabetuz eta kontzienteki erabiliz, <b>PI - EEI</b>	norbere eta komunitatearen garapenerako lagungarri izateko. <b>NI - EBI</b>
<b>9. OSASUN-OREKAREN ZAINZAILEA</b>	Osasuna osotasunetik datorrela barneratua duena, <b>PI - NI</b>	bizi-estilo osasuntsua eta bizi-ohitura osasuntsuak sustatuz, planifikatuz eta praktikatzuz, <b>NI - EBI - EEI</b>	zorionsua izateko eta besteengan positiboki eragiteko. <b>NI - EBI</b>
<b>10. SORTZAILEA</b>	Egoera ziurgabeen aurrean adierazpen berriak sortzen dituen, <b>NI - PI - KI</b>	zentzumenak piztuz, estimuluak pertzibituz, barne irudimena eraikiz, erantzun egokiak erabakiz eta ekintzak gauzatuz, <b>PI - NI - EEI</b>	norbere buruaren ezagutza eta garapen sakonagoa izateko, jendartean eragiteko eta kultur eragile aktibo izateko. <b>PI - NI - EBI - EEI - KI</b>

## 2.4.- Aisialdiaren kompetentzia espezifikoak.

Bizitzan, oro har, pertsonak, bere beharrak asetzeko, jokabide motorrean kompetente izan behar du egokitze- eta eraldatze-prozesuetan, autokontrol- eta komunikazio-prozesuetan zein norbere eta besteen bizi-baldintzak eta izadia zaintzeko eta bizirauteko.

Aisiak jokabide motor horri egiten dion ekarpenak gela barruko esparru curricularretik zein gelaz kanpo garatzen diren ekimenetatik edaten du, eta hala osatzen da. Ondorioz, arlo bakoitzak, neurri handiagoan edo txikiagoan, aisiari egiten dion ekarpena ikaslearen garapen integralean uztartzen da, aisiako ekimen-espezifikoetatik egiten denarekin. Alegia, marko honetan garatzen den aisiari buruzko ikuskerak helburu du, ikastolaren esparrutik haratago, bizitzarakoa ere izatea. Ondorioz, aisiaren eremu ez-formaletik, formaletik egiten den ahaleginaren osagarri, ikaslea bideratu nahi da bere buruarekin, inguru sozial, fisiko eta kulturalarekin orekan bizitzeko beharrezko dituen baliabideen jabe egitera.

*“Ikaslea, bere buruarekin, inguru sozialarekin, fisikoarekin eta kulturalarekin oreka bilatuz bizi da”*

Piaget-en arabera, pertsonaren garapenean, bi aldagai nagusi daude. Bata, jatorriz edo jaiotzez, gure gorputz-geneetan daramagun aurre-programazioa edo genesia, eta, bestea, bizipenak bizi ahala, garapenaren bitartez osatzen den barne-egitura.

Bizipen horien eragile zuzenak hiru dira: lehenik, pertsonaren jarduera bera; bigarrenik, jarduera horren bidez beste pertsonekin sortzen den harremana; eta, hirugarrenik, ingurune sozial, kultural eta fisikoarekin dagoen ezinbesteko harremana.

Aisian ikaslea egoera erabat errealetan jartzen da, hori baita eremu ez-formalaren ezaugarri nagusienetarikoa bat, bibentzialtasuna. Egoera hori momentuan bertan sentitzen da, eta horietan eraikitzen da barne-irudia, bizitako emozioekin eta aurretik izandako bizipenekin.

Beraz, eremu ez-formalak askotariko egoerak eskaintzen dizkio ikasleari sentitzeko, bizipenak izateko, esploratzeko, esperientziak izateko, barne-irudia elikatzeke, ezagutzak lortzeko eta teknika ezberdinak lortzeko. Bizipen horiek eragiten diote ikasleari norbera, jendartea, ingurumena eta kultur adierazpen desberdinak zaintzeko grina, berreskuratzeko gogoia, haiekiko erantzukizunez jokatzeko sentimendua.

Ikaslea, azken finean, aniztasunarekiko errespetuan, askatasunean eta interes orokorretako erabakietan parte hartzean eta gisa horretako balio sozialen eraikuntzan trebatuko du. Partekatzeak eta adosteak bestea baloratzea eskatzen baitu. Publikoa dena zaintzeko eta interes komunak lortzera bideraturiko akordioak eraikitzeak taldean aritzea, elkarrengandik ikastea eta arau eraldatzaileei garrantzia ematea ere eskatzen du.

Horrek guztiak, beraz, norbera, norbera-besteak eta norbera-besteak-ingurua-kultura harremana modu orekatuan bideratuko duen aisialdi-eskaintza ekarriko du. Horretarako, zazpi esparru hauk hartzen dira kontuan.

## **1- Garapen pertsonala jokabide motorretik sustatzea. Emozioek sorrarazten dizkiguten**




## aldaketak interpretatuz eta kudeatuz, eguneroko bizitzarako oreka lortzea.

Ikaslearen garapen integrala lortzeko asmoz, ezinbestekoa da norberaren ezagutza osoa (intelektuala, emozionala, sexuala, fisikoa eta espirituala) lortzea. Horretarako, egoera anitzen aurrean ematen diren erantzunetatuk lortzen den bizipena, horiekiko ezagutza eta horien deskribatzeko ahalmena konbinatu behar dira.

Jokabide motorra, bizi ahala, bizipenekin eraikitzen eta egokitzen da. Amaren barruan gaudenetik hiltzen garen arte, gorputzaren eta inguratzen gaituenaren arteko oreka bilatzeko egiten ditugun mugimenduen edo ekintzen bidez gauzatzen da. Momentu oro bizi dugun egoerara egokituz, pertsonok inguruarekin dugun harremanaren arabera eraikitzen dugu geurea.

Egokitze horretan, une oro, egoeraz jabetu eta egoera bera gainditzeko burutzen ari garen mugimendua pertzibituz, sorturiko emozioekin eta aurretik izandako bizipenekin barne-irudiak sortuz eta horien arabera ditugun gaitasun eta trebetasunekin ekintza motorrak burutzen ditugu. Horietan bizi izandakoarekin berriro barne-irudia elikatzen dugu eta geure ekintzen erantzule bihurtu.



Pertzepzioa motibazioak baldintzatzen du, pertsonak, dituen motibazioen arabera, antzematen baitu nolakoa den bere ingurua, eta afektibitate-karga horrek zuzen-zuzenean pertsonaren tonusean eragiten du, alegia, posturetan eta jarreretan.

Pertzepzioa beraz, emozioz beteta aktiboki osatzen eta eraikitzen den bilakaera da. Momentu oro, egoera guztietan, pertsonok milaka mikro-estimulu jasotzen ditugu. Informazio horren aurrean pertsonak aukerak egin eta erabakiak hartzen ditu eta erabakiak ere, pertzeptzioaren antzera, aurretik bizi izan duenaren arabera hartzen ditu (bizipenak, motibazioa, prestaketa, pertsonalitatea...).

Horregatik, aisialdian, ekintza ludiko jakinen bitartez sorrarazteko gai den alde emozionalari eta horien ezagutza bibentzialari garrantzi berezia emango zaie. Adimen emozionala izango da aisialdian hezteko ibilbidearen oinarria. Jokabide motorraren garapenerako beharrezko diren jarrera psiko-afektibo zein motorraren kontrola eta auto-estimulua xede bilakatuko dira.

## **2-Norberarengandik besteenganako bidea egitea, pertsona asertiboa izatea. Besteen emozioak ulertuz eta norbere emozioak horien arabera kudeatuz, elkarbizitzan aniztasuna onartzeko eta balioesteko.**

Pertsonon aurrez aurreko adierazpen guztiak gorputzaren bidez bideratzen dira; batzuetan gorputz-jarreraren edota keinuen bidez bakarrik, eta horiei hitza, soinua eta mugimendua gehituz beste batzuetan. Komunikazio osoa deiturikoan, gorputzaren bitartez islatzen den emozioa dago, komunikazioaren helburu nagusia besteei gure emozioak adierazteaz gain, besteen emozioak ulertzea eta norbere emozioak horien arabera kudeatzea baita.

Besteengandik pertzibitzen denak norberarengan izugarritzko eragina du, bai erabakietan eta baita ekintzetan ere, eta, horrek, une oro, bata eta bestearen jokabidea aldarazten du. Pertsonen arteko komunikazioan, ekintza batean inplikaturiko pertsonen gain, inguru sozialak (irakasleak, lagunak, gurasoak, ikusleak...) eta fisikoak (gelak, basoak, futbol-zelaiak...) duten eragina ere nabarmena da pertsonen jokabidean eta komunikazioan, eragin handia baitute sorrarazten duten karga emozionalak eta eragin afektiboak.

Horrek eragin handia du baita jarduera burutzen ari direnen arteko komunikazioan ere, bai informazioa adierazterako orduan eta baita hura pertzibitzerakoan ere. Ikasleak gai badira egoera desberdinetan bizi izan dutena ezagutu eta ulertzeko, besteengana hurbiltzeko eta haiekin enpatizatzeke gaitasun handiagoa izango dute, eta hala iritsiko dira, egoeren jabe osotasunez izatera.

Horregatik bideratzen da zenbait egoera, beren beregi, ikasleak emozioak eta ideiak adierazpen motorraren bidez ager ditzan eta besteek adierazitako emozio eta ideia horiek sentitu, ulertu eta horien arabera emozioak kudea ditzan.

Jolasak, jokoak eta ekintza ludikoak izango dira ahozko, ez-ahozko eta gorputz-komunikazioa bizitzeko baliabide nagusiak, egunerokotasunean bizitzen dena jolasetan eszenifikatzen baita. Are gehiago, erritmo, soinua eta musikarekin harremana izatea ahalbideratzen duten egoerek ere, komunikazio osoa garatzen laguntzen dute.

## **3-Norberarengandik abiatuz, besteekin batera kultura bizia sustatzea, jolas zein jokoan bidez eta gainerako kulturak errespetatuz, euskal kulturaren balioaz jabetzea eta kide aktibo bilakatzea.**

Edozein herritako kulturak pertsonak espazio fisikoarekin harremantzeko modua, elkarren artean harremantzeko eta komunikatzeko modua, pentsakera, sentikera eta jokamoldeak biltzen eta finkatzen ditu. Azken finean, horiek guztiek osatzen dute herri-izaera

gorpuzten duen sare sinbolikoa.

Kultura oro dinamikoa da, etenik gabe eraldatzen da bizimoldea denboran zehar bilakatzen den neurrian eta, aldi berean, iraungo badu, erroei eustea ezinbestekoa zaio. Gure arbasoen bizimodua, kultura, izadiarekin izandako harremanen baitan garatu da historian zehar, lan-jarduerak eta jarduera ludikoak izadiarekiko harreman estuan garatzeak haiek era jakin batez sentitzera eta ezagutzera eramán baitzuten.

Horregatik, aisialdian espazio naturalean, izadian, egiten diren jarduerak tradizioetik datorren ikuskeran errotzen dira, hots, testuinguru kulturealean.

Ikasleek, jolasean eta zenbait jarduera ludikotan ari direla, murgilduta dauden unibertso soziala zer nolakoa den ezagutzen dute, bertan biziz. Azken batean, jendarteak, murgilduta dagoen kulturaren arabera, sare sinboliko propioa garatzen du eta euren balioen eta ezaugarrien baitako sisteman errotutako jolasak, jokoak eta jarduera ludikoak sortzen ditu. Haur eta gazteak, oharkabea, partaide direneko kultura horretan, kide aktibo bihurtzen dira.

Aisialdirako heziketaren bidez, haur, nerabe eta gazteak protagonista bihurtu eta kultura bizia sustatzea da helburua. Pertsona bere osotasunean kulturarekin harremanean jarri eta barne-irudiak sortzeari emango zaio lehentasuna; norberak, bizi duenetik, egoera berriak asmatzeari eta egoerei esanahi eta erantzun berriak emateari. Sorturik dauden tokian tokiko jolas, joko, kirol eta dantzetatik, munduko jolas, joko, kirol eta dantzetarako ibilbideak biziz, bizi izandakoaren arabera eraldatzeko aukera eskainiko zaie.

Beraz, helburua ez da, soilik, kultur adierazpenen errepresentazioa bideratzea, baizik eta, kultura bizia, sortzailea eta parte hartzailea izan dadin, hainbat eta hainbat egoera aukeran ematea.

#### **4-Osasuna bere osotasunean ulertzea eta lantzea, eta osotasun horrek dituen ezaugarriak ezagutz, eguneroko bizitza orekatua izatea.**

Osasunari bere osotasunean erreparatu behar zaio eta bere dimentsio zabalean kokatu. Osasuna ikuspegi fisikotik edo gaixotasun ezatik soilik ulertu ordez, ezinbestekoa da alde psikologiko, afektibo, sozial, ekologiko eta kulturealetik ere aintzat hartzea.

Gainera, giza gorputzak, bizirik iraungo badu, mugimendua du oinarrian, hura behar du ezin bestean. Gorputza altxorrik preziatuena bailitzan zaindu beharrean gara. Ekintza konkretu batzuen bidez eta epe motzerako begirada soilik izan ordez, osagarritasunetik eta epe ertain-luzerako duen eraginaz zein garrantziaz kontzientzia piztu behar dugu, orain eta hemen hartzen ditugun erabakiek eta ditugun jarrerak etorkizunean izango baitute isla.

Eta gaixotasuna sendatzea baino eraginkorragoa denez prebentzioa, norberaren bizi-estiloan eragitea da giltza edo gakoa. Horretarako, aisiarako heziketaren eskaintzak honako alde hauek barnebiltzen ditu: elikadura osasuntsua, kontsumo-prebentzioa, jarduera fisikoa, emozioen kudeaketa, bizi-eritmoa, ohiturak...

Ezin dugu ahantzi gorputza gurekin daramagula bizi osoan, sortzen garen momentutik hiltzen garen arte. Gorputza dugu, azken batean, beti gurekin eramango dugun eta munduarekin harremanetan egotea ahalbidetzen digun zera. Ezagutzak gal baditzaieku

ere, gu gorputza gara, hau da: bihotza, arnasketa, emozioak, sentimenduak, harremanak... Gorputza dugu, azken batean, izadiarekin eta kulturarekin harreman zuzenean egotea ahalbidetzen digun bitartekaria.

Pertsonok dauzkagun oinarrizko beharrianei erantzun ezean, zorientasunetik urrundu eta gaixotzeko joera dugu. Azken urteotan, antsietatea, depresioa, obesitatea... bezalako arazoak areagotu eta nabarmen azaleratu egin dira. Horren aurrean, ezin ahantzi bizitzan, mugimendua-osasuna binomioaren arteko harreman estua, bien arteko korrelazio eta kausalitatea. Azken hori lau faktorek baldintzatzen dute: ingurugiroak, bizi-estiloak, giza biologiak eta osasun-arretak. Eta osagai horien arteko korrelazio orekatuak ondorio argia du: zorientasuna.

Baina, mugimenduak nekez ekar dezake bere horretan zorientasuna, baldin eta gozamina sentitzeko GOGO bizirik ez bada. Horretarako, ezinbestekoa izango da ludikotasuna gure eguneroko bizitzan, edozein jardura zein-nahi momentutan integratuta izatea. Bestela esanda, gorputzari, geure buruari, arreta eskaintzea, denbora eta maitasuna.

Zer eta nola egin genezake gaur haur diren etorkizuneko heldu horiek bizitzarako ohitura osasuntsuak barnera ditzaten? Nola sustatu bizi-estilo osasuntsuak? Nola motiba genitzake horretarako?

Haurren eta gazteen garapenean emozioek eta sentimenduek daukaten eraginaz kontziente izan behar gara. Egoera emozional hori kudeatzeko moduak, baldintzatuko du alaitasunez ala tristuraz eta konfidantzarekin ala konfidantzarik gabe heltzen diogun egunerokotasunean topatuko ditugun errokei eta elkarbizitzan izango ditugun giza harremanei. Adimen emozionalak eta komunitateko kide aktibo eta onartua izatearen sentimenduak eragiten dituen babesa eta seguritatea ere aintzat hartu behar dira, balio hezitzailetan oinarritutako talde-harremanek dakartzaten gainontzeko onurekin batera.

## **5- Ludikotasuna harremanetarako ardatza izatea, pertsonen arteko komunikazio ludikoaren indarra biziz eta ulertuz, eguneroko bizitzan zorientsu izateko.**

Munduan gozamina oinarri duen izateko eta aritzeko dugun moduari ludikotasuna deitzen zaio. Jokabide motorreko osagai gisa, jardun ludikoaren bidez sentitutako bizipenekin, sentimendu eta emozioekin du lotura eta horregatik, bizitzarako den hezkuntzaren oinarri gisa baloratuko dugu aisialdian, bai bizitza indibidualerako eta baita bizitza sozialerako ere.

Ludikotasunak ekintza bera egite hutsagatik gozamina sentitzea eta bizitzea dakarrenez eta norbera bere gorputzarekin eta bestearekin aurkitzea ahalbidetzen duenez, dena delako jardura garatzeko prozesuari berebiziko garrantzia ematea izango dugu heburu eta hura bihurtuko da gure lan-tresna nagusi, hots: bidea bihurtuko dugu xede.

Beraz, zorienttua izateko ezinbestekoa izango da ludikotasuna norbere bizitzan integratuta izatea. Haur, nerabe edo gazte batentzat, jolasak, jokoak eta kirola bera ez dira hartu behar etorkizunean profesionalak izateko ezinbesteko fase bezala, pertsonak bere osoan garatzeko aukeratzat baizik. Jolasa, jokoak eta kirola, maiz adin jakin batzuekin lotzen dira. Prozesu progresibo batekin identifikatzen dira, hau da: haurrak jolasten dira, gaztetxoek jokatzen dute eta helduok kirola egiten dugu. Gure ikuskera, ordea, ez dator bat ikuspuntu


horrekin.

Bizitzan, etengabe, jolasaren presentziak egonkorra izan behar du, eta jolasa esaten dugunean jolasak duen dimentsioa azpimarratu behar dugu, hots: espontanea, araurik gabekoa, ez-formala, aldakorra, deskubrimendua bultzatzen duena izatea, besteak beste. Aisialdiaren bitartez, jolas eta jokoak egiteko gozamina sentitu behar da, eta gozamen hori norbere bizitzan eta izaeran integratuz, ludikotasunaren bitartez, egunero zoriontsu izatea ahalbideratu behar du.

## **6- Ziurgabetasunaren erabilera pedagogikoa baliatzea, sorrarazten dizkigun aldaketa emozionalak interpretatuz eta kudeatuz, eguneroko bizitzan topatzen ditugun zalantzei ahalik eta erantzunik egokienak emateko.**

Ziurgabetasuna sorrarazi dezaketen egoeren aurrean jarriko dugu ikaslea, gatazken aurrean erabakiak hartzen treba dadin. Egoera horiek gainditu ahal izateko dituen gaitasun eta trebetasunak azaleraraziz, ekintza burutzerakoan bizi izan duenak barne-irudia esperientzia berriez aberastuko dio. Horrela, bere beharren arabera garapena bideratzea ekarriko du, aurkezturiko erronka eta norberaren gaitasun eta trebetasunen arteko erlazioa orekatuz. Era horretara iritsiko da ikaslea esperientzia autotelikoak izatera, hots: unean unean dituen esperientziak egingarritzat hautematera eta gustura sentitzera, ongizate pertsonalera.

Honenbestez, ikuskera honek ikasleak egoerei esanahi eta erantzun berriak ematera bideratuko ditu, eta baita egoera berriak asmatzera ere.



Inguru naturalean egiten diren jardueretan pertzeptzio-baldintzak, hau da, inguruaz erabakiak hartzeko biltzen den informazioa, une oro, berria edo aldakorra da. Eta haietara etengabe egokitze beharrezko gaitasun eta trebetasunak lantzea eskatzen du.

Horregatik, aisialdian pertsona inguratzen duen ingurune fisikoa egoera berriak eta anitzak sortzeko erabiliko da. Horretarako, joera nagusia izango da jarduera-eskaintzak ohiko espazioetan ez baino, herriko egitura formal, informal eta natura-eremuetan lekutzea.

## **7- Euskara, euskalkiak eta euskal kulturaren sustapena eta transmisioa, euskal komunitateko kideen arteko harremanak saretuz, hizkuntzaren erabilera eta ezagutza indartzeko.**

Gizartea euskalduntzea jomuga dugunez, aipatu dugu goian, aisiak aukera aparta ematen digula helburu horretan esanguratsuki hurreratzeko, batik bat, lagun-arteko hizkera edo hizkera ez-formala erabileraren poderioan barneratzeke aukera aparta eskaintzen baitu adin-tarte desberdinetan.

Askotan aipatu izan da gure ikasleen hizkera mehea dela, alegia: gazteak ez direla gai euskaraz egokitasunez aritzeko egoera formaletan eta ez-formaletan. Euskara batua idatzian eta harengandik hurbil dagoen ahozkoa gela barruko egoera formaletan erabiltzeko egokitzat jotzen bada, euskalkiak eta azpi-euskalkiak bizirik diren testuinguruetan egin diezaiozun lekua aisiadian, lagunarteko harreman ez-formalez ari garela, hizkera bizi horri, tokian tokiko fonetismoz blaitua den horri. Eta halakorik ez den lekuan, euskara batuaren ahozko aldaerari, bizirik dauden fonetismoak erantsita.

Hizkera ez-formala aisiari lotze horrek, bistan da, bere baitan biltzen du hiketari ere lekua egiteko aukera, hura bizirik den testuinguru soziolinguistikoetan, behinik behin. Euskararen biziberritze-prozesuan ikastolak egiten dugun ekarpenean, harreman ez-formaletan naturala den hizkera ez formal hori indartzearen aldeko ahalegina erdigunean jarri nahi dugu eta kontzienteki egin apustu tokiko hizkeren eta hiketaren erabileraren alde, sarritan aipatzen dugu adierazkortasun hori eransteke gazteen euskarazko jardunari.

Aisiak euskarari dakartzkion onuren artean hiru azpimarratu nahi ditugu:

*Batetik, euskararen aberastasuna ezagutzeko eta partekatzeke aukera:* tokian tokiko hizkeren ugaritasuna bistaratzea merezi du eta susta daiteke batzuek eta besteek elkarren berri izatea, elkarrekin proiektuak eraikita: lurraldeen artekoak, iparralde eta hegoaldearen artekoak... Hartara, euskal lurraldeak (naziotasuna) eta bertako hizkerak bizipenetik ezagutzeko aukera izango lukete ikasleek.

*Bestetik, gazteen erregistro ez-formala garatzeko aukera:* gazteen euskararen erabileraz hausnartu izan dugunetan, erdarara pasatzeko joeraren arrazoietakoa bat, gazte jerga propio baten falta dela esan izan dugu. Azken ikerketek ohitura ere erdigunean jarri dute, alegia, gazte horien arteko komunikazioa gazteleraz eraikita egon izana. Hortaz, batetik, haurtzaroan eta gaztaroan, aisialdiko esku-hartzeetan euskarazko harreman-sareak eraikitzea eta elikatzea, euskaraz sozializatzea, kontzienteki lehenetsi beharko da; eta, bestetik, euskalkiek eta hiketak, zenbait testuingurutan, gazte-hizkera berezitu hori sortzen lagun dezaketela presente izan.

*Azkenik, ikastolan eta herri-mailan gazteen arteko harremanak sartzeko aukera:* aisialdiak aukera paregabea ematen du herriko gazteen arteko harreman-sarea euskaraz hedatzeko eta, halakoa ez den kasuetan, euskararen aldeko hizkuntza-mudan eragiteko.

Finean, ludikotasunean oinarrituriko jolas, joko kirol edo bestelako egitasmoek jokaleku ezin hobea eskaintzen digute derrigortasunetik erakargarritasunera jauzi egin ahal izateko, eta euskara gela barruko curriculumetik haratago zabaltzeko.

### 3.- Nola egin aisia gazte euskaldun eleaniztunak hezteko ahaleginari lotzea?

Sarreran aipatu bezala, ez da oraingoa aisia-gune eta uneak euskararen normalizazioan eragiteko helburuari lotzea eta esku-hartze eta ahalegin bereziak abian jartzea zenbait ikastolatan. Aspaldi hasi ginen ikastoletan, aisia ikasleak euskalduntzearen zerbitzura, euskararen ezagutza eta erabilera indartze aldera baliatzen eta ahalegin hori lehenetsi den kasuetan, aintzat hartzeko emaitzak eman ditu. Horrekin batera, egindako esku-hartzearen ezinbesteko ezaugarrien artean nabarmentzen dira honako hauek ere: eskaintza orokortu eta sistematzatua izatea eta ikasleen partaidetza handia edo oso handia izatea.<sup>6</sup> Gainera, ikastolako komunitatea osatzen duten kolektibo guztiak inplikaturik egotea: zuzendaritza, irakasle-klaustroa, familiak eta hezitzaileak.

Ildo horretan, Arrue Ikerketak, LH4ko eta DBH 2ko ikasleen hizkuntza-portaerak neurtuta, horixe azpimarratu zuen 2004. urtean EAEko ikasleen hizkuntza-erabilerak nolakoak diren ikertzeari ekin zionean. Azken aurreko txosten exekutiboan 2011-2015, berriz, eskola-esparrutik herri-mailara begira jarri beharraz ohartarazi zuen, goian aipatu dugun zentzu berean:

*“Datuen irakurketa orokor honen amaiera modura, aipaturiko eskolaren autonomia eta betetzen ari den euskalduntze progresiboaren islatzat har genitzake neurtutako erabilera gehienek erakusten duten goranzko joera. Era berean, eta beste aldean, muga sozialaren edo gizarte-eraginaren adierazletzat har genezke DBH 2ko/Bigarren Mailako 3ko ikasleen jolaslekuko erabilerak maila berdinean jarraitzea. Aurreko gauztiak ondorio bikoitz eta argi batera garrantzitsuak. Mugak muga eta zailtasunak zailtasuna, eskola ekarpen baliotsu bezain nabarmena ari zaie egiten euskararen ezagutzari zein eskola eremuko erabilerari; eskolari dagozkion euskararekiko baldintzen hobekuntzek aurrerapausia dakarte erabileran. Aurrerapauso horiek beste gizarte eremuetara zabaldu daitezkeen, ezinbestekoa da eskolarekin batera bestelako eragileek ere baldintza egokiagoak sortzeko ahalegina areagotu dezaten”.*

Eta argitaratu berri den 2011-2017 txostenean, berriz, honela dio:

*“Gaztearen aldeko mudantzaren irakurketa modu honetan egin genezake: 9-10 urterekin eskolako testuinguru euskaldunean euskaraz egitera iristen diren hainbat ikasleek ez du horretan nahiko sendotasun lortzen, eta nerabezaroaren testuinguru erdaldunagoak ez dio jarraipenik ematen euskarazko erabilera horri, ikasleak horretarako behar bezalako baldintza eta baliabiderik ez duelako, seguruenik. Irakurketa honek azpimarratu egingo luke eskolaren lana aisialdian eta beste esparru batzuetan osatzeko beharra, gazte hauek euskara erabiltzen jarraitu ahal izateko baldintza errealak sortze aldera”.*

<sup>6</sup> Ikus Laskorain ikastolaren datuak.

<sup>7</sup>Iñaki Martínez de Luna, Pablo Suberbiola: “Hizkuntza mudantza EAEko ikasleengan” BAT soziolingistika aldizkaria, 114 zenb.

Ezin uka, askotarikoak dira haur, nerabe eta gazteen aisialdiak hartzen dituen esparruak. Dena den, gure begirada Ikastolen Elkarteko Zirimolaren edo ikastolaren beraren gidaritzapean gauzatu eta monitorizatuak (izan irakasle, hezitzaile edo dena delakoren gidaritzapekoak) diren lerraten da, jakinik, eragina, denboraren poderioz, herri osora hedatzen dela, zeren protagonista horiek bertako kide izaki, askotariko subjektuekin elkarreragiten baitute. Horien artean ditugu honako hauek: eskola-orduz kanpoko kirol-jarduerak, gazteei begirako askotariko jaiak (Olentzero, Inauteriak, ikasturte amaierako jaiak...), jolas-orduak, bazkal osteak, goizeko eta arratsaldeko zaintza-eskaintzak, irteerak, aisialdiko taldeak, udaleku irekiak, udaleku itxiak... Izan ere, hezitzaileen gidaritzapean diren esparru horietan eragin baitezakegu zuzenean haur, nerabe eta gazteen hizkuntza-portaera eta jarreretan baita zenbait balioren lanketan ere.

Horrela bada, monitorizatuak deitu ditugun gune horiek, izatez dituzten ezaugarrietatik, aproposak dira hizkuntza-ohituretan ere eragiteko. Horretarako, egitasmoen helburuei aldagai bat gehiago eranstea litzateke kontua, hizkuntza-portaerarena, hain zuzen ere. Horrenbestez, honela labur ditzakegu aisia-eredu horien ezaugarriak:

- Helduek haur, nerabe eta gazteen aisialdirako propio sortutako eta antolatutako azpiegitura eta jarduerak izatea.
- Leku jakinetan antolatutako aisialdi egituratua eta hezitzaileen ardurapekoa izatea.
- Heziketa ez-formalari lotutako egitasmoa izatea eta planifikatutako jarduerak iraunkorrak egitera bideratua.
- Askotariko helburu hezitzaileekin batera hizkuntza-helburuak txertatuta dituen egitaraua eskaintzea.
- Haur, nerabe eta gazteentzat gustuko jarduerak eskaintzen dituen izatea.

Hori bai, aisia-eredu horrek eragin eraldatzaileak izatekotan, aisia-zerbitzu horietan hezitzaile- eta entrenatzaile-lana egiten ariko diren gazteei begirako prestakuntza berariaz hausnartzea, programatzea eta gauzatzea behar-beharrezkoa izango da.

Prestakuntza-egitarau horietan ezinbestean hizkuntza-jarrera eta erabilerari buruzko edukiak txertatu beharko dira, baldin eta nahi bada, gazte hezitzaile horiek dinamizatuko dituzten haur eta gaztetxoengan hizkuntza-portaeran eragin kontzienterik eta helburuarekiko koherenterik izatea. Hortaz, hezitzaileenganako prestakuntza-jarduna ideiatzen ari dena, bide batez, helburu-taldearen hizkuntza-portaeran eragiteko heldulekuak abian jartzen ariko da. Ezin baitugu ahaztu, hezitzaile-gai horiek ere, euskararekin duten harremana, soilik eskola-esparruari lotua izango dutela sarritan eta, hala ez duten kasuetan ere, jarreretan eragitea komenigarria izango dela. Zeren azken ikerketek bistaratu duten moduan, nerabe eta gazteen artean nahiko unibertsa baita gaztearen aldeko mudantza eta hura naturalizat hartzeko joera. Ondorioz, euskararen aldeko aktibazioan eragin beharra ezinbesteko bihurtua dugu, edonolako testuinguru soziolinguistikotan, ezagutza-erabileran aurrera egiteko edo erabilera-indizeak mantentzeko.

Edonola, hezitzaileek haur, gazte eta nerabeekiko jokatzeko duten erreferente-rol hori arrakastatsua izan dadin, euren arteko harremanak estua eta konfiantzazkoa izan behar du, hots: hezitzaileak gaztea limurtzera iritsi behar du, hura gogoko duen jardueran hartan ari



dela. Hezitzaileen eta helburu-taldeen artean, gisa horretako harremana sortuz gero, euskararen hautematea positiboa eta motibatzailea izango baita.

Baina nola ekarri hezitzaile-gai horiek hain funtsezko den rol horretara? Hezitzaile-gaien, haiek formatuko dituzten kideen eta aisia-zerbitzua jasoko duten kideen artean (haur, nerabe eta gazte) elkarreragin zirkulu erakargarri eta, aldi berean, eraginkor bat sortzen asmatu ezean, nekez iritsiko gara arrakastaz helburura, hizkuntza-portaeran eragitera. Hezitzaileek jokatzeko duten rol horren jakitun, haiei begirako formazio-saioei bereziki erreparatu beharra bistaratzen da, eta horrekin batera, edonolako esku-hartzeren izaera eraldatzailea izatea, dokumentu honen 2. atalean garatu ditugun ezaugarriak biltzen dituen eta aktore protagonistak gazteak eurak izango dituen.

Zentzu horretan, Ikastolen Elkarteak aisiari begira egiten dituen askotariko esku-hartzeetan, Aisiola hezitzaile-eskola azpimarratzea dagokigu, bertan uztartzen baitira goian aipatu aldeak eta haiekiko koherentzia hezten hezitzaile-gaiak.

### **3.1.- Aisiak hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari egiten dion ekarpenaz hezitzaileak ohartaraztea.**

Atal honetan, askotariko aisia-eremuetan hezitzaileek jokatzeko duten paper ordezka ezin hori euskararen erabileran positiboki eragitera irits dadin, ezinbestean aintzat hartzekoak diren aldeak zein diren zehazten saiatuko gara. Horretarako, lehenik eta behin, helburu-taldea osatzen duten haur, gazte edo nerabeengan zein helburu erdietsi nahi ditugun definitzea dagokigu.

Hortaz, zehatz dezagun lantzen ari garen ikuspegiaren arabera aisia-ekimenak antolatzeak (izan ikastolak berak edo Zirimolak bideratuak) zein xede barnebiltzea lehenesten dugun, hots: zer lortu nahi dugun.

- Hurrek, nerabeek eta gazteek euskararen aldeko hautu automatikoa edo, adinean gora joan ahala, kontzientea egitea. Euren arteko harreman-hizkuntza nagusia euskara izatea eta euren arteko harreman-sarea hizkuntza horretan indartzea eta finkatzea. Finean, testuinguru soziolinguistikoaren arabera mailakatuta, euren arteko komunikazioan hizkuntza-ohiturak euskaraz sortzea, indartzea eta finkatzea. Testuinguru zenbaitetan helburu apalagoa ere izan daiteke, hala nola: gaztelera edo frantseserako muda ahultzea.
- Hurrek, gazteek eta nerabek, emozio eta sentipen positiboen bitartez, euskararekin konektatzea. Azken finean, euskara gela-barruko esparrutik eta familiaratik (testuinguru euskaldunetan), bizitzaren erdigunera ekartzea: gozamenera, lagunartera, aisiara, kaleko harremanetara...
- Euskara haur, nerabe eta gazteen garapen pertsonalerako oinarritzko elementu senti dezaten ahalegintzea. Nolabaiteko balio erantsia gehitzea euskarari, hau da: euskaraz izandako bizipenek merezi izan dutela sentiaraztea.
- Lagunarteko harremanetan, edonolako emozio adierazteko hizkuntza funtzionala barneratzea, finean, hizkera ez-formalaren jabe egitea edo hura erabiltzeko egoera naturalak izatea.

- Euskaraz aritzeko *espazio segurua sortzea*, zeinetan konplexurik gabe (hankasartzerik egiteko beldurrik gabe) emozioak euskaraz adierazteko aukerak sortuko diren.

Adituen teoria eta ikerketei erreparatuta, badakigu jolasa eta emozioa bata bestearekin lotuta daudela. Gainera, emozioek hizkuntzarekin harreman zuzena dutela, eskutik doazela, bata besteari eragiten baitio.

Hortaz, esan dezakegu eremu atseginean, egokia den testuinguruan, emozio atseginak sentiaraziz, hizkuntza hobeto barneratzen dela, eta hobeto transmititzen dela komunikatu nahi den hori. Edonola ezin ahantzi dugu, ikertzaileei erreparatuta eta, goian aipatu helburuetara al baita eta arrakastarik handienaz iristeko, eskaintzaren helburuak esplizitoki adieraztea ez baino, haiek inplizituak izatea egokiagoa dela. Alegia, gazteari ezin joan gatzazkio esanez “halako ekintzatan apunta zaitez, euskaraz egiteko”, baizik eta “hona hemen gustuko izan dezakezun ekintza sorta bat”. Jakina, aurrez bermatuta horiek euskaraz eskainiko direla eta bertako hezitzaileak, goian aipatu bezala, hizkuntza-portaeran jokatzeko duten rolaz kontziente direla eta hartan esanguratsuki eragiteko estrategia jakinen jabe.

Aipatutakoak aintzat hartuz gero, erraz ondorioztatzen da askotariko hezitzaileei eskaintzen zaien formazioak, bestelakoaren artean, honako bi helburu orokor hauek txertatu behar dituela:

- Ohartaraztea bere lanaren garrantziaz: haur, nerabe eta gazteen artean erreferente izateaz eta jokatzeko duen paper ordezka ezinaz.
- Ohartaraztea euskararen erabilera sustatzen eta haur, nerabe eta gazteen komunikatzeko gaitasuna areagotzen ekarpen garrantzitsua egin dezakeela.

Helburu orokor horiek gauzagarriak izan daitezten, hezitzaileak, formazio-saioretan lidergoan lantzen denean, hizkuntza-jarreretan eta hizkuntza-gatazken kudeaketan ere trebatu egin beharko dira, alegia, testuinguru soziolinguistikoarekiko koherenteak diren hainbat helburu mailakatu eta zehatz finkatzen gaitu. Horrela, bada, formazioa jasotzen ari diren gazteek, lehenik euren buruari dagokionez, zenbait hizkuntza-irizpide barneratu egin beharko dituzte, hala nola:

- (1a) Euskara hutsez aritzea.
- Euskara (nahiko) egokiz aritzea.
- Euskararekin jarrera positibo eta zabala izatea.
- Euskararen aldeko motibazioa azaltzea eta inplizituki lantzea jardueren bidez.
- Ahozkoaren erabilera indartzeko eta lantzeko hainbat komunikazio-egoera berariaz sortzea edo sortaraztea.
- Komunikazio-egoera anitz aprobeztatzea eta baita sortzea ere, euskara egokia entzuten eta erabiltzen ohitzeko.
- Hizkuntzaren alderdi funtzionala lehenestea eta ez zuzentasuna.
- Ez-entzunarenik ez egitea euren artean gaztekeraz ari direnekin edo zuzentzen zaizkienekin.

### **3.1.1.- Hizkuntza-portaeran eta hizkuntza-jarreretan nola eragin:**

Horrenbestez, badakigu nora iritsi nahi dugun, jada definitu dugu gazteekin eta hezitzaileekin zer lortu nahi dugun, orain, nola zehaztea geratzen zaigu. Alegia, nola egingo dugu, batetik, hezitzaileak helburu horiek beregana ditzan eta, bestetik, haur, nerabe eta gazteak limur ditzan hizkuntza-helburu horietan?

Xedea lortzeko, berariaz landu behar ditugu hezitzaileekin eta, oro har, hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiekin hizkuntza-jarrera eta estrategiak, eta ez utzi intuitiboki edo haiekiko ezaxolati joka dezaten. Tokian tokiko hezkuntza-komunitatea helburu horretara lerratzeko, plangintza egoki bat zehazteko eta hura eraginkortasunez bideratzeko tresna lagungarria da *Hizkuntza-proiektua: esku-hartzeak, helburuak eta jarduerak atala*<sup>8</sup>.

### **3.1.1.1.- Komunikazio-egoera esanguratsuak ustiatzeko estrategiak.**

Hezitzaileen eta edozein adinetako taldeen arteko harremanetan elkarreraginerako egoera ugari sortzen da, hots: hezitzaileen eta haur, nerabe eta gazteen artean askotariko komunikazio-ekintzak gauzatzen dira eta eten gabea da euren arteko solasaldia. Sozializazio horrek berebiziko garrantzia du hizkuntzaren jabekuntza-prozesuan eta hari buruzko ikuskera edo ideologian. Ahozko komunikazio-ekintza ugari horietan eragiteko, estrategia egokiz baliatuz gero eta horiek behin eta berriz, sistematikoki, aplikatuz gero, irits gintezke hizkuntza-portaeran eragitera.

Elkarreraginerako estrategia horiek zein diren ondoko dokumentuan bilduta daude, *Komunikazio-ekintzetan elkarreragina ustiatzeko estrategiak* izenburuarekin<sup>9</sup>.

### **3.1.1.2.- Haur, nerabe eta gazteen hizkuntza-portaeran eragiteko esku-hartze metodikoa.**

Aipatu dugu goian hizkuntza-portaeran eragiteko zein garrantzitsua den ikuskera holistikoa duten esku-hartze orokortu eta sistematizatuak bideratzea. Horrek esan nahi du hezitzaileak behin eta berriz aplikatuko duen metodologia jakin bat garatuko duela, zeinak aintzat hartzen duen, hezitzailea izanik aisia-jarduera horietan hizkuntza-eragile nagusi, honako beste faktore hauei ere erreparatzea: batetik, gazteen komunikatzeko gaitasunari eta euskara erabiltzeko inizatibari eta, bestetik, jardueraren intentsitateari eta gazteen eta hezitzailearen arteko harremanari.

Metodologia horretan hezitzaileak, hasiera batean, aipatu faktore horien arabera egoera zein den aztertuta, hizkuntza-helburu lorgarriak jarriko ditu eta, ondotik, helburuak lortu ahala, erabilera naturalera iritsi bitarteko esku-hartzeko ziklo mailakatuak osatuko ditu.

---

<sup>8</sup> Ikus Ikastolen Hizkuntz Proiektua: [www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus) gunean eskuragarri.

<sup>9</sup> Hizkuntza-proiektuaren baitan, Euskaraz Bizin zabalduetako dokumentazioa: [Komunikazio-ekintzetan elkarreragina ustiatzeko estrategiak](#)

Lanketa hori egiteko material aproposa da *Hezitzaileak asko egin dezake*<sup>10</sup> izenburuean Ttakunek landutako materiala.

Estrategia horiek aplikatuz kirolean, *D ereduko Kirola* izenburuean<sup>11</sup>, esperimentalki, zer nolako ikerketa eta esku-hartzeak egiten ari diren ere ezagutu dezakegu honako beste lotura hauetan.

### **3.1.1.3.- Hizkuntza-jarreretan eragin beharraz.**

Hiztunok erabakitzen omen dugu hizkuntzen etorkizuna. Hizkuntzen galtze- eta berreskuratze-prozesuetan, jakin badakigu beste faktore batzuek ere eragin handia dutela eta inork ez diola berez uzten jatorrizko hizkuntza erabiltzeari. Alabaina, jakin badakigu baita hiztunaren esku dagoela, besteak beste, hizkuntzaren erabilera eta hiztun-komunitatearen esku haren berreskuratzean eragitea. Hiztun komunitatearen konpaktazio eta optimizaziorik gabe hizkuntzak ez baitu etorkizunik. Beraz, gure eguneroko portaerarekin erabakitzen dugu euskararen bizi-iraupena.

Gaur egungo euskalgintzan eta ikerketa soziolinguistikoen emaitzetan adostasun handia dago: guztiok aitortzen dugu azken 50 urteotan urrats handiak eginak ditugula euskalduntze-prozesuan, alabaina, une honetan, hiztunak aktibatzen asmatu beharra dugula. Horretarako, adituek diotenez, ohiko diskurtso pesimistetatik atera eta gizarte-mailako esku-hartze sistematikoei ekin beharrean gara.

Urte batzuk joan dira ikastoletako klaustroetan eta gurasoen artean hizkuntza-jarrerak lantzen hasi ginela. Gaur egun ere, profesionalen artean bizitzen ari garen belaualdien arteko erreleboa eta gurera hurbiltzen den guraso-tipologia gero eta anitzagoa aintzat hartuta, ez legoke lekuz kanpo gai horren inguruko hausnarketa bideratzea irakasle-taldeetan eta familietan.

TELP izenez ezagutzen genuen eta hamaika lagunek egin zuen Katalunia aldetik zetorren formazio hura. Gerozkoan, bestelako izenak eta antzaldatzeak izan ditu. Edozein kasutan, muinak ez du gaurkotasunik galdu. Zeren formazioaren funtsa baita partaideak ahalduntzea eta zenbait bide eta estrategia eskuratzea, hiztunak bere hizkuntza-jarreraz kontziente egitearekin batera, hizkuntza-eskubideei eusteko erabakizioan tinko iraunarazteko eta jokabide horrek hizkuntza-gatazkarik ez eragiteko edo ustez alda ezinak diren ohiko hizkuntza-portaerak muda daitezkeela ohartarazteko.

Ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitateko kideak sentsibilizatzeko edo hezteko premia ari garela, eta, bereziki, gazteen aisian eragile nagusi izango diren hezitzaileei begirako formazioaz, hizkuntza-jarrerari buruzko formazioa garatzea premiazkoa da bai

<sup>10</sup> Hezitzaileek haur, nerabe eta gazteen hizkuntza-portaeran eragiteko estrategiak: [Hezitzaileak asko egin dezake](#). Ttakun-Euskaraz Bizi, Hizkuntza-proiektuaren baitan landutakoak.

<sup>11</sup> [D ereduko kirola](#).

Jaime Altunaren hitzaldia Soziolinguistika Klusterraren orrian topa dezakezu, nahi izanez gero: [Atariko](#) » [Euskal Soziolinguistika Jardunaldiak](#) » [XII. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2020. Nerabe eta gazteen hizkuntza errealitatea](#) » [ESJ 2020 - Bideoak](#)

ikastolak eraginda eta baita gizarteko beste eragileek bideratuta ere. Hartara, errazago lortuko baikenuke haur, nerabe eta gazteek gelaz kanpoko esparruetan ere euskaraz aritzeko aukerarik izatea. Eta horrekin batera, gisa horretako praktikak gizartean orokortuz gero, hizkuntza-gatazkak saihestea, gizartean euskararen erabilera areagotzea, norberaren hizkuntza-portaeraz kontzientzia hartzearekin batera. Tankera horretako formazio-hausnarketa egokia da, bereziki, euskaraz aritzeko “nolabaiteko” joera edo gaitasuna izan eta, erraz eta oharkabean, gaztelerara lerratzen den hiztun-tipoarentzat, baita ohituraz halakotan eta halakorekin gazteleraz aritzeko usadioa duenarentzat eta hizkuntza-muda egitea zail iruditzen zaionarentzat ere.

Zentzu horretan, berebiziko garrantzia hartzen dute azken aldian euskalgintzako eragileen ekimenez jendartean, aldika, zabaltzen diren Eusle metodologia aplikatzeko deialdiak edo Euskaraldia bezalako ariketa sozialek. Lantzen ari garen ikuskera honetatik begiratuta, ikastoletan ahaleginak egin behar genituzke noizbehinkakoak diren ariketa sozial horiek eguneroko jardunera ekartzeko eta, bereziki, egoera ez-formaletan hedatzeko ahaleginean, saiakera jakinak egiteko ikasleekin. Baita ikasle horien aisialdian gidari-lanetan ariko diren hezitzaileekin ere. Hala jokatuko bagenu, hezitzaileen hizkuntz portaeran eragingo genuke eta, horrela, emaitza hobekak lortuko lituzkete gaztetxoaren artean, eremu ez-formaleko ahalegina gehigarri izango litzaioke eta eremu formalean egiten denari.

Beraz, ona litzateke hausnarketa hori eta dinamika horiek, berariaz, gazteen artean egitea, bai baitakigu dagoeneko egin diren kasuetan emaitza positiboak eragin dituela. Ona litzatekeela diogu, izan ere, *Euskararen bidegurutzetik* liburuan (2019) Kike Amonarrizek adierazten duen bezala, heldu eta gazteen artean “Zergatik ez duzu euskaraz egiten?” galdetuz gero, gehienek erantzunik ohikoena “ohitura” izaten dela baitio<sup>12</sup>.

Horrenbestez, une honetan, euskararen aktibazioarako, jomugan behar ditugu inertziak haustea eta ohiturak aldatzea. Horretan eragin nahian hasi zen Euskaraldia bera ere eta gizarteko era guztietako eragileoi eta euskaltzaleoi dagokigu egun batzuetarako soilik ez baino, egunerokora ekartzea gehiagotan, gehiagorekin eta gehiago euskaraz egiteko joera. Galdera, ordea, honako hau da: zer egin dezakegu faktore horiek hor direla, euskararen aldeko muda linguistikoa gailendu dadin? Euskararen erabilera errazten eta zailtzen duten faktoreak ezagutzen ditugu eta badakigu horiek ez dutela berdin eragiten ez pertsona guztiengan ez une guztietan.

Gai horren ikerketan, alegia, hizkuntza-mudaz, aritu direnek<sup>13</sup> euskararentzat muda-egoerarik egokienak zeintzuk diren aztertu dituzte hainbat pertsonaren baitan hizkuntzek zein ibilbide egin duten kualitatiboki arakatuz. Batik bat, helduek nola jokatu duten joratu dute, baina gazteei buruz ari direla, nabarmen ageri da lagunarteak eta euskararen egoera soziolinguistikoari buruzko berri jasotzeak zenbaterainoko garrantzia duten.

Horren harira, EHUK eta Klusterrak elkarlanean egin azken ikerketak ere ondorio interesgarriak bistaratu ditu: “Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia”, Jone

---

<sup>12</sup>Amonarriz, Kike: “Euskararen bidegurutzetik” 2019, Elkar

<sup>13</sup> Amorrotu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri J. (2017): “Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak”. BAT aldizkaria 104. Soziolinguistika Klusterra.

Miren Hernandez (EHU) eta Olatz Altuna (Klusterterra). Gazteek diskurtso ahula omen dute euskararen berreskurapenari buruz, ez omen dakite ezer hizkuntza-politikaz eta biziberritze plangintzez. Ohiko topikoak errepikatzen omen dituzte: hizkuntza-ohiturak aldatzea oso zaila dela, ez dutela behar adina hitz egiten, gazteagoek okerrago egiten dutela... Ikerketa horrek, finean, frogatu du ahula dutela euskarari buruzko ikuskera edo ideologia. Gazteek omen diote inor gutxi edo inor ez dutela eurentzat erakargarri den erreferente lanik egiten duenik, eduki horiek bistaritzen dizkienik... Horren aurrean, ohar gaitzen, zenbat ahalegin eskaini dizkiogun euskara komunikazio-tresna bezala irakasteari eta zenbat haren historia soziala lantzeari. Dena den, alde hori gela barruko jardunari gehiago dagokio eta ez dugu une honetan langai. Edozein kasutan, gabezia hori nolabait osatzekotan, errealitate hori gogoan ari beharko dugu aisiari begirako esku-hartzeetan, haietan eragile nagusi izango ditugun hezitzaileen hizkuntza-jarreretan eragin nahi izanez gero.

Horrenbestez, gazte zein helduengan muda linguistikorik eragiteko modurik eraginkorrenaz galde eginda, esan beharko dugu era guztietako erakundeek eta enpresek defektuz euskararen eskaintza aktiboa bideratu behar dutela eta hizkuntza-aldaketa egiteko estrategia aktiboak orokortzeko ahaleginak etengabe indartu. Egiteko horretan ikastolok eragile nagusi eta, aldi berean, bidelagun izan gintezke. Horrela, ikastoletan aisiari begirako esku-hartzeetan, horietan eragile diren irakasle eta hezitzaileen hizkuntza-jarrei buruzko formazioa aktibatzea lehentasun estrategiko izan behar duela esan behar<sup>14</sup>.

### **3.1.2.- Kalitateaz. Lagunarteko hizkeraren errepertorioa: ahozkoaren gatza eta piperra.**

Aisia-eremuak erregistro ez-formalean aritzeko eta hura barneratzeko aukerak modu naturalean eskaintzea ahalbideratzen du, batik bat, ahozko harremanak izan ohi direlako nagusi. Horrexegatik dugu hain baliotsu, askotariko egoera ludikotan, erabileraren poderioz, hain zuzen, hizkera bizia barneratzeko aukera aparta ematen baitio haur, nerabe edo gazteari.

Egiteko horretan, irakasleak eta hezitzaileak ditugu bitartekari eta erreferente nagusi. Beraiei begirako formazio-saioetan, beraz, lehenetsi beharko dugu, testuinguru soziolinguistikoaren araberrako helburu mailakatuak jarriaz, darabilten euskara-kantitateari ez ezik, kalitateari ere erreparatzea. Hezitzaile horiek, lehenik, euren hizkuntza-praktikari buruzko hausnarketa egin beharko dute, euskaraz nola ari diren ohartu beharko dute, ondotik, gaztetxoengan eragin positiborik izango badute zentzu horretan. Urrats horiek sistematikoki eginez gero, euren hizkeran ez ezik, ingurukoarengan ere lortuko dute eragiterik.

Izan ere, pentsa dezagun zein egoeratan aurkitzen diren hezitzaile-gai diren gazte horiek, alegia, zein euskara-gaitasun erlatibo duten. Haietariko askok ikastola izan izango du euskararen bozgoragailu bakarra. Eta ez dezagun ahantz eskolak, oro har, hiztun osoak hezteko bidean zein muga dituen. Hizkuntza normalizatua duten herrietan, edozein eskolaren egitekoa hizkuntza formala irakastea bada ere, euskararen kasuan, erregistro

---

<sup>14</sup>Hizkuntza-jarreretan nola eragin:TELP ([ppt-a](#)). Hizkuntza-proiektuaren baitan Euskaraz Bizi mintegietan landua.

ez-formalari ere nolabaiteko lekua egin behar izan dio. Eta sarritan aztergai izan ohi da irakasleen artean, lagunarteko hizkera bizi hori ikasleak barnera dezan, zer nola ari beharko ote luketen, hain zuzen, hizkera akademiko jasoaz gain zein leku egin eta nola euskalkiari (bizirik den tokian) edo lagunarteko ez-formalari. Honela biltzen da afera hau Ikastolen Elkarteak *Ikastolen Hizkutz Proiektua* garatu zuen garaian hizkuntza-erregistroei buruzko lanketa egin eta Euskaltzaindiarekin argitaratu zuen liburuxkan: “Hizkuntza estandarra ezinbestean irakatsi eta landu behar du, baina gogo onez hartu behar ditu herri xehearen hizkeraren berezitasunak”<sup>15</sup>. Jakinekua baita, horiek direla esan-indarra eransten diotenak hizkerari.

Esperientziaz badakigu gela barruko jarduna egokia izan daitekeela ahozko nahiz idatzizko hizkuntza formala lantzeko, baina nekez izango da hala, ahaleginak ahalegin, hizkuntza ez-formalerako. Goian aipatu dugu kezka hori zein presente izan den ikastoletan eta zein esku-hartze bideratu izan dituen eta bideratzen dituen gaur egun ere. Horrela bada, gazte hezitzaile-gai horiek, testuinguru soziolinguistikoaren arabera, kasu askotan, ez dira hitzun oso izango, hots: ez dira erraz moldatuko lagunarteko hizkera ez-formal horretan. Nola egingo dute, beraz, zubi-lana euren jardunean?

Hezitzaileei begirako formazio-premiez ari garenean, beraz, haiek egoera komunikatibo ez-formaletan euskaraz aritzeko hizkuntza-errepertorioan jantzi beharraz ere ari gara eta premia hori sentituarazteko beharraz. Gaur egun hezitzaile-gai ditugun gazte horiek gauzatzen ari garen hezkuntza-moldearen ispilu ditugu. Gure irudiko, jada antzeman ditugun gabeziei erantzuteko eta osatzeko unean gaude: hezkuntza-arloan soziolinguistikari lekua egitearekin batera eta nerabe eta gazteak gure hizkuntzak XX. mendean egin galtze-eta berreskuratze-prozesuaren gakoan jakitun egitearekin batera, hizkera ez-formala entzun, erabili eta barneratzeko gune eta aukerak ugaritu eta eskaintzeko beharrez gara. Hala baino, ez dituzte barneratuko lagunarteko hizkerari dagozkion ñabardurak: euskalkiei loturiko tokian tokiko fonetismoak (bizirik den guneetan), esamoldeak, hiketa (ezagun den eremuetan), hiztegia... Finean, lehenik, hezitzaile horiek, jantzi behar ditugu ahozko ez-formalaren gatza eta piperra osatzen duten osagai horietan, ondotik, horiek zirkulazioan jartzeko orduan ere, erreferente izango baitira. Euren jarduna egokia izanez gero, asko eragin dezakete gazteagoen hizkuntza-kalitatean (esan-indarrean), erabileran eta hari buruzko ikuskera edo ideologian.

Esanak gogoan, aisiari begirako esku-hartze egokia eginez gero eta gizartean orokortua, eskola-esparruan, oro har, eta zehazki ikastoletan egiten den ahaleginak ere fruitu oparoagoak emango lituzke, uharte izateari utzi eta unibertsala den joeran murgilduko litzatekeelako. Edozein kasutan, ez dugu uste bata bestea ordezkatzeko duenik, aitzitik, euskararen normalizazioak eta hitzunen aktibazioak, bereziki, behar dituzte administrazioko edozein esparrutatik, ikastoletatik eta eskoletatik egiten diren askotariko ahaleginen elkarlana eta osagarritasuna ezinbestean. Ekimenak batu egin behar ditugu, ez ordezkatu.

Ahalegin horretan, ikastolok asko dugu egiteko eta aukera handiak: Hizkuntza-proiektua berrindartuta, gela barruko jardunean hizkuntzaren ezagutza/erabileran eraginkortasun handiagoz aritzeko doikuntza metodologikoak egin ditzakegu, eta aisiaren

---

<sup>15</sup> Euskaltzaindia - EHI: “Zenbait orientabide erregistroen trataeraz”.

esparrutzat jotzen ditugun horietan, berriz, erabilera/ezagutzan esanguratsuki eragiteko erabakiak hartzeko aukera aproposa dugu une hau. Besteak beste, gizartean ere, sentsibilitate berezia bizi delako eta euskalgitzan alde asko mugitzen ari direlako. Abagune egokia dugu, hortaz, Ikastolen Elkartetik, Zirimolaren bitartez, aisia-egitasmo osatu eta eraginkorrak bideratzeko, horiek ikastola bakoitzak koherentziaz eta kohesionatuta Hizkuntza-proiektuan txertatzeko eta, bide batez, jendartearen aktibazioareko ekimenak berrindartzeko, herriko erakundeekin elkarlanari ekiteko edo hura indartzeko.

#### **4.- Esku-hartze orokortu eta sistematizatuen beharra: zuzendaritza, irakasle-taldea, hezitzaileak eta familiak inplikatur eta herri-eragileekin elkarlana sustatuz.**

Aipatua dugu jada, hizkuntza-portaeran eta jarreretan eragingo badugu, horretara bideratzen ditugun esku-hartzeek ikuskera holistikodunak, hedapenez orokorrak edo globalak, errekurrenteak eta iraunkorrak izan behar dutela. Hortaz, aisia ikastoletan garatzen den Hezkuntza-proiektuaren erdi-gunera ekartzeko eta aipatu neurriko esku-hartzea bideratzeko, ikastola bakoitzak Hizkuntza-proiektu sendoa behar du. Alegia, hezkuntza-komunitate osoa harrapatzen duen plangintza osatu eta bizia izatea ezinbestekoa da, hots, zuzendaritza-ekipoa, irakasle-taldea, familiak eta hezitzaileak inplikaturko dituena. Zeren uste okerra baita pentsatzea aisiari begirako esku-hartzeetan hezitzaileei soilik erreparatu behar zaienik. Hezitzaile horiek ditugu adin-tarte askotako ikasleekin zuzenean lanean ari direnak, baina lan horren nolakoa eta intentsitatea erabakiko dutenak zuzendaritza-ekipoetan daude. Eta irakasleek eta familiekin ere, egunerokoan, funtzio oso garrantzitsua jokatzen dute bai hizkuntza-portaerari bai kalitateari dagokienez.

Izan ere, irakaslearen jardunak jomuga ikaslea izanik, bere eragina ez da, soilik, gela barrura mugatzen, sarritan, ari izaten da gelaz kanpokoan ere. Egun, baliabide didaktiko eta berrikuntza pedagogiko egokiak ditugu ikasleekiko elkarreaginean eta euren artekoan komunikazio-egoera anitzak bideratzeko. Hala, esan genezake inoiz baino baliabide egokiagoak ditugula eskura, gela barruan gaitasun komunikatiboa jorrazteko. Finean, gela barrurako elkarreaginean bideratzeko baliatzen ditugun estrategia horien baitan biltzen dira baita gelaz kanpoko eremuetan, aisiari loturikoetan baliatzen dituzakegunak ere. Kontua, azken finean, fokoa jartzea da: irakaslearen esku-hartzeak, hezitzailearen aritu garenean azaldu bezala, ikaslearen hizkuntza-portaeran eta hizkuntza-jarreretan eragiten duela ohartzea eta horiek bideratzeko estrategia jakinak abiatu beharraz jabetzea.

Bestalde, familiei begirako esku-hartzeak ere albo batera utzi ezin dira, batik bat, Haur Hezkuntza/Ama-Ikastola eta Lehen Hezkuntza/Lehen Maila etapetan, arrazoin askorengatik. Familia euskaldunei dagokienez (multzo honetan kokatzen ditugu mistoak ere), ikastolaren Hizkuntza-proiektuaren helburuekin bat egin dezaten, hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan eta hari loturiko alderdi afektiboan jokatzen duten rol ordezka ezinarenengatik eta baita beren seme-alaben sozializazioan, harreman horiek albatu eta gehien euskaraz gara daitezten, har ditzaketan hizkuntza-erabakiengatik. Familia euskaldun eta mistoak nolabait "hezi" egin behar dira murgiltze-ereduan ikasteak duen esanahian, ikastolak euskararen normalizazioan egiten duen ahaleaginean inplikatur lortzeko eta haurrarentzat ikastolan jasotzen duen mezua etxean jasotzen duenarekiko kontrajarria izan



ez dadin; alderantziz baina, ikastolan jasotzen duen inputaren oihartzun eta luzapen bilaka dadin. Familia erdaldunei dagokienez, berriz, ikastolaren Hizkuntza-proiektuarekin koherentzian, funtsezkoa da berariaz ahalegintzea, euskaren aldeko jarrera positiboak gara ditzaten eta seme-alabek euskara egoki ikastea prezia dezaten, hizkuntzaren balio integratzaile eta pragmatikoa azpimarratuz eta hartaz ohartaraziz. Familia-mota horrek euskararik transmititu ezin badu ere, ulertarazi behar zaio zein garrantzitsua den ikastolak dituen helburuekin bat egiteko konpromisoa hartzea, jasotzen dituen aholkuei jaramon egitea eta eskura jartzen zaion askotariko baliabideri erabilera egokia ematea, besteak beste, beren seme-alabek lagunarte euskalduna eraiki dezaten eta, hor, euskarazko harremanak gara ditzaten. Ikastola eta haren inguruan eraikitako harreman-sarea izango baitute haur eta gaztetxo horiek euskararen oihartzun-iturri nagusia eta hala izan ezean, nekez iritsiko baitira hizkuntzaren jabekuntza-maila egokia izatera ikasketetan aurrerapen egokia egin ahal izateko eta esparru formal zein ez-formaletan euskaraz aritzeko. Ikaslearen irteera-profilean bilduta dugu DBHren amaierara iristean euskaraz eta gazteleraz B2 maila eskuratua behar duela eta Batxilergoko 2. mailan C1<sup>16</sup>. Ohartaraztekoa dugu, ordea, helburu horiek zera adierazten dutela: ikasleak finkatutako mailako hizkuntza-gaitasuna garatua behar duela ikasmila horietan, baldin eta eskatuko zaizkion eragiketa kognitibo-linguistikoak egoki garatzeko gai izango bada. Azken Ebaluazio Diagnostikoetatik ateratako ondorioetan irakurri dugu nekez gabiltzala iritsi beharreko mailetan. Beraz, ikastolak berak egiten duen ahaleginari etxetik egin daitekeena gehitzeak garrantzizkoa dirudi.

Azkenik, aipatu helburu horietara esanguratsuki iristeko, ezin dugu alboratu herri-eragileekiko elkarlana, izan Udala, Aldundia, Kirol Elkarteak, euskalgintzan diharduten erakundeak... Ez soilik baliabide-iturri izan ohi ditugulako, baita euren helburu eta jardunaren alderdi kualitatiboari ekarpen baliotsua egin diezaiekegulako ere eta, hartara, gure helburu hezitzaileetara hurrerarazi. Era horretara, eraginkortasun handiagoz garatuko genuke goian aipatutako ikastolon herri-eraldatzaile izateko grina.

Horrenbestez, Hizkuntza-proiektuak herri-eragileekiko elkar-lana sustatzearekin eta ikastolaren komunitatea osorik inplikatzearekin batera, etapaz etapakako garapena izatea ezinbestekoa da eta, era berean, urtez urte errekurrentea izatea. Hala izan ezean, ez baita lortuko, gaur haur diren horiek 16-18 urte betetzeko bidean, euskararen aldeko input esanguratsua jasotzearekin batera, lagun-artean euskaraz aritzeko usuarioa barneratzerik eta ludikotasunari buruzko ikuskera jakin hori euren bizi-estiloan integratzerik.

#### **4.1.- Hizkuntza-proiektua: diagnostia, plangintza mailakatu, ebaluazio-adierazleak eta betetze-maila.**

Aipatu esku-hartze horiek bideratzeko aukera ematen du Ikastolen Hizkuntza-proiektuak eta bertatik ondorioztatzen diren Plan Estrategikoak eta Urteko Planak.

Urteak dira, 2001-2002 ikasturtean hasi zen lehen ikastola talde pilotu bat, Hizkuntza-proiektua abian jarri zela eta haren baitan Euskaraz Bizi egitasmoa hizkuntza-portaera eta jarreretan eragiteko esku-hartze modura. Eskarmentuak zerbait

---

<sup>16</sup> Hizkuntza-proiektua.

erakutsi badu, zera utzi du bistan: hizkuntza-portaeretan nekez eragin daitekeela eraginkortasunez noizbehinkako jai-usaineko egitasmoekin, soilik. Horiek gutxietsi gabe eta izatez duten balio hezitzailea ukatu gabe eta hura azpimarratuz, euskararen ezagutza eta erabileran esanguratsuki aurreratzea helburu duen esku-hartzeak ikastola osoaren inplikazioa bilatu behar du eta gela-barruari ez ezik, gelaz kanpoko esparruei ere, aisiari, begira jarri behar du, aurreko ataletan garatu ditugun lan-ildoak bere eginda eta sistematizatuta.

Horretarako, dokumentu honetan berriaz aisiari ari garela, azpimarratu beharrean gara aisialdirako eskaintzak bere baitan bildu behar dituela hizkuntza-helburuak, eta haiei bereziki erreparatuko dieten dena delako hezitzaileak erdi-gunera ekarri behar dituela. Izan ere, edozein aisia-egitarau antolaturik, hizkuntza-helburuei beren beregi erreparatu ezean, bestelako helburuak erdietsiko ditugu, agian, baina euskararen erabileran eta kalitatean nekez aurreratuko dugu. Horixe da orain artean, tamalez, kasu gehienetan gertatzen zaiguna. Ikastolan ugari dira aisialdi-jarduerak, zein neurritan dira, ordea, euskarari ekarpenik egiteko egokiak?

Hizkuntza-proiektua honela definitu zen 2002an: *“Ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa da”*. Koherentzia horren ardatza “ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko dugu, hori baita, besteak beste, hizkuntzei dagokienez, ikastolan Hezkuntza-proiektuaren jomuga. Gero eta globalizatuagoa eta eleaniztunagoa dugun gizarte honetan, beraz, hizkuntza bakoitzaren ikaskuntzari eskainiko zaizkion ordu-kopurua eta espazioak finkatzearekin batera, aisialdiko eskaintza zein hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari lotuko zaion zehazterakoan, tentuz erreparatu beharko zaio, testuinguru soziolinguistikoaren baitan, euskararen ezagutza eta erabilerari trabarik egin edo mugarik jar ez diezaion. Ideia horixe bera azpimarratzen dute Arrue ikerketaren azken emaitzei buruzko irakurketan ere<sup>17</sup>.

Horrenbestez, ikastolan aisiari begirako hizkuntza-plangintzak lehen begirada zerbitzuaren eskaintza bideratuko duen eragile-taldeari bota behar dio (maila instituzionala) eta hari begirako helburuak finkatu eta esku-hartzea planifikatu. Ondotik, zerbitzuan parte hartuko duten subjektu guztiengana iritsi behar du, jomugan izanda, azken hartzailea bezeroa izango dela: haur, nerabe edo gaztea. Hala, ikasleen hizkuntza-erabileran aurreratuko badugu, lehentasunez erreparatu behar zaie plangintza honetan hezitzaile-rola jokatu duten gazteei, irakasleei eta profesionalei.

Bi zentzutan erreparatu ere. Batetik, hezitzaileek euren buruarekiko erabilera eta kalitatea aztertuz, diagnostia eginez: horrek norberaren hizketa-jardunaz kontzientzia hartzea dakar berarekin. Halakoetan, norbanakoaren bakarkako hausnarketaz gainera, interesgarria izan ohi da hezitzaile-taldean egindakoa ere. Autoebaluazioak koebaluazioarekin irabazi egiten du eta taldearen hausnarketarako bide egokiak bistaratzen ditu. Ondotik etorriko da diagnostian ateratako emaitzak optimizatzeko, helburu mailakatuak jartzea eta urtez urteko plangintzan gauzatuko den plan estrategikoa zehaztea. Azkenik, urtez urteko plangintzatutakoaren betetze-mailari eta ebaluazio-adierazleei jarraipena egitea.

---

<sup>17</sup> Iñaki Martínez de Luna, Pablo Suberbiola: “Hizkuntza mudantza EAEko ikasleengan”, BAT soziolinguistika aldizkaria, 114. alea (154 or.)

Bestetik, hezitzaileak taldearekiko, hezitzaile-rolean, erabilera eta kalitatea aztertuz, diagnosia egitea: taldearen hizkuntza-portaera aztertzea (gaztea-hezitzailea; gaztea-gaztea). Kasu horretan ere, autoebaluazioak eta koebaluazioak dinamika eta giro egokiak eragiten dituzte, batez ere, talde-kohesiorako eta haren eta hezitzailearen arteko harremanetarako. Ondotik etorriko da diagnosian ateratako emaitzak optimizatzeko, helburu mailakatuak jartzea eta urtez urteko plangintzan gauzatuko den plan estrategikoa zehaztea. Azkenik, urtez urte plangintzatutakoaren betetze-mailari eta ebaluazio-adierazleei jarraipena egitea.

Deskribatu dugun esku-hartze hori bideratuko duen plangintza, hankamotz geratuko litzateke, ordea, goiko atalean jorratu bezala, baldin eta ez balie erreparatuko, dagokien atalean, ikastolako komunitatea osatzen duten gainontzeko kideei: zuzendaritzari, irakasle-taldeari eta familiei. Horrenbestez, bidezkoa izango da ikastola bakoitzaren Hizkuntza-proiektuak hartzaile horiei guztiei begirako esku-hartzeak koherenteki aurreikustea eta egoki uztartuta, kohesioz, bideratzea.

#### **4.2.- Aisiari begirako esku-hartzeen ebaluazioa: erabilera-indizeari begira.**

Aisiaren esparruan egiten diren esku-hartzeen helburuen artean bada bat kuantifikagarria izatez gainera, goiko puntuetan jorratu bezala, lehentasunezkoa dena, hots: euskararen-ezagutzan eta portaeran eragitea. Jomugan ditugun helburuetan zein neurritan eragiten ari garen jakiteko tresna ezin hobea dugu hiztun-neurketa. Bideratzen dugun esku-hartzeak zenbaterainoko eragin positiboa duen neurtzeak eragin hori zenbaterainokoa den bistaratzea ez ezik, hobetzekoak diren aldeak nabarmentzea ere badakar berarekin, eta egiten den lanaren emaitzak gertutik ezagutzea, bere baitan, akuilu ere bihurtzen da.

Ikastola bakoitza errealitate soziolinguistiko jakin batean kokatuta dagoenez, bakoitzak finkatu beharko ditu dagozkion helburuak harekiko koherentzian eta, bistan da bakoitzak egingo duela bere ibilbidea askotariko faktoreen arabera, besteren artean: migrante-kopurua, lehen hizkuntza erdararen bat duten ikasle-kopuruaren arabera, familien hizkuntza-jarrerak, Hizkuntza-proiektuaren errotze-mailaren arabera, herrian euskarazko kirol- eta kultur-eskaintzak duen zabalkundearen arabera, herriko euskalgintzako eragileekin elkarlanean aritzeko duen aukeraren arabera... Hortaz, pentsa ezina da esku-hartzeen emaitzak bateratuak izatea ikastoletan, baina ez da hori helburua. Aitzitik, ikastola bakoitzak duen testuinguruaren arabera finkatuko ditu helburuak eta haien lorpen-maila erlatiboari erreparatzea izan behar du jomuga. Finean, honako hau: halako eta bestelako esku-hartze eginda, zenbatean ari den aurrera egiten halako eta bestelako adin-tartetan, jakinik hizkuntza-mudarik ez dela ematen epe motzean eta emaitzarik izatekotan, denboran erregulartasunez iraun egin behar dela.

Askotarikoak izan daitezke hiztun-neurketak egiteko moldeak eta hartan aintzat hartzen diren adierazleak. Edozein kasutan, hiztun-neurketak denboran zehar luzatuta erabilerari dagokionez zein bilakaera ematen ari den deskribatzeko balioko badu, funtsezkoa da sistema soil eta aldi berean finko bat baliatzea, alegia: gauzatzen erraza eta beti bera

izango den metodologia bat hartzea. Horretarako, harreman askeen gune bat hartzea da egokiena, demangun errekreio-garaia edo halako aisia-jarduera. Parte hartzaileen artean, zenbat laguni entzuten zaio euskaraz ari dela elkarrizketetan?<sup>18</sup>.

Azkenik, euskararen ezagutzan eta erabileran eragitea lehentasun estrategikoa izanik ikastoletan, erabilera-indizea Hezkuntza-proiektuaren ebaluaziorako adierazleen artean kokatzea komeni da eta zuzendaritzak jarraipen estua egitea handik eta hemendik jasotako datuei: Ebaluazio Diagnostikoa (ezagutza), emaitza akademikoak (ezagutza), Batxilergoko 2. mailan /Lizeoko Terminalean C1 maila egiaztatzen duen ikasle-kopurua (ezagutza, EHLren Leizaur euskaltegiarekin bideratzen da egitasmoa Hegoaldean) eta erabilera-indizea etapaka. Datu horiek, beste batzuekin batera, (Batxilergoa duten ikastoletan USEko emaitzak) Urteko Batzar orokorrean eta klaustroetan aurkeztea komeni da, urtez urte, horrek, besteak beste, zentralitatea eta aitortza emango baitio Hezkuntza-proiektuaren baitan ikastolak duen euskalduntzeko konpromisoari. Eta jakina, gelako guraso-bileretan, urtez urte, tutoreak euskararen normalizazioan egiten den ahaleginaren erakusgarri bideratutako esku-hartzearen berri ematearekin batera, gurasoen inplikazioa eskatzen duten proposamenak aurkeztearekin batera, euskararen erabilera-indizea zertan den aurkeztea funtsezkoa da. Horrela baino ez da lortzen euskararen normalizazioa ikastolako egunerokoan erdigunera ekartzea, hots: Hezkuntza-proiektuaren oinarrian dagoen zoru euslea izatea.

## **5.- Aisiari buruzko begirada ekosistemetan: haur, nerabe eta gazteak erdigunean jarrita, ikastolatik herrirako garapena.**

Ikastola-esparruan, aisia-denborarekin lotura duen une zein gune orok, haur, nerabe eta gazteen heziketan eta haien gaitasun komunikatiboaren garapenean eragin zuzen-zuzena duela aztertu dugu goiko ataletan, eta azpimarratu ikastola-komunitatea osatzen duten kideekin elkarreaginean direla, norbere nahi eta beharrak asetzeko asmoz, interes berak partekatzen dituzten gainontzeko kideekin. Horretan, ekintza ludikoa izan ohi dela bitartekari, norbere burua hobeto ezagutu eta garatzeko, harremanak sartzeko tresna eta kultur eragile aktibo bilakatzeko akuilu. Haurrak, adinean gora doazen neurrian, mundua ikusteko, ulertzeko eta bertan bere burua kokatzeko trebatzen dira, norbere erabakien eta egiteko moduen erantzule zuzen bilakatuz pitinka.

Beraz, esperinetzia ludikoen bitartez barneko errepresentazio mentalak (sinboliko eta subjektiboak) objektibizatzen (ezagutza arrazionalak) dira. Aldi berean, esperientzia horietatik pizten den ziurgaberasunak, erronka bat suposatuta eta barne jakin-mina pizten du, esperientzia berri bat objektibatzeko bulkada sortuz. Haur eta nerabeek norbere bizitza nondik eta nora eraiki nahi duten hautatzen dute eta bizipen horietatik, ikastola komunitatetik herrirako ibilbidearen arteko zubiaren lehen pausoak ematen dira.

Etnoludismoa kontzeptuaren arabera, ekintza ludikoen bitartez inguru soziala zer nolakoa den barnatzen dugu. Murgilduta gauden ekintzaren barne logika (espazio - pertsona - objektu - denbora) eta osagai horien arteko begirada zein lotura jendartearen balioen baitan finkatzen da.

---


<sup>18</sup> Hitzun neurketak nola egin dokumentua (Euskaraz Bizi).

Hortaz, garrantzitsua izango da esparru honi dagokion marko bat finkatzea eta esku-hartzeak planifikatzea, baina izaera informala ahanzi gabe. Hori baita ezinbesteko baldintza, gainontzean ez ditugulako ez balio hezitzaileak ez hizkuntza-helburuak erdietsiko. Erakargarritasunak ekarriko baitu balio hezitzaileez jabetzea, euskalduntzea eta euskararen erabileran hezte. Finean, zinezko ekintza ludikoak borondatezkoa izan behar du, jatorrizko izateari eustekotan, hots, motibazioa ekintza beraren gauzapenean gordetzeari. Halako ekintzatarako barne-gogoia itzaliz gero, ludiko izateari utzi egiten baitio. Hori dela medio, esaten dugu pertsonak denboraren erabilera subiranoa egin dezan hezi behar ditugula.

Horrengatik guztiarengatik, ludikotasuna pertsonaren garapen integralaren osagai garrantzitsua izaki, bizitzaren dimentsioetan azaltzen da, askotariko une eta guneeetan. Horiek aztertzeak ikasleen, hezitzaileen, langileen, gurasoen, senideen, herriko elkarteetan eta bestelakoen presentzia, esku-hartzea, tokia zer nolakoa izan beharko lukeen hausnartzera eta zehaztera garamatza, aisia-esparruak, ludikoaz gain, komunitarioak, kooperatiboak eta publikoak-herritarrak izan daitezten.

### PERTSONA ERDIGUNEAN

Pertsona batek gaitasun ezberdinak eta anitzak lantzen baditu eta gaitasun horiek guztiak aisialdiaz gozatzeko abilezian bihurtzen dira, zeinaren bitartez bizi-esperientziak aberasteko aukera areagotzen den.




Pertsonen gaitasunak neurtzeko, Howard Gardner-en inteligentzia anitzaren kontzeptua baliatu nahi dugu, pertsonaren garapen integralean oinarritzen baita. Pertsona bakoitzak gaitasun ezberdinak (intrapertsonalak, interpertsonalak, adierapenekoak, espazial-naturalak, artistikoak eta fisikoak) dauzka, eta gaitasun konkretu batzuk besteak baino garatuago izango dituzenez, ezinbestekoa izango da bakoitzaren hutsuneei erreparatzea inteligentzia integrala lortzeko. Gaitasun-multzo horri, **aisialdirako abilezia** deritzo.

Horiek, ezagutzarekin ez ezik, ezinbestean, esperientziaren bitartez objektibizatu beharra dago, eta horretarako, kalitatezko ekintza ludiko anitzak eta aberatsak bizi ditzaten bitartekaritzan eta baliabideetan jarri behar da fokoa, prozesu horren emaitzarekin esperientzia autotelikoa izatea lortu nahi baita.

Horregatik, oinarritzko osagaien kudeaketarako honako proposamen hau luzatzen dugu:

### Espazioa (Ekosistema)

Elkarren osagarri dira familia eta ikastola, gela barrua eta gela kanpoa, hezitzailea eta irakaslea, ikastola eta herria. Gela barruko jardunak hizkuntzari egiten dion ekarpenak gelaz kanpoko espazioan aurkitu behar du segida eta, hala gerta dadin, estrategia zehatzak jarri beharko dira abian. Ezinbestekoa izango da bikotekideen arteko elkarreragina areagotzeko, zubiak sortaraztea eta horiek zaintzea. Helburuak izan behar du espazioz aldatzean hizkuntzan erdararen aldeko mudarik gerta ez dadin ahalbidetzea, hots: gune batetik besterako bidean, hizkuntza-ekosistema bat sortzea zeinetan hurrek gela barrutik daramaten euskarazko elkarreragina ez den etengo edo ahal den gutxien ahulduko den:



Espazio bakoitzak, lanketa espezifikoa behar du. Ere informalek ere beren antolaketa-definizioa behar dute, hor lotzen direlako haur, gazte eta helduen arteko harreman informalak eta garatzen hizkuntza-funtzio ez-formalak.

Bestalde, herrian eraginez aisialdi euskaldun, hezitzaile eta parte-hartzailea sustatzeko asmoz, ikastolek herriko gainontzeko hezkuntza-komunitateko talde, eragile edo elkarteekin batera "Herriko aisialdi mahaia" osatu behar du. Hau da, gune bat, non herritar guztien ordezkartzaren bitartez, herriko astialdia antolatzen, kudeatzen eta gozatzera pasako diren. Hala, haur, nerabe eta gazteak ikastolari loturiko aisia-denboran egiten dutenetik, herriak eskaini ditzakeen aukeretara igaroko dira eta euskararen zein euskal kulturaren transmisiorako eta guztion gozamenarako ekimenak biziko dituzte.

### **Objektua (aniztasuna)**

Haur, nerabe eta gazteak zein ekintza ludikotan aritzen dira? Zenbat eta aniztasun handiagoa izan eta zenbat eta gehiago aldendu eredu homogenizatzaile eta globalizatzaileetatik, orduan eta harreman parekideagoak eraikiko dira eta, hala, hizkuntzaren erabilerari bultzada nabaria emango zaio. Neurri batean, haurrek memorian pre-landuta ez dauzkaten ekintzak burutzean, egoera berriak izanik, horietan aritzeko estetika edo modua ere aldatu egingo baita.

### **Pertsona (elkarrekintza)**

Ikastolak komunitateko kideen arteko elkarrekintza izango du helburu:

- haurra - haurra
- haurra - heldua
- hezitzailea - irakaslea
- irakaslea - gurasoa

Haur eta gazteak erdigunean izango dira, protagonismo zein inplikazio zuzenarekin. Haurren arteko harreman anitzak eta parekideak sustatuko dira. Adin nahasketak eragin dezakeen aberastasuna ere landuko da, kideak, zaharrenei txikienei zuzunaz proposatuz eta ardura ezberdinak eskainiz. Txikienez, berriz, hurbileko erreferentziak ipiniz; horrela ereduak behatzen eredu emateko ibilbidea jorratuz.

Bai helduentzat bai hezitzaileentzat bai irakasleentzat edo baita gurasoentzat ere sentsibilizazio- eta formazio-saioak ezinbestekoak izango dira, aisialdirako behar den heziketaren bidez, harreman-sare guztiak osotasunetik gara daitezten.

Eskolaz kanpoko ekintzetan, asteburuko jardueretan zein jai-ospakizunetan, kide desberdinen inplikazioa eta parte-hartzea ere aktibatu behar dira eta horretarako planteatzen diren erronkak motibagarriak eta gozamenak helburu dutenak izan beharko dira.

### **Denbora (jasangarritasuna/iraunkortasuna)**

Trantsizio-momentuak identifikatu eta denbora-antolaketa berezituak egitea beharrezkoa da, batez ere, opor-garaien ondotik (irail hasiera - urtarril hasiera). Egunerokoan gela-barruko esparrutik, gelaz kanpoko esparrurako igaro-bideak zaintzea ere

garrantzitsua izango da.

Bestalde, urteko garai bakoitzean espazio naturalak eskaintzen dituen aukerak baliatzeko asmoz eta izadiarekiko harremana estuagoa sustatzeko helburuz, proposatuko diren ekintzak, jarduerak edo egitasmoak, ziurgabetasunaren onarpen emozionaletik, erantzun sortzaileak eta kooperatiboak ematera bideratuko dira.

Horrengatik guztiarengatik, esparru honen arduradunoi dagokigu gaur egungo ikasleak etorkizuneko euskal herritar euskaldun, aktibo, kritiko eta ekintzaile izan daitezen, denbora-tarte horien indar hezitzaileaz jabetu eta bakoitzaren antolaketaarako eta kudeaketaarako oinarriak finkatzea.

## **5.1.- Aisiaren berriazko esparruak, begirada eta estrategiak etapaka.**

Atal honetan, dokumentuaren aurreko ataletan garatu diren edukiak etapaz etapa koherentziaz praktikara eramateko orientabideak eta irizpideak eskaintzen dira. Horretarako, hezitzaileen gidaritzapean etapaka garatzen diren aisia-guneak eta uneak bereiztetik abiatzen gara, eta eskema bertsua jarraitzen da kasu guztietan, adinaren ezaugarriak aintzat harturik, beharrezko diren egokitzapenak eginda.

Zerrendatu ditugun guneen artean dira, alde batetik, soilik, ikastolaren ardurapekoak izan daitezkeenak, bestetik, Zirimolarekin edo, agian, aisia-esparruko beste erakunderen baten ardurapean antola daitezkeenak eta, azkenik, herriko erakundeekin elkar-lanean antola daitezkeenak. Arduren banaketa hori ikastola bakoitzaren kasuan desberdina izan badaiteke ere, honela izendatu ditugu: jolas-garaia (aire-hartzea), bazkal ostea, haur-zaintzako gunea, festa-giroko ospakizunak, udalekuak, EKE eta herria. Horietako bakoitza ondoko azpi-ataletan banatu dugu: ezaugarriak eta helburuak, arduraduna, hizkuntza-kalitatea, elkarrengarierako orientabideak, aisia-izaera (osagaiak) eta behaketaarako gune aproposa.

Horietako bakoitzaren deskribapenean, gune bakoitzaren berezko ezaugarriak biltzearekin batera, helburu jakin batzuk lortzeko bidean, aisia-eskaintzak zer-nolakoa behar lukeen adierazten da bai dokumentuan jorratu den aisia-eredu jakinean hezteko bai aisialdia euskararen ezagutzan eta erabileran eragiteko baliabide bezala ustiatzeko. Era berean, xehetzen dira, helburu horiek lorpen-maila al baita eta garatuena izan dezaten, zein irizpide jarraitu beharko lirartekeen eta zein adierazle hartu beharko lirartekeen aintzat, egiten den esku-hartzearen eraginkotasuna zenbaterainokoa den ebaluatzeko.

Dena den, bereizi ditugun gune eta une guztiak ez dira maila berekoak, alegia, batzuetan eta besteetan bidera daitezkeen esku-hartzearen intentsitatea eta eraginkotasuna ez dira berdinak. Horietan guztietan bideratzaile-rola jokatzen duten hezitzaileen profila ere askotarikoa da: batzuetan, irakasleak; besteetan, jangelako hezitzaileak; hurrena eskola orduz kanpoko ekintzetako hezitzaileak... Gainera, ikastola bakoitzak beharren eta aukeren arabera, erabaki pertsonalizatuak hartuko ditu, batetik, berriaz eragiteko hautatzen dituen guneei buruz eta, bestetik, horietan egingo duen esku-hartzearen intentsitateari buruz, beti ere, Hizkuntza-proiektuan bilduak dituen helburu estrategikoen baitan, haiekiko koherentzian eta jarritako ebaluazio-adierazleetara, ahalik eta gehien hurreratzeko asmoz. Hala, ikastola



bakoitzaren eskumenera geratzen da zein gunetan zenbaterainoko ahalegina egingo duen esku-hartze berezituak antolatzen, horiek zenbateko maiztasunarekin gauzatuko dituen eta zer-nolako jarraipen kualitatibo eta kuantitatibo egingo dien abian jarritako ekimen horiek eragiten dituzten ondorioei. Azken ideia hori, berariaz azpimarratu nahi dugu, izan ere, jolasaldia, EKE<sup>19</sup> eta bazkal garaia gunek ikasturtean zehar egunerokotasunean txertatuta egote hutsarengatik, eragin-gune garrantzitsuak dira, baina, aldi berean, lan-zama handia ekar dezakete baldin eta era jasangarrian programatzen ez badira. Goiko ataletan aipatu dugu, arrakastarik izatekotan, esku-hartzeek iraunkorrak izan behar dutela portaeran eragiteko. Ondorioz, gunehorietan garatuko ditugun esku-hartzeak, arduradunentzat jasangarriak izatekotan eta ez zamatsuegi, egunerokoak izango ez badira ere, errepikakorrak, izaera anitzekoak eta iraupen luzeakoak izan daitezten ahalegin berezia egin behako da.

Azkenik, aisiaren gunek eta uneak sailkatu eta balizko esku-hartzeak xehetu diren atal honetan, azpimarratzekoa da horien intentsitatea, maiztasunari dagokionez batik bat, ez dela maila berekoa etapa guztietan. Bigarren Hezkuntzan/Bigarren Mailan, ikasleak berak aldarrikatzen duen autonomiarengatik, gerta liteke esku-hartzea urriagoa izatea, baina ez horregatik ahulagoa. Adin horretako ikasleek gustura hartu ohi dituzte lehiaketa eta festa-kutsuko zenbait dinamika, batik bat, irakasleak ere tartean inplikatzeko badira, euren protagonismoa ematen bazaie, ardurak banatuz, edo eurak dinamizatzaile- eta arduradun-eroleetan jarrita, gazteagoi begirako dinamiketan murgiltzen badira, kideak deitu dinamikekin. Etapa honetako goi zikloko ikasleek, bereziki 4. mailakoek, egoki erantzun ohi dute, Batxilerreko/Lizeoko ikasleen gidaritzapean eta Euskaraz Biziko ordezkariak lagunduta, gazteagoi begirako esku-hartzeetan. Hartan ari direla, etekina bikoitza izan ohi da: batetik, helburu taldearengan eragitea eta, bestetik, euren buruarengan egiten ari direnari buruzko kontzientzia indartzea.

Atal honen helburua, beraz, ikastola bakoitzak Hezkuntza-proiektu integrala garatzeko, aisialdiari zer-nolako trataera eman behar liokeen laburki biltzea da. Horrela, bertan aipatzen den zenbait alderi buruzko xehetasun gehiago irakurri nahi izanez gero, dokumentu honetan gorago jorratutako atalera jo daiteke.

### **5.1.1.- Aisia Haur-Hezkuntza/Ama-ikastolan eta Lehen Hezkuntzan/Lehen Mailan**

Haurren eskolatzeko-ibilbidean HH/AI<sup>20</sup> da lehen etapa eta bertan ekiten zaio oinarritzeko konpetentzia orokorren garapenerako oinarriak ezartzeari, eta horiek ondoko etapetan osatzen dira, ikaslea adinean gora doan heinean. Haurren garapen-ezaugarrien antzekotasunarengatik, atal berean kokatu ditugu hemen Haur-Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, jakinik, azken horren goi-zikloko azken urtea (6. maila) DBH/BMtik<sup>21</sup> gertu kokatzen dela. Adin-tarte horietan, eskolatzeko, guztiaren gaineratik, haurri ingurune soziala zabaltzea eta aniztea dakarkio, familia-girotik ikastolarako pausoa luzatzearekin batera. Horrek dakar elkarreragin sozialerako aukerak areagotzea eta, hala, bere adinkide eta helduekin elkarreragin-trebetasun sozialak eskuratzeko aukera gero eta ugariagoa eta

<sup>19</sup> EKE (eskola-orduz kanpoko ekintzak)

<sup>20</sup> HH: Haur-Hezkuntza; AI: Ama-Ikastola

<sup>21</sup> DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; BM: Bigarren Maila

anitzagoa izatea, batik bat, LH/BMko<sup>22</sup> goi-zikloan. Gainera, adinaren ezaugarriak eta ikastolen Hezkuntza-proiektuaren ikuskera aintzat hartuta, ekintza autonomoa oinarri duen ikaskuntzarekin koherentzian, “Egiten eta ekiten ikastea” eta horrekin batera “Komunikatzen ikastea” dira ardatzak, gainontzeko hiru konpetentziak garatzeko.

Ikuskera horretatik, jolasa eta jarduera ludikoa bihurtzen dira haurren sozializatorako tresna nagusi, bai gela barruan eta baita gelaz kanpo ere. Jolasak bizitzarako entrenatzen du haurra eta, besteak beste, nortasunaren eta komunikatzeko gaitasunaren garapenean eragiten dio. Horrenbestez, ikastolaren esparruan aisia-denborari lotzen zaion une zein gune orok haurren heziketan berebiziko garrantzia du eta horretaz jabetzea garrantzitsua dugu. Izan ere, ikastola-komunitateko kideekin harremantzean, norbere nahi eta beharrak asetzeko asmoz, interes komunak partekatzen ditu beste kideekin.

Ikastolan, dimentsiorik zabalenean, jolasa izaten da norbere burua hobeto ezagutzeko eta garatzeko tresna, harremanak sartzeko bitartekoa eta kultur eragile aktibo bilakatzeko hastapena. Jolasaren bitartez, haurra mundua ikusten, ulertzen eta bertan bere burua kokatzen trebatzen da eta, hala, bere erabakien eta egiteko moduen erantzule zuzena bilakatzen. Bere bizitza nondik eta nora eraiki nahi duen hautatzen du, eta bizipen horietatik, ikastola-komunitatetik herrirako ibilbidearen arteko zubian lehen oinarriak eraikitzen ditu.

Eta hauetan, ondoko espazioak defini ditzakegu aisiari atxikitzen dizkiogun balio hezitzaileen garapenerako gune eta une moduan, aurretik zehaztu ditugun ekosistemen baitan:

Ekosistema 1: pertsona - norbera

Ekosistema 2: familia - ikastola:

- zaintzako guneak (goiz eta arratsalde);
- familia eta asteburuak

Ekosistema 3: gela-barrua - kanpo-espazioa:

- jolas-garaia
- bazkal ostea
- eskola orduz kanpoko ekintzak (EKE)
- ateraldiak eta egonaldiak
- festa-giroko ospakizunak

Ekosistema 4: ikastola - herria

- udalekuak
- herriko aisialdi-mahaia

Haurrek gune horietan duten presentzia ez da maila berekoa, guztiak ez baitira jolas-garaia eta festa-giroko ospakizunak ez diren gainontzekoen erabiltzaile izaten, nahi eta nahi ez, era iraunkorrean. Esparru horietan guztietan gauzatzen den haurren arteko eta haur eta hezitzaileen arteko elkarreragina, ordea, haurren garapen konpetentzian garrantzitsua da, batik bat, elkarreragin horretan sortutako harremanak zein hizkuntzatan ardatzen diren, gerora hedatuko diren komunikazio-ohiturak ere baldintzatuko dituelako. Ikastolak haurrak euskalduntzeko hartua duen helburuan, berebiziko garrantzia du euskara

---

<sup>22</sup> LH: Lehen Hezkuntza; LM: Lehen Maila

gailentzeak etapa honetan gauzatzen den sozializazioan bai gela barruko eremuetan bai gelaz kanpokoetan, eta, harekin batera, euskal kulturaren oinarriak transmititzeak, izan kantu, dantza, jolas, joko, aho-korapilo... Bizi dugun gizarte globalizatuan, ikastolak euskararen indartze-gune babestua izateko ahalegin berezia egin ezean, gizartean (familian, kalean, kultur eskaintzetan, kirol-eskaintzetan eta edonolako komunikabidetan) nagusi diren erdarazko produktu eta joerak gailentzen baitira. Adin-tarte honetarako dagoen baliabide-eskaintza ez da txikia, baina ikustezin bihur liteke zenbait testuingurutan gaztelerazko eta fratsesezkoen artean, euskarazkoak diren haiek berariaz nabarmendu ezean.

Ezin ahortzi, bestalde, aisiak, oro har, goian aipatu ekarpenik egingo badio euskarari hezitzaileek kontziente izan behar dutela, batetik, jokatzan duten bidelagun-rolaz eta, bestetik, estrategia berezituak eskura izan behar dituztela, haurrek ezagutza eta harreman-sarea, batik bat, euskaraz gara dezaten.

Aipatua dugu goian, aisiaren gakoa ludikotasuna dela. Etapa hauetan, jolasa ardatza izanik, jolas librearen eta gidatuaren arteko desberdintasuna egitea dagokigu. Aisia jolas librearekin lotzen da, baina aisiaren espazioak eta denbora euskaraz komunikatzeko gaitasuna areagotzeko baliatu nahi baditugu, hezitzaileak elkarreragina bultzatzen duten testuinguruak eta ekimenak bultzatu beharko ditu eta haurren arteko elkarreraginean parte hartu eta, estrategia jakinak baliatuta, haurren hizkuntza-hautuan eragin. Gainontzean, haurrak aurrez menderatzen duen edo inguruko artean entzuten duen hizkuntzan egingo baitu harremantze hori. Hala gertatzen denetan, gehiengoaren hizkuntza izan ohi da gutxiengoaren hizkuntzari gailentzen zaiona.

Horrenbestez, jolas gidatutik jolas askerako bidean, gela-barruko jardunetik gelaz kanpoko aisia-espazio eta jardunerako bidean, euskara albo batera uztea arintze aldera, ezinbestekoa izango da hezitzaileak estrategia jakinak kontzienteki baliatzea.<sup>23</sup> Ahaztu gabe, aisiaren une eta gune horiek zenbaterainoko balio hezitzailea duten eta ikuskera horretatik ere zein premiazkoa dugun, horietan esku-hartze egokiak bideratzeko, antolaketa- eta kudeaketa-oinarriak zehaztea.

Amaitze aldera, proposatzen dugun lan-ildoan, ezinbesteko garrantzia hartzen du prestakuntzak. Ikastolako zuzendaritzak ahalbideratu beharko ditu haurrei begirako esku-hartzeetan parte izango diren subjektuak (izan irakasle, hezitzaile edo profesionalak) hezte ondoko edukietan<sup>24</sup>:

- Hizkuntza-jarrera
- Hizkuntza-portaeran eragiteko estrategiak
- Hizkuntza-gaitasuna
- Baliabideen bilgunea eskuragarri jarri.

Hona hemen, era eskematikoan, adin-tarte honetan berariaz aisiari loturiko gune eta une horiek euskarari ekarpenik egitekotan eta aipatu balio hezitzailea izatekotan, aintzat zer hartu beharko litzatekeen. Guneka bildutako alde horietan ez da bereizten ikastolak berak, Zirimolak edo beste erakunde batek aintzat hartzeakoak diren, izan ere, dena delako arduradunek erreparatzeko aldeak biltzen baitira.

---

<sup>23</sup> Seaskako esperientzia ezagutu.

<sup>24</sup> Ikus zehaztasunak goian garatutako ataletan.

## EKOSISTEMA 1: PERTSONA

### PERTSONA - NORBERA

#### EZAUGARRIAK

- Pertsonen garapena inteligentzia anitza eskuratzetik datorrela jabetzea.
- Pertsonaren barne-motibazioa piztea komunitatean kooperatiboki jarduteko.

#### HELBURUAK

- Pertsonaren garapen integrala lortzea.
- Beste ekosistemetatik jasotako ekarpenetatik "Pertsona ekosistema" osotasunean garatzea.
- Pertsonaren esparru autotelikoa ahalik eta gehien zabaltzea.

#### AISIA-EREDUA

##### Espazioa

- Natur eremuak (basoak, belardiak, parkeak, zuhaiztiak...)
- Herriko eremu irekiak (plaza, eskailerak, parkeak, aldapak...)
- Herriko eremu itxiak (kultur etxea, gaztetxea, ludoteka, kirol-instalakuntzak...)
- Ikastola

##### Pertsona

- autonomia eta parte-hartzea.
- auto-kontzeptua eta auto estimua
- balio hezitzaileak
- aukera berdintasuna - parekidetasuna
- inklusioa - aniztasuna
- kulturartekotasuna
- asertibitatea eta enpatia

##### Objektua

##### Material-aniztasuna

- jolas askea - jolas bideratua - jokoa - kirola
- lehiaren erabilera hezitzailea
- tokian tokiko jolas eta jokotatik munduko jolas eta jokoetara ibilbidea

##### Denbora

- urtaroen ezaugarrien (eguraldia, tenperatura...) baitako antolaketa eta funtzionamendua
- ilargiaren zikloak
- ekintzen, jardueren eta ekimenen iraupena
- egunaren eta astearen banaketa
- maiztasuna

## EKOSISTEMA 2: FAMILIA - IKASTOLA

### HAUR-ZAINTZAKO GUNEA (GOIZEZ / ARRATSALDEZ)

#### GUNE HONEN EZAUGARRIAK

- Etxetik ikastolarako eta ikastolatik etxerako zubi-lana egitea.
- Bideratu gabeko denbora-tartea; bai, ordea, girotu eta dinamizatu beharrekoa.

#### HELBURUAK

- Haurra zainduta egotea.
- Etxetik ikastolarako urratsa ahalik eta goxotasun handienarekin gauzatzea eta haurrak hurbiltasun afektiboa sentitzea.
- Norberaren nahi eta beharrak asetzeko, haurrari interesa piztuko dion testuingurua sortzea.
- Lagunarteko harreman-sarea euskaraz eraiki eta estutzea. Bertan erein daiteke, ikastolatik kanpo ere (demagun jolas-parkean, auzoan...) elkarrekin topo eginez gero, euskaraz aritzeko joera gidatuko duen hazia.
- Jolastea eta esperimintatzea.

#### ARDURADUNA

Hezitzailea

#### HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

#### ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK

Goizez, gune honetan izango du haurrak eguneko lehen harremana ikastolarekin. Etxetik erdara dakarten haurrekin euskararako zubia egiteko gune aproposa izan daiteke.

Arratsaldez, gela barruko "euskarazko jardunetik" gelaz kanpokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin edo hura arintze aldera, une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke. Familia erdaldunetan, jakina, hizkuntza-mudarik eman egingo dela, baina etxea ikastolaren "luzapen" izan dadin zenbait objektu gelatik etxera eramatea lagungarri izan daiteke (ipuniak, Argitxo, joko bat, egindako esku-lan bat...).

Gune honetan elkarrekintza euskaraz bideratzeko, lagungarri izango da beti hizkuntza-paisaia euskalduntzea: hormairudiak, hitzak, musika...

#### Hezitzailea-haurra

Jolas librearen gunea izanik ere, testuinguru soziolinguistikoaren arabera maila desberdinean, baina hezitzaileak jokatzen duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio.

Hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>25</sup>:

<sup>25</sup> Ikus dokumentu honetako 3.1.1.1 atala

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berri-suaren rola jokatzeari

### **Haurra-haurra**

Ikastola bakoitzak gune honi euskararen ezagutza eta erabilerarako aitortzen dion garrantziaren arabera, hezitzaileek esku-hartze jakinak egitea lehenetsiko du.

Horrela, une jakinetan, hizkuntza-portaeran eragiteko helburuz, esku-hartze jakinak egitea erabakitzen denetan, helburu lorgarriak definitzearekin batera, aurrekoek gainera, honako beste estrategia hauek ere balia daitezke<sup>26</sup>:

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

### **AISIA-EREDUA**

#### **Espazioa**

- zirkulazio librea
- txokokako planteamendua:
  - harrera gunea - Jolas gunea
  - arte plastikoak, gorputz-adierazpena, musika, irakurketa, jolas askea, lasaitze-txokoa...

#### **Pertsona**

- haurra - haurra → Harreman anitzak eta parekideak. Enpatia eta asertibitatea.
- haurra - gurasoa → Haurraren beharrak asetzetik ikastolarako trantsizioa zaintzea, egunerokoan une horri erreparatzea.
- haurra - heldua → Bidelagun. Hezitzaile dinamizatzaile hurbila. Balorizazioa. Epaiketarik ez. Giro hezitzailearen zaintzailea.
- hezitzailea - gurasoa → Harrera gunea (komunikazio/informazio une eta gunea), haurra erdigunean eta osasuna osotasunetik ulertuta.
- hezitzailea - irakaslea → Zaintzatik gelako trantsizioa, guraso-hezitzaile komunikazio esanguratsuen transmisioa eta hezitzailearen behaketatik jasotakoaren transmisioa (ebaluazioa).

#### **Objektua**

- Arte plastikoak, gorputz-adierazpena, musika, irakurketa, jolas askea, lasaitze-txokoa...

#### **Denbora**

- hasierako fasea (harrera, etxea/ikastola komunikazioa)
- garapen-fasea (norberak nahi duena)
- amaierako fasea (gelatik/etxera trantsizioa)

<sup>26</sup> Ikus dokumentu honetako 3.1.1.2 atala.

## FAMILIAK eta ASTEBURUAK

### EZAUGARRIAK

- Familientzako aholkularitza, sentsibilizazio edo formazio saioak bideratu: ikastola-ereduak sustatzen dituen balioak ezagutu eta haienganako atxikimendua lantzeko, hizkuntza-jarrerari buruz hausnartzeko, euskararen ezagutzan aurreratzeko, jolasaren balio hezitzaileaz ohartarazteko, komunikazio ez-bortitzaz jabetzeko...
- Familian asteburuaz gozatzeko jarduera proposamenak egin urte osoan zehar, gurasoen parte-hartzea sustatuz.
- Familia ezberdinen arteko harremanak sartzeko ekintza ludikoak bideratuko dira.

### HELBURUAK

- Barne-harremanak orekatuak izatea.
- Familia balio hezitzaile eta giro euskaldunean bizitzea.
- Familia erdaldunei euskaldunekin harreman-sarea eraikitzeak aukera ematea.
- Ludikotasuna familiaren bizitzan txertatua izatea.

### AISIA-EREDUA

#### Espazioa

- Etxea, barnea eta inguruak.
- Herriko espazio irekiak eta natura eremuak.
- Eremu estandarizatuak eta globalizatzaileak ekidin.

#### Pertsona

- Norbere familia.
- Beste familiak.
- Herriko elkarte/eragileak.
- Herritarrak.

#### Objektua

Euskararen erabilera sustatzeko ekintza ludikoak.

- Jolas motoreak.
- Arte-adierazpenak.
- Musika eta dantza.
- Material globalizatzaile eta homogenizatzaileak ekidin.

#### Denbora

- Eguneko etxe barruko jarduerak.
- Eguneko etxetik kanpoko jarduerak.
- Asteburuak eta jai egunak.
- Oporraldiak.

## EKOSISTEMA 3: GELA-BARRUA - KANPO-ESPAZIOA

### JOLAS-GARIAIA

#### EZAUGARRIAK

- Esperimentazio- eta deskubrimendu-espazioa.
- Espazioa-objetua harremana: ziurgabetasuna.
- Ikasleen autogestioan oinarritutako kudeaketa.
- Ikasleen edo ikasle-taldean ezaugarrien araberako aurre-prestaketa, diseinua eta antolaketa.

#### HELBURUA

- Norbere burua ezagutzeko, norbere nahi eta beharrak asetzeko eta besteekin harreman orekatuak izateko aukerak eskaintzen dituen testuinguruak sortzea.
- Jardun librean, lagunarteko harreman-sarea euskaraz eraikitzea eta estutzea. Bertan erein daiteke, ikastolatik kanpo ere (demagun jolas-parkean, auzoan...) elkarrekin topo eginez gero, euskaraz aritzeko joera gidatuko duen hazia.
- Jolastea eta esperimentatzea.

#### ARDURADUNA

Irakasleak (talde desberdinetakoak, laguntzaileak, praktiketakoak...)

#### HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

#### ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK

Gela barruko "euskarazko jardunetik" gelaz kanpokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin, une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

#### Irakaslea-ikaslea

Jolas librearen gunea izanik ere, testuinguru soziolinguistikoan arabera maila desberdinean, baina irakasleak jokatzen duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio.

Horretarako, irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntza-estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>27</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzea

Une jakinetan, hizkuntza-portaeran eragiteko helburuz, esku-hartze jakinak egitea erabakitzen denetan, helburu lorgarriak definitzearekin batera, aurrekoez gainera, honako

<sup>27</sup> Ikus 3.1.1.1. atala.



beste estrategia hauek ere balia daitezke<sup>28</sup>:

- irakaslea ekintzaren zentro izatea
- irakaslea ekintzaren parte izatea
- irakasleak ekintzatik kanpo egotea

### **Ikaslea-ikaslea**

Une jakinetan, beti ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatze aldera, ikasleen arteko elkarreraginean euskararen aldeko errefortzua bilatuz, besteak beste, ondoko esku-hartze hauen aukerak ere azter litezke:

- Adin eta hizkunta- tipologia desberdineko haurren arteko elkarreragina bultzatzeko moduak sustatzea. Horien bidez, hizkuntz gaitasun txikia dutenek gaitasun handiagoa dutenengandik ikasteko aukerak sortuko genituzke.
- Adinaren arabera, hainbat jolas, abesti, ... proposatu daitezke (bai hezitzailearen bidez, bai haur zaharragoen bidez kidetzeak eta antzerakoak antolatuz).
- Jolasak negoziazioa eskatzen duenez (jolasa hautatu, rolak banatu ...), negoziatio horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu beharko lirateke. Adibidez, hezitzaileek negoziatio horietatik eratorritako gatazken inguruko esku-hartzeak egingo balituzte, esku-hartze horiek hizkuntzaren ikuspegitik baliatzeko egokitasuna aztertu beharko litzateke.
- Hezitzaileek esku-hartzeren bat egingo balute, gorago aipatu ditugun andamiaje estrategien erabilera bermatzea komeni da, haurrak euskara ulertzeko eta hizkuntza horretan aritzeko baliabideak izan ditzan.

### **AISIALDI-EREDUA**

#### **Espazioa**

- Komunitateko kideen arteko komunikazio formaletik informalerako urratsa. Jolas-gunea(k) - komunikazio-gunea(k) - lasaitze/adierazpen-gune(a) - materialen gunea(k)

#### **Pertsona**

- haurra - arduren banaketa
- haurra - haurra: adin desberdineko ikasleen nahasketa. Ikasleen harremanaren araberako eta landu nahi diren balioen batuko antolaketa.
- haurra - heldua: begirale-rola, harreman osasuntsuen bideratzaile

#### **Objektua**

Materialen gela/armairua ikasleentzat eskuragarri egongo diren objektuen biltegia. Material-bloke ezberdinak antolatuko dira egun/aste bakoitzerako: ordu kurrikularretan zein etxean sorturiko materialez hornitu, naturalak birziklatuak edo berrerabiliak lehenetsiz.

- objektu naturalak
- natural moldatuak
- objektu birziklatuak

---

<sup>28</sup> Ikus 3.1.1.2. atala.

- erabilera sinboliko kulturala duten objektuak
- globalizatzaileak eta homogenizatzaileak

Ikasleen gain geratuko da materialaren kudeaketa, zaintza, kontrola...

Objektuen erabilera "logikoa" sahiestuko da.

### **Denbora**

Astekako planteamendua egin:

- Arduren banaketa
  - Ikasleak (objektuen kudeaketa)
  - Irakasleak (behaketa/zaintza)
- Espazioen banaketa (noiz/non/zein?)
  - Espazioen baitako objektuen banaketa. (noiz-non-zer?).

### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Jolas librean ari dela haurren hizkuntza-portaera eta sozializaio-moldea zein den behatzeko ere gunee aproposa da. Behaketa hori denboran sistematiza daiteke, esku-hartze eta helburu jakinen arabera:

- haurren harreman-sarean hizkuntzaren bilakaera nolakoa den ezagutzeko
- hizkuntza-gaikuntza zenbaterainokoa izaten ari den ebaluatzeko
- egin diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko
- egin daitezkeen esku-hartze berriak aurreikusteko

### **Zein alderi errepara dakioken:**

Hasierako behaketa:

- zein hizkuntza erabiltzen du norekin: zein haur jakinekin, bere irakaslearekin, jolas-garaian dagoen beste hezitzailearen batekin

Jarraipenekoak:

- euskara erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- gaztelera erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- hizkuntz kalitatea: hizkuntzaren garapenean progresiorik nabari den

## **BAZKAL OSTEA**

### **EZAUGARRIAK**

- Aisialdia + astialdi-proposamena: batetik, ekintza eta jarduera bideratuak; bestetik, modu auto-gestionatuan aritzeko aukera → Ikasleen HAUTUA.
- Programazioa: ludikotasuna oinarri duen proposamena. Ez errendimendua, teknifikazioa, disziplina-baitako garapena. Bai gozamena.
- Proposamenei balio hezitzaileak ekarri behar dituzte berekin.
- Zaintzaren kutsua ere badu une honek.

## HELBURUAK

- Bizi-esperientzia berriak izatea, perfil eta adin desberdineko ikasleen arteko harremanak saretzea eta talde-izaera landuko duten ekimenekin gozamina sentitzea.
- Aisialdiko hezitzaileen esku-hartzearen laguntzaz, elkarrekin egiten eta ekiten ikastea, talde-izaeran sakontzea eta kooperatibitatea sustatzea.
- Lagunarteko harreman-sarea euskaraz eraiki eta estutzea. Bertan erein daiteke, ikastolatik kanpo ere (demagun jolas-parkean, auzoan...) elkarrekin topo eginez gero, euskaraz aritzeko joera gidatuko duen hazia.
- Jolastea eta esperimintatzea.

## ARDURADUNA

Hezitzailea

## HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

## ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK

Gela barruko "euskarazko jardunetik" gelaz kanpokorako bidean hizkuntza-mudarik al baita eta arinena eman dadin, une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke. Horretarako, ikastolak lehentasunez jo behar du begiz esparru hau eta hala jakinarazi eta formazioa eskaini bertan parte hartzen duten hezitzaileei.

Elkarrekintza euskaraz bideratzeko lagungarri izango da beti hizkuntza-paisaia euskalduntzea: hormairudiak, mezuak, hitzak, musika...

### Hezitzailea-haurra

Jolas librearen gunea izanik ere, testuinguru soziolinguistikoaren arabera maila desberdinean, baina hezitzaileak jokatzeko duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio:

Hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>29</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzeko

### haurra-haurra

Une jakinetan, hizkuntza-portaeran eragiteko helburuz, esku-hartze jakinak egitea erabakitzen denetan, helburu lorgarriak definitzearekin batera, aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere balia daitezke<sup>30</sup>:

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

<sup>29</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>30</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

## **AISIA-EREDUA**

### **Espazioa**

- ikastolako barne- zein kanpo-espazioez gain, hurbil egon daitezkeen beste batzuk baliatu: parke, natur-eremuak, herriko plaza...
- ikastola1 → Gune auto-gestionatua, "materialaren kutxa".
- ikastola2 → Programazioa: elkarrekin eta elkarrentzat sortzen, eraikitzen eta eraldatzen.

### **Pertsona**

- haurra - haurra → Kooperazioa. Talde-jolasak. Sormena sustatzen duten egoerak.
- haurra - hezitzailea → Bidelagun. Hezitzaile dinamizatzaile hurbila. Balorizazioa. Epaiketak ez. Giro hezitzailearen zaintzailea.
- hezitzailea - jangelako langilea - irakaslea → Jangelatik gelarako trantsizioa, langile-hezitzaile-irakasle arteko ikaslearen jarraipena eta ebaluazioa. Adimen psiko/afektiboa eta soziala.

### **Objektua**

Material kutxa desberdinak antolatuko dira:

- objektu naturalak
- natural moldatuak
- objektu birziklatuak
- erabilera sinboliko kulturala duten objektuak
- globalizatzaileak eta homogenizatzaileak
- ohiko jolas/joko/kirol praktikak ez sustatzen ahalegindu, aniztasunari erantzun aberatsago eta justuago bat emateko:

Materialik gabeko eguna...edo antzeko planteamenduak egin tarteka.

### **Denbora**

- Bazkal ostean edo aurretik eskaini tarte hau (jangelako funtzionamenduak baldintzatuta)
- Denbora-tartearen iraupenaren baitan, egitarau anitza.
- Eguraldiaren baitan B plana prestatu.

## **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Ikastola bakoitzak gune honi euskararen ezagutza eta erabilerarako aitortzen dion garrantziaren arabera, hezitzaileek esku-hartze jakinak egitea lehenetsiko du. Kasu horietan, haurren hizkuntz portaera zein den behatzeko ere gune aproposa da.

**Behaketa hori denboran sistematiza daiteke**, esku-hartze eta helburu jakinen arabera:

- haurren harreman-sarean hizkuntzaren bilakaera nolakoa den ezagutzeko
- hizkuntza-gaikuntza zenbaterainokoa izaten ari den ebaluatzeko
- egin diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko
- egin daitezkeen esku-hartze berriak aurreikusteko

### **Zein alderi errepara dakioken:**

Hasierako beharketa:

- zein hizkuntza erabiltzen du norekin: zein haur jakinekin, bere irakaslearekin, jolas-garaian dagoen beste hezitzailearen batekin

Jarraipeneko:

- euskara erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- gaztelera erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?

- hizkuntza-kalitatea: komunikatzeko gaitasunean progresiorik nabari den

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (EKE)

### EZAUGARRIAK

- Programazio anitza, aberatsa eta hezitzailea.
- Lehiaren erabilera hezitzailea: Jolas askea (0<) - Jolasa (6<) - Jokoa (8<)
- Adierazpen tradizioaletatik, esperimenezkoa eta sormenera.
- Haur-gazte-heldu-guraso elkarrekin gozatzeko ekintza eta jardueren programazioa.

### HELBURUAK

- Prozesuan zehar gozamina sentitzea lehenetsiko da edozein emaitzaren aurretik.
- Euskararen ezagutza eta erabilera eta euskal kulturaren transmisiorako baliatuko da.

### ARDURADUNA

Hezitzaileak eta horiek kudeatzen dituzten ikastolako arduradunak; Zirimola...

### HIZKUNTZA-KALITATEA

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK

Gela barruko "euskarazko jardunetik" gelaz kanporako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin, une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

### Hezitzailea-ikaslea

Jolas librearen gunea izanik ere, testuinguru soziolinguistikoaren arabera maila desberdinean, baina irakasleak jokatzen duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio.

Horretarako, irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntza-estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>31</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berriaren rola jokatzea

Une jakinetan, hizkuntza-portaeran eragiteko helburuz, esku-hartze jakinak egitea erabakitzen denetan, helburu lorgarriak definitzearekin batera, aurrekoek gainera, honako beste estrategia hauek ere baliatu daitezke<sup>32</sup>:

- irakaslea ekintzaren zentro izatea
- irakaslea ekintzaren parte izatea
- irakasleak ekintzatik kanpo egotea

<sup>31</sup> Ikus 3.1.1.1. atala.

<sup>32</sup> Ikus 3.1.1.2. atala.

## **Ikaslea-ikaslea**

Une jakinetan, beti ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatze aldera, ikasleen arteko elkarreraginean euskararen aldeko errefortzua bilatuz, besteak beste, ondoko esku-hartze hauen aukerak ere azter litezke:

- Adin eta hizkunta- tipologia desberdineko haurren arteko elkarreragina bultzatzeko moduak sustatzea. Horien bidez, hizkuntz gaitasun txikia dutenek gaitasun handiagoa dutenengandik ikasteko aukerak sortuko genituzke.
- Adinaren arabera, hainbat jolas, abesti, ... proposatu daitezke (bai hezitzailearen bidez, bai haur zaharragoen bidez kidezkoak eta antzerakoak antolatuz).
- Jolasak negoziazioa eskatzen duenez (jolasa hautatu, rolak banatu ...), negoziatio horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu beharko lirateke. Adibidez, hezitzaileek negoziatio horietatik eratorritako gatazken inguruko esku-hartzeak egingo balituzte, esku-hartze horiek hizkuntzaren ikuspegitik baliatzeko egokitasuna aztertu beharko litzateke.
- Hezitzaileek esku-hartzeren bat egingo balute, gorago aipatu ditugun andamiaje estrategien erabilera bermatzea komeni da, haurrak euskara ulertzeko eta hizkuntza horretan aritzeko baliabideak izan ditzan.

## **AISIA-EREDUA**

### **Espazioa**

- Herriko eremu anitzen erabilera, natur-guneak lehenetsiz.
- Espazio eta objektu naturalen presentzia nabarmena.

### **Pertsona**

- haurra - haurra → Berdinen arteko harremanak, adin nahasketak. Bakarka aritzetik taldean aritzera.
- haurra - gurasoa → Elkarrekin gozatzetik elkar maitatzera. Lotura afektiboa.
- Haur/gazte - heldu → Erreferentziazko harremana. Hurbiltasun afektiboaren kudeaketak garrantzia berezia. Eredugarri portaera eta hizkuntzaren erabileratik.
- hezitzailea - hezitzailea → Talde-lana, koordinazioa, prestaketa, komunitate proiektua.
- hezitzailea - gurasoa (ikasle ohi, aiton-amonak...) → Haurra erdigunean, kide pasibo izatetik aktibo izaterako ibilbidea. Hilean behin jardunaldiak, topaketak, jaialdiak...haurrak/gazteak/helduak nahasiz jolastu elkarrekin.
- hezitzailea - irakaslea → Haurraren garapen integrala erdigunean, ikasleen gaineko jarraipena eta lotura bermatu behar.
- hezitzailea - elkartea → Herriko eragile eta elkarrekin elkarlana, kooperazioa. Tokian tokitik eskualdera, lurraldera, Euskal Herrira eta mundurako ibilbidea.

### **Objektua**

- Tokian-tokiko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikoetatik munduko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikotarako ibilbidea.
- Kirol hegemoniko eta globalizatzaileak saihestu.
- Aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzen duen programazioa eta sekuentzializazioa: genero, kultura, etnia, erlijio, sexualitate, sexu, aniztasun funtzional... Jarduera fisikoa (mugimendua)

### **Denbora**

- Herriko kultur ondare eta jai-ospakizunetikiko lotura.
- Garaian garaiko programazioa.

- Asteburu oro orde, bi astetik behin jardunaldiak eta hilabete behin edo hiruhilabete behin familia planak: haur, ume, gazte, guraso, ikasle-ohi, aiton-amonak... elkarrekin! → herriko kultur agendarekin lotura.

### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Ikastola bakoitzak gune honi euskararen ezagutza eta erabilerarako aitortzen dion garrantziaren arabera, hezitzaileek esku-hartze jakinak egitea lehenetsiko du. Kasu horietan, haurren hizkuntz portaera zein den behatzeko ere gune aproposa da.

**Behaketa hori denboran sistematiza daiteke**, esku-hartze eta helburu jakinen arabera:

- haurren harreman-sarean hizkuntzaren bilakaera nolakoa den ezagutzeko
- hizkuntza-gaikuntza zenbaterainokoa izaten ari den ebaluatzen
- egin diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzen
- egin daitezkeen esku-hartze berriak aurreikusteko

**Zein alderi errepara dakioken:**

Hasierako behaketa:

- zein hizkuntza erabiltzen du norekin: zein haur jakinekin, bere irakaslearekin, jolas-garaian dagoen beste hezitzailearen batekin

Jarraipeneko:

- euskara erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- gaztelera erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- hizkuntza-kalitatea: komunikatzeko gaitasunean progresiorik nabari den.

## **ATERALDIAK eta EGONALDIAK**

### **EZAUGARRIAK**

- Gela barruan landutako gaien zein edukiei bibentzialtasuna gehituko diegu. Gela barruan egindakoa baliagarria eta beharrezkoa dela senti dezaten.
- Tokian tokiko ondasun kultural, natural eta historikoa ezagutzeko parada.
- Natura-esparruekiko harremana eta lotura lantzea.
- Ikasleen parte-hartzea erdigunean, ekintzak burutzetik ekintzak proposatu, adostu eta gauzatzera.

### **HELBURUAK**

- Ikasleak aisialdirako izan behar duten heziketaren bidez, euren aisialdian ahalduntzea eta
- talde-dinamika kooperatiboaren bidez jarduerak bera burutzeak dakarren gozamenaren sentitu eta baloratzea.
- Komunitate bateko kide onartu, errespetatu eta baloratua sentitzea, talde bateko kide izateak dakarren motibazioarekin eta pertenezia sentimenduekin.

### **AISIA-EREDUA**

#### **Espazioa**

- Kokapen geografiko, historiko eta kultural ezberdinak.
- Natur-espazioak. Ingurumenarekiko atxikimendua, ekologia baliotzat sentitzea.

#### **Pertsona**

- haurra - haurra → Parte-hartze maila altua. Norberak proposatzen duenetik, taldean eztabaidatu, adostu eta besteekin batera aritzera ibilbidea.

- haurra - heldua → Erreferentziatzko harremana. Hurbiltasun afektiboaren kudeaketak garrantzia berezia. Eredugarri portaera eta hizkuntzaren erabileratik.
- hezitzailea - hezitzailea → Talde-lana, koordinazioa, prestaketa, komunitate-proiektua.
- hezitzailea - gurasoa (ikasle ohi, aiton-amonak...) → Haurra erdigunean, kide pasibo izatetik aktibo izatera ibilbidea. Esperientziak partekatu eta hurbileko erreferenteen presentzia.
- hezitzailea - Irakaslea → Haurraren garapen integrala erdigunean, ikasleen gaineko jarraipena eta lotura bermatu behar: Ahalik eta esku hartze egokienak.
- hezitzailea - elkarte → Herriko eragile eta elkarrekin elkarlana, kooperazioa. Tokian tokitik eskualdera, lurraldera, Euskal Herrira eta mundurako ibilbidea.

#### **Objektua**

- Mugimendurako gogoia piztu behar egoera ezberdinekin.
- Harreman-sarea zabaltzea probokatu behar dute.

#### **Denbora**

- Programazioan eta zereginetan antolaketa autogestionatua sustatu (aurre-prestaketa baten ondotik).
- Aldi berean, lurralde desberdinetako ikastolen arteko elkarguneak izatea sustatzea.

#### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Ikastola bakoitzak gune honi euskararen ezagutza eta erabilerarako aitortzen dion garrantziaren arabera, hezitzaileek esku-hartze jakinak egitea lehenetsiko du. Kasu horietan, haurraren hizkuntz portaera zein den behatzeko ere gune aproposa da.

**Behaketa hori denboran sistematiza daiteke**, esku-hartze eta helburu jakinen arabera:

- haurren harreman-sarean hizkuntzaren bilakaera nolakoa den ezagutzeko
- hizkuntza-gaikuntza zenbaterainokoa izaten ari den ebaluatzeko
- egin diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko
- egin daitezkeen esku-hartze berriak aurreikusteko

#### **Zein alderi errepara dakioken:**

Hasierako behaketa:

- zein hizkuntza erabiltzen du norekin: zein haur jakinekin, bere irakaslearekin, jolas-garaian dagoen beste hezitzailearen batekin

Jarraipeneko:

- euskara erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- gaztelera erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- hizkuntza-kalitatea: komunikatzeko gaitasunean progresiorik nabari den.

## **FESTA-GIROKO OSPAKIZUNAK**

#### **GUNE HONEN HELBURUA ETA EZAUGARRIAK**

- Gune oso egokia da lagunarteko harreman-sarea euskaraz eraiki eta estutzeko. Bertan erein daiteke, ikastolatik kanpo ere (demagun jolas-parkean, auzoan...)



elkarrekin topo eginez gero, euskaraz aritzeko joera gidatuko duen hazia.

- Euskal kulturen errotuta dauden usadioak transmititzea (jaiak, musika, dantzak..).
- Festa-giro alaia eta bizipen indartsuak izatea.

### **ARDURADUNA**

Irakaslea (eta kasu askotan baita hezitzaileak ere)

### **HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Gela barruko “euskarazko errutinazko jardueratik” gelaz kanpoko eta festa-girokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin eta, gainera, euskararekiko atxikimendua indartzeko baliagarri izan daitezen une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

### **HEZITZAILEA - HAURRA**

Une edo egun jakin batean festa bizitzea helburua izanik, aurretik prestakuntza eta girotze luzea eskatu ohi duen jarduna izan ohi da. Testuinguru soziolinguistikoen arabera maila desberdinean, baina irakasleak eta hezitzaileak jokatzen duten rola eta haien hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio.

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>33</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzea

### **HAURRA - HAURRA**

Dena delako festaren prestakuntza-jardunean ari direla haurrak euren artean, irakaske eta hezitzaileek esku-har dezakete ahurren jardunean euskararen erabilera areagotze aldera.

Aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere balia daitezke<sup>34</sup>:

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

## **EKOSISTEMA 4: IKASTOLA - HERRIA**

### **UDALEKU IREKI ETA ITXIAK**

#### **GUNE HONEN HELBURUA ETA EZAUGARRIAK**

- Opor garaiko eskaintza hezitzailea.
- Jardun librean, lagunarteko harreman-sarea euskaraz eraitzea eta estutzea.

<sup>33</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>34</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

Bertan erein daiteke, ikastolatik kanpo ere (demagun jolas-parkean, auzoan...) elkarrekin topo eginez gero, euskaraz aritzeko joera gidatuko duen hazia.

- Jolastea eta esperimendatea.
- Festa-giroko bizipenak izatea.

### **ARDURADUNA**

Hezitzaileak eta horiek kudeatzen dituen ikastolako arduraduna, Zirimola edo beste erakunderen bat.

### **HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Jokoa eta jolasa erdigunean dituen esparrua da eta haurren arteko eta heldu (hezitzailea) eta haurraren arteko harreman estuak aukera handia eskaintzen du euskararen ezagutzan eta erabileran sistematikoki eragiteko.

Elkarrekintza euskaraz bideratzeko lagungarri izango da beti hizkuntza-paisaia euskalduntzea: hormairudiak, hitzak, musika...

### **Irakaslea-ikaslea**

Jolas libre eta, batez ere, antolatuaren gunea izanik, testuinguru soziolinguistikoen arabera maila desberdinean, baina irakasleak jokatzen duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio:

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>35</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzea

Jolas antolatuetan, euskararen ezagutzan eta erabileran eragitea helburu jarri bada, ondoko estrategiak era sistematizatu eta mailakatuan erabiltzea guztiz eraginkorra izan daiteke<sup>36</sup>.

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

### **Ikaslea-ikaslea**

Une jakinetan, beti ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatze aldera, ikasleen arteko elkarreraginean euskararen aldeko errefortzua bilatuz, besteak beste, ondoko esku-hartze hauek ere baliagarriak dira:

- Adin eta hizkuntz tipologia desberdineko haurren arteko interakzioa bultzatzeko moduak sustatzea eta txandakatzea. Interakzio horien bidez, hizkuntz gaitasun txikia dutenek gaitasun handiagoa dutenengandik ikasteko aukerak sortuko

<sup>35</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>36</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

genituzke. Edo, hizkuntz gaitasunaren arabera talde homogeneousagoak eginda, euskaraz aritzeko gaitasuna duten ikasleen jarduna indartzekoa.

- Adinaren arabera, hainbat jolas, abesti, ... proposatu daitezke (bai hezitzailearen bidez, bai haur zaharragoen bidez kidetzeak eta antzerakoak antolatuz).
- Jolasak negoziazioa eskatzen duenez (jolasa hautatu, rolak banatu ...), negoziazio horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu beharko lirateke. Adibidez, hezitzaileek negoziazio horietatik eratorritako gatazken inguruko esku-hartzeak egingo balituzte, esku-hartze horiek hizkuntzaren ikuspegitik baliatzeko egokitasuna aztertu beharko litzateke.
- Hezitzaileek esku-hartzeren bat egingo balute, gorago aipatu ditugun andamiaje estrategien erabilera bermatzea komeni da, haurrak euskara ulertzeko eta hizkuntza horretan aritzeko baliabideak izan ditzan.

### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Gune hau haurraren hizkuntza-portaera zein den behatzeko ere gune aproposa da. Zerbitzua eskaintzan ari den ikastolak, besteak beste, euskarari ekarpena egiteko zerbitzu bezala definitua badu, goiko atalean aipatu estrategiak sistematikoki aplikatzea bideratzearekin batera (aurrez hezitzaileei zentzu horretan formazioa eskainiz), zerbitzuari loturiko helburuen betetze-mailari jarraipen zehatza egingo dio. Halakoetan, hizkuntza-helburu mailakatuak ere txertatu beharko dira eta haiei jarraipena egin. Horretarako, lehenik eta behin, udalekuen hasieran haurrek duten hizkuntza-portaerari buruzko diagnostia egin beharko da eta, ondotik, helburu mailakatuak zehaztu. Egitasmoak irauten duen bitartean, helburu horien jarraipen sistematizatu egin eta, aldiari aldi, haiek egokitu. (ikus Hizkuntz portaeran eragiteko estrategiak eta helburu mailakatuak)

**Behaketa hori denboran sistematiza daiteke**, esku-hartze eta helburu jakinen arabera:

- haurren harreman sarean hizkuntzaren bilakaera nolakoa den ezagutzeko
- hizkuntz gaikuntza zenbaterainokoa izaten ari den ebaluatzeko
- egin diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko
- egin daitezkeen esku-hartze berriak aurreikusteko

**Zein alderi errepara dakioken:**

Hasierako behaketa:

- zein hizkuntza erabiltzen du norekin: zein haur jakinekin, bere hezitzailearekin, beste hezitzailearen batekin

Jarraipenekoak:

- euskara erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- gaztelera erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- hizkuntza-kalitatea: hizkuntzaren garapenean progresiorik nabari den

## **HERRIKO AISIALDI MAHAIA**

### **EZAUGARRIAK**

- Hezkuntza komunitatetik herrirako zubiak eraikitzeko, finkatzeko eta

egonkortzeko beharra dago zenbait helburu jorratzeko: herrian zer-nolako aisia nahi dugun, zein aisialdi dugun, zer dugun faltan...

- Horretaz arduratuko den talde-eragile kritikoa, eraldatzailea eta prokomuna izatea ezinbestekoa da eta hor ekarpen garrantzitsua egin dezake ikastolak.

### **HELBURUAK**

- Herritik eta herriarentzat, aisialdirako une eta gunee integral eta publiko bizi bat eratzea.
- Adin-tarte ezberdin guztientzako herriko aisialdirako ekimenak eta jarduerak bideratzeko bitartekoak eta baliabideak lortzea.
- Ikastolak herrian gehiago integratzea.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisioari buruzko kezka eta ardura herrian hedatzea.

### **AISIALDI-EREDUA**

#### **Espazioa**

- Herriko aisialdi-mahaia → Elkarrekintza, antolaketa, koordinazioa eta kudeaketa.

#### **Pertsona**

- Hezkuntza komunitateko kideen ordezkaritza (haur, gazte, irakasle, hezitzaile, guraso)
- Herriko aisialdi elkarte eta eragileak (ludoteka, elkarteak...)
- Herriko udal-ordezkaritza (udal-teknikari eta zinegotziak)

#### **Objektua**

- Tokian-tokiko jolas/joko, dantza, musika, adierazpen artistikoetatik munduko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikotarako ibilbidea.
- Kirol hegemoniko eta globalizatzaileak saihestu.
- Komunitatea kohesionatzeko: aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzen duten ekimenak eta jarduerak:
  - Jarduera fisikoa (mugimendua + gogoia) sustatzen duten ekintzak.

#### **Denbora**

- Herriko egutegi ludikoa (jaiak, ospakizunak...) elkarrekin eraiki.
- Familiar astialdiaz gozatzeko aukerak (ikastaroak, hitzaldiak, jarduerak...) eskaini:
  - Eguneko etxe barruko jarduerak
  - Eguneko etxetik kanpoko jarduerak
  - Asteburuak eta jai egunak
  - Oporraldiak
- Lagunartean astialdiaz gozatzeko aukerak (ekintzak, jarduerak, ikastaroak...)
- Eguneko jarduerak herriko azpiegutaratan.
- Eguneko kanpoko jarduerak herriko gunee anitzetan.
- Asteburuak eta jai egunak
- Oporraldiak

## DBH/BM

Etaparen honetako ikasleek aurreko etapetako ikasleek dituzten aisialdirako gune eta une bertsuak dituzte eta aurrez aipatu helburu berei egiten diete ekarpena. Adinekin nerabe diren ikasle hauek, ordea, indar bereziz bizi ohi dituzte aisia-ekimen horiek eta egiten diren esku-hartzeak, baldin eta aurreko ikasturteetan egindakoekin koherentziarik gordez gero, helburuen lorpenean emaitza bikainak izan ohi dituzte. Izan ere, nerabezaroak aisia-esperientziak intentsitate bereziz bizitzera eramaten baititu. Ludikotasuna gozamen-iturri garrantzitsu bihurtu ohi da adin honetan.

Bigarren zikloan, batik bat, ordura bitartean ezkutuagoan egon den joena ere nagusitzen da ikasleen artean: antolaketa-egitekoetan inplikatu nahia. Etapa honetako ikasleek, Batxilerreko ikasle helduagoen "gidaritzapean" eta Euskaraz Biziko ordezkarien inplikazioarekin gustura hartzen dute parte eskaintzak ideiatzen eta haien inplementazioa gidatzen. Bereziki gogotsu aritzen dira HH/AI eta LH/LMko ikasleekin kide-tze-modura bideratzen diren ekimenetan eta, halakoetan, gazteagoen eredu bihurtzearekin batera, euren buruaren portaeraz kontzientzia hartzeko balio izaten die bai aisia-ereduari bai hizkuntza-jarrerari dagokienez.

## EKOSISTEMA 1: PERTSONA

PERTSONA - NORBERA
<p><b>EZAUGARRIAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● Pertsonen garapena inteligentzia anitza eskuratzetik datorrela jabetzea.</li><li>● Pertsonaren barne-motibazioa piztea komunitatean kooperatiboki jarduteko.</li></ul>
<p><b>HELBURUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● Pertsonaren garapen integrala lortzea.</li><li>● Beste ekosistemetatik jasotako ekarpenetatik "Pertsona ekosistema" osotasunean garatzea.</li><li>● Pertsonaren esparru autotelikoa ahalik eta gehien zabaltzea.</li><li>● Eredu ez-formalean euskaraz aritzeko ohitura errotzea.</li></ul>
<p><b>AISIA-EREDUA</b></p> <p><b>Espazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● Natur eremuak (mendia, basoak, belardiak, parkeak, zuhaiztiak...)</li><li>● Herriko eremu irekiak (plaza, eskailerak, aldapak...)</li><li>● Herriko eremu itxiak (kultur etxea, gaztetxea, kirol-instalakuntzak...)</li><li>● Ikastola</li></ul>
<p><b>Pertsona</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● autonomia eta parte-hartzea.</li><li>● auto-kontzeptua eta auto estimua</li><li>● balio hezitzaileak<ul style="list-style-type: none"><li>○ aukera berdintasuna - parekidetasuna</li><li>○ inklusioa - aniztasuna</li><li>○ kulturartekotasuna</li></ul></li></ul>

- asertibitatea eta enpatia

### **Objektua**

#### **Material aniztasuna**

- joko aske eta bideratua - kirola
- lehiaren erabilera hezitzailea
- tokian tokiko jolas eta jokoetatik munduko jolas eta jokoetarako ibilbidea

#### **Denbora**

- urtaroen ezaugarrien (eguraldia, tenperatura...) baitako antolaketa eta funtzionamendua
- ilargiaren zikloak
- ekintzen, jardueren eta ekimenen iraupena
- egunaren eta astearen banaketa
- maiztasuna

## **EKOSISTEMA 2: GELA-BARRUA - KANPO-ESPAZIOA**

### **JOLAS-GARIAIA**

#### **EZAUGARRIAK**

- Ikasleen edo ikasle-taldeen ezaugarrien araberako aurre-prestaketa, diseinua eta antolaketa bidera daiteke une jakinetan.
- Ikasleen autogestioan oinarritutako kudeaketa, EBko ikasleak eragile.
- Haur gazteagoei begirako kidetzeak antola daitezke tarteka.

#### **HELBURUA**

- Jardun librean, lagunarteko harreman-sarea euskaraz elikatzen jarraitzea, indartzea eta, zenbait kasutan, eraikitzea eta estutzea.

#### **ARDURADUNA**

Irakasleak eta EBko ikasle-ordezkarriak.

#### **HIZKUNTZA-KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntz erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

#### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Euskaraz Biziko arduradun helduak dinamizazio-lanetan ariko diren ikasleak hezi egin behar ditu estrategia hauetan.

Gela barruko "euskarazko jardunetik" gelaz kanpokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin edo al bait arinena izan dadin, une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke. Ikasleen adian aintzat hartuta, eurekin batera antolatu ekimenak.

#### **Irakaslea-ikaslea**

Jolas librearen gunea izanik ere, testuinguru soziolinguistikoaren arabera maila desberdinean, baina irakasleak jokatzen duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz

erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio.

Horretarako, irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntza-estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>37</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzeko

Une jakinetan, hizkuntz portaeran eragiteko helburuz, esku-hartze jakinak egitea erabakitzen denetan, helburu lorgarriak definitzearekin batera, aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere baliatu daitezke<sup>38</sup>:

- irakaslea ekintzaren zentro izatea
- irakaslea ekintzaren parte izatea
- irakasleak ekintzatik kanpo egotea

### **Ikaslea-ikaslea**

Une jakinetan, beti ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatze aldera, ikasleen arteko elkarreraginean euskararen aldeko errefortzua bilatuz, besteak beste, ondoko esku-hartze hauen aukerak ere azter litezke:

- Adin eta hizkuntza-tipologia desberdineko haurren arteko elkarreragina bultzatzeko moduak sustatzea. Horien bidez, hizkuntz gaitasun txikia dutenek gaitasun handiagoa dutenengandik ikasteko aukerak sortuko genituzke.
- Adinaren arabera, hainbat jolas, abesti, ... proposatu daitezke (bai hezitzailearen bidez, bai haur zaharragoen bidez kideak eta antzerakoak antolatuz).
- Jolasak negoziazioa eskatzen duenez (jolasak hautatu, rolak banatu ...), negoziatio horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu beharko lirateke. Adibidez, hezitzaileek negoziatio horietatik eratorritako gatazken inguruko esku-hartzeak egingo balituzte, esku-hartze horiek hizkuntzaren ikuspegitik baliatzeko egokitasuna aztertu beharko litzateke.
- Hezitzaileek esku-hartzeren bat egingo balute, gorago aipatu ditugun andamiaje estrategien erabilera bermatzea komeni da, haurrak euskara ulertzeko eta hizkuntza horretan aritzeko baliabideak izan ditzan.

### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Hiztun-neurketak egiteko gune aproposa. EBko ordezkariak jarri egiteko horretan.

## **FESTA-GIROKO OSPAKIZUNAK**

### **GUNE HONEN HELBURUA ETA EZAUGARRIAK**

- Gune oso egokia da lagunarteko **harreman-sarea indartzeko, euskaraz eraiki eta estutzeko.**

<sup>37</sup> Ikusi 3.1.1.1. atala

<sup>38</sup> Ikusi 3.1.1.2.

- Euskal kulturaren errotuta dauden usadioak transmititzea (jaiak, musika, dantzak..).
- Festa-giroa alai eta bizipen indartsuak izatea eta ikastolarekiko atxikimendua lantzea

### **ARDURADUNA**

Irakaslea eta EBko ordezkariak (kasu askotan baita hezitzaileak ere).

### **HIZKUNTZA KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntza-erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Gela barruko "euskarazko errutinazko jardueratik" gelaz kanpoko eta festa-girokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin eta, gainera, euskararekiko atxikimendua indartzeko baliagarri izan daitezen une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

### **Irakaslea/hezitzailea - nerabea**

Une edo egun jakin batean festa bizitzea helburua izanik, aurretik prestakuntza eta girotze luzea eskatu ohi duen jarduna izan ohi da. Testuinguru soziolinguistikoen arabera maila desberdinean, baina irakasleak eta hezitzaileak jokatzen duten rola eta haien hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badiot:

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntza-estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>39</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berriaren rola jokatzea

### **Nerabea - nerabea**

Dena delako festaren prestakuntza-jardunean ari direla haurrak euren artean, irakaske eta hezitzaileek esku-har dezakete ahurren jardunean euskararen erabilera areagotze aldera. Aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere baliatu daitezke<sup>40</sup>:

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

<sup>39</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>40</sup> Ikus 3.1.1.2. atala



## EKE

### EZAUGARRIAK

- Programazio anitza, aberatsa eta hezitzailea.
- Lehiaren erabilera hezitzailea: Kirola (12<)
- Adierazpen tradizioaletatik, esperimentaziora eta sormenera.

### HELBURUAK

- Prozesuan zehar gozamina sentitzea lehenetsiko da edozein emaitzaren aurretik.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa.

### ARDURADUNA

Hezitzaileak eta horiek kudeatzen dituen ikastolako arduraduna.

### HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntza-erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK

Gela barruko "euskarazko errutinazko jardueratik" gelaz kanpoko eta festa-girokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin eta, gainera, euskararekiko atxikimendua indartzeko baliagarri izan daitezen une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

### Irakaslea/hezitzailea - nerabea

Une edo egun jakin batean festa bizitza helburua izanik, aurretik prestakuntza eta girotze luzea eskatu ohi duen jarduna izan ohi da. Testuinguru soziolinguistikoen arabera maila desberdinean, baina irakasleak eta hezitzaileak jokatzen duten rola eta haien hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio:

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>41</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzea

### Nerabea - nerabea

Dena delako festaren prestakuntza-jardunean ari direla haurrak euren artean, irakaske eta hezitzaileek esku-har dezakete ahurren jardunean euskararen erabilera areagotze aldera. Aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere balia daitezke<sup>42</sup>:

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

### BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA DA

Ikastolak egiten duen planifikazioaren eta hizkuntza-portaeran eragiteko ahaleginaren

<sup>41</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>42</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

baitan, egokia izan daiteke nerabeek duten hizkuntza-portaeraren jarraipena egitea eta egiten den ahaleginaren eragina neurtzea.

## **AISIA-EREDUA**

### **Espazioa**

- Herriko eremu anitzen erabilera, natur-guneak lehenetsiz.
- Espazio eta objektu naturalen presentzia nabarmena.

### **Pertsona**

- nerabea - nerabea → Berdinen arteko harremanak, adin nahasketak. Bakarka arizetik taldean aritzera.
- nerabea - heldua → Erreferentziazko harremana. Hurbiltasun afektiboaren kudeaketak garrantzia berezia. Eredugarri portaera eta hizkuntzaren erabileratik.
- hezitzailea - hezitzailea → Talde-lana, koordinazioa, prestaketa, komunitate proiektua.
- hezitzailea - Irakaslea → Gaztearen garapen integrala erdigunean, ikasleen gaineko jarraipena eta lotura bermatu behar.
- Hezitzaile - Elkarte → Herriko eragile eta elkarteekin elkarlana, kooperazioa. Tokian tokitik eskualde, lurralde, Euskal Herria eta mundura ibilbidea.

### **Objektua**

- Tokian-tokiko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikoetatik munduko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikotarako ibilbidea.
- Kirol hegemoniko eta globalizatzaileak saihestu.
- Aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzen duen programazioa eta sekuentzializazioa: genero, kultura, etnia, erlijio, sexualitate, sexu, aniztasun funtzional... Jarduera fisikoa (mugimendua)

### **Denbora**

- Herriko kultur ondare eta jai-ospakizunetikiko lotura.
- Garaian garaiko programazioa.
- Herriko kultur agendarekin lotura.

## IRTEERAK ETA EGONALDIAK

### EZAUGARRIAK

- Gela barruan landutako gaiei zein edukiei bibentzialtasuna gehituko diegu, gela barruan egindakoa baliagarria eta beharrezkoa dela senti dezaten.
- Tokian-tokiko natura-esparruak, ondasun kultural eta historikoa ezagutzeko parada.
- Ikasleen parte-hartzea erdigunean, ekintzak burutzetik ekintzak proposatu, adostu eta gauzatzera.

### HELBURUAK

- Ikasleak aisialdirako izan behar duten heziketaren bidez, euren aisialdian ahalduntzea eta talde-dinamika kooperatiboen bidez jarduera bera burutzeak dakarren gozamina sentitu eta baloratzea.
- Komunitate bateko kide onartu, errespetatu eta baloratu sentitzea, talde bateko kide izateak dakarren motibazioarekin eta pertenezia sentimenduarekin.

### ARDURADUNA

Irakaslea eta EBko ordezkariak (kasu askotan baita hezitzaileak ere).

### HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntza-erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK

Gela barruko “euskarazko errutinazko jardueratik” gelaz kanpoko eta festa-girokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin eta, gainera, euskararekiko atxikimendua indartzeko baliagarri izan daitezen une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

### Irakaslea/hezitzailea - nerabea

Une edo egun jakin batean festa bizitzea helburua izanik, aurretik prestakuntza eta girotze luzea eskatu ohi duen jarduna izan ohi da. Testuinguru soziolinguistikoen arabera maila desberdinean, baina irakasleak eta hezitzaileak jokatzen duten rola eta haien hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio:

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>43</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berri-suaren rola jokatzea

### Nerabea - nerabea

Dena delako festaren prestakuntza-jardunean ari direla haurrak euren artean, irakaske eta hezitzaileek esku-har dezakete ahurren jardunean euskararen erabilera areagotze aldera. Aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere baliatu daitezke<sup>44</sup>:

<sup>43</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>44</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

## **AISIA-EREDUA**

### **Espazioa**

- Kokapen geografiko, historiko eta kultural ezberdinak.
- Natur-espazioak: ingurumenarekiko atxikimendua, ekologia balioztat sentitzea.

### **Pertsona**

- nerabea - nerabea → Parte-hartze maila altua. Norberak proposatzen duenetik, taldean eztabaidatu, adostu eta besteekin batera aritzera ibilbidea.
- nerabea - heldua → Erreferentziazko harremana. Hurbiltasun afektiboaren kudeaketak garrantzia berezia. Eredugarri portaera eta hizkuntzaren erabileratik.
- hezitzailea - hezitzailea → Talde-lana, koordinazioa, prestaketa, komunitate-proiektua.
- hezitzailea - irakasle → Nerabearen garapen integrala erdigunean, ikasleen gaineko jarraipena eta lotura bermatu behar: Ahalik eta esku-hartze egokienak.
- hezitzailea - elkarte → Herriko eragile eta elkarteekin elkarlana, kooperazioa. Tokian tokitik eskualdera, lurraldera, Euskal Herriara eta mundurako ibilbidea.

### **Objektua**

- Mugimendurako gogoia piztu behar egoera ezberdinekin.
- Harreman-sarea zabaltzea probokatu behar dute.

### **Denbora**

- Programazioan eta zereginetan antolaketa autogestionatua sustatu (aurre-prestaketa baten ondotik).
- Aldi berean ikastola ezberdinen arteko elkarguneak izatea.

## **EKOSISTEMA 3:**

### **UDALEKUAK**

#### **GUNE HONEN HELBURU ETA EZAUGARRIAK**

- Opor garaiko eskaintza hezitzailea.
- Jardun librean, lagunarteko harreman-sarea euskaraz indartzea, eraitzea eta estutzea. Bertan erein daiteke edo indartu harreman librean, euskaraz aritzeko joera gidatuko duen hazia.
- Jarduera ludiko eta hezitzaileak.
- Festa-giroko bizipenak izatea.
- Euskal kulturaren transmisioa.

#### **ARDURADUNA**

Hezitzaileak eta horiek kudeatzen dituen ikastolako heldua edo Zirimola.

## **HIZKUNTZA-KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntza-erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Jokoa eta jolasa erdigunean dituen esparrua da eta haurren arteko eta heldu (hezitzailea) eta haurraren arteko harreman estuak aukera handia eskaintzen du euskararen ezagutzan eta erabileran eragiteko.

Elkarrekintza euskaraz bideratzeko lagungarri izango da beti hizkuntza-paisaia euskalduntzea: hormairudiak, hitzak, musika...

#### **Hezitzailea - ikaslea**

Jolas libre eta, batez ere, antolatuaren gunea izanik, testuinguru soziolinguistikoaren arabera maila desberdinean, baina irakasleak jokatzen duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio:

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>45</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berriaren rola jokatzea

Jolas antolatuetan, euskararen ezagutzan eta erabileran eragitea helburu jarri bada, ondoko estrategiak era sistematizatu eta mailakatuan erabiltzea guztiz eraginkorra izan daiteke<sup>46</sup>.

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

#### **ikaslea - ikaslea**

Une jakinetan, beti ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatze aldera, ikasleen arteko elkarreraginean euskararen aldeko errefortzua bilatuz, besteak beste, ondoko esku-hartze hauek ere baliagarriak dira:

- Adin eta hizkuntz tipologia desberdineko nerabeen arteko interakzioa bultzatzeko moduak sustatzea eta txandakatzea. Interakzio horien bidez, hizkuntz gaitasun txikia dutenek gaitasun handiagoa dutenengandik ikasteko aukerak sortuko genituzke. Edo, hizkuntz gaitasunaren arabera talde homogeenagoak eginda, euskaraz aritzeko gaitasuna duten ikasleen jarduna indartzekoa.
- Adinaren arabera, hainbat jolas, abesti, ... proposatu daitezke (bai hezitzailearen bidez, bai ikasle zaharragoen bidez kideak eta antzerakoak antolatuz).
- Jolasak negoziatzea eskatzen duenez (jolasa hautatu, rolak banatu ...), negoziatze horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu beharko lirateke. Adibidez,

<sup>45</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>46</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

hezitzaileek negoziazio horietatik eratorritako gatazken inguruko esku-hartzeak egingo balituzte, esku-hartze horiek hizkuntzaren ikuspegitik baliatzeko egokitasuna aztertu beharko litzateke.

- Hezitzaileek esku-hartzeren bat egingo balute, gorago aipatu ditugun andamiaje estrategien erabilera bermatzea komeni da, nerabeak euskara ulertzeko eta hizkuntza horretan aritzeko baliabideak izan ditzan.

### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Gune hau nerabearen hizkuntza-portaera zein den behatzeko ere gune aproposa da. Zerbitzua eskaintzan ari den ikastolak, besteak beste, euskarari ekarpena egiteko zerbitzu bezala definitua badu, goiko atalean aipatu strategiak sistematikoki aplikatzea bideratzearekin batera (aurrez hezitzaileei zentzu horretan formazioa eskainiz), zerbitzuari loturiko helburuen betetze-mailari jarraipen zehatza egingo dio. Halakoetan, hizkuntza-helburu mailakatuak ere txertatu beharko dira eta haiei jarraipena egin. Horretarako, lehenik eta behin, udalekuen hasieran nerabeek duten hizkuntza-portaerari buruzko diagnosis egin beharko da eta, ondotik, helburu mailakatuak zehaztu. Egitasmoak irauten duen bitartean, helburu horien jarraipen sistematizatua egin eta, aldiari aldi, haiek egokitu.

**Behaketa hori denboran sistematiza daiteke**, esku-hartze eta helburu jakinen arabera:

- nerabeen harreman sarean hizkuntzaren bilakaera nolakoa den ezagutzeko
- hizkuntz gaikuntza zenbaterainokoa izaten ari den ebaluatzeko
- egin diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzeko
- egin daitezkeen esku-hartze berriak aurreikusteko

### **Zein alderi errepara dakioko:**

Hasierako beharketa:

- zein hizkuntza erabiltzen du norekin: zein nerabe jakinekin, bere hezitzailearekin, beste hezitzailearen batekin

Jarraipeneko:

- euskara erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- gaztelera erabiltzen hasi den: noiz/non/zertarako? norekin?
- hizkuntza-kalitatea: hizkuntzaren garapenean progresiorik nabari den.

## **HERRIKO AISIALDIKO MAHAIA**

### **EZAUGARRIAK**

- Hezkuntza komunitatetik herrirako zubiak eraikitzeko, finkatzeko eta egonkortzeko beharra dago zenbait helburu jorratzeko: herrian zer-nolako aisia nahi dugun, zein aisialdi dugun, zer dugun faltan...
- Horretaz arduratuko den talde-eragile kritikoa, eraldatzailea eta prokomuna izatea ezinbestekoa da eta hor ekarpen garrantzitsua egin dezake ikastolak.

### **HELBURUAK**

- Herritik eta herriarentzat, aisialdirako une eta gune integral eta publiko bizi bat

eratzea.

- Adin-tarte ezberdin guztientzako herriko aisialdirako ekimenak eta jarduerak bideratzeko bitartekoak eta baliabideak lortzea.
- Ikastolak herrian gehiago integratzea.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisioari buruzko kezka eta ardura herrian hedatzea.

## **AISIA-EREDUA**

### **Espazioa**

- HERRIKO AISIALDI-MAHAIA → Elkarrekintza, antolaketa, koordinazioa eta kudeaketa.

### **Pertsona**

- Hezkuntza komunitateko kideen ordezkariak (nerabe, irakasle, hezitzaile, guraso)
- Herriko aisialdi elkarte eta eragileak (elkartek...).
- Herriko udal-ordezkariak ( udal-teknikari eta zinegotziak)

### **Objektua**

- Tokian-tokiko jolas/joko, dantza, musika, adierazpen artistikotatik munduko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikoetarako ibilbidea.
- Kirol hegemoniko eta globalizatzaileak saihestu.
- Komunitatea kohesionatzeko: aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzen duten ekimenak eta jarduerak:
  - Jarduera fisikoa (mugimendua + gogoia) sustatzen duten ekintzak.

### **Denbora**

- Herriko egutegi ludikoa (jaiak, ospakizunak...) elkarrekin eraiki.
- Lagunartean astialdiaz gozatzeko aukerak (ekintzak, jarduerak, ikastaroak...)
- Eguneko jarduerak herriko azpiegutaetan.
- Eguneko kanpoko jarduerak herriko gunean antzeturik.
- Asteburuak eta jai egunak.
- Oporraldiak

## **DBHO/LIZEOA**

Etapa honetako ikaslea ikastolan egin duen ibilbidearen azken muturrean dago. Eta adinari dagozkion ezaugarriak eta ikasketa-planak zereusi nabarmena dute goian aipatu ditugun zenbait gunerekiko begirada bestelakoa izan dadin. Gazte hauei begirako aisialdiko esku-hartzeak ezaugarri bereziak ditu eta horien artean nagusia honako hau esango genuke: 17-18 urteko gazte hauek aparteko gaitasuna izatea, irakasleekin elkar-lanean, aisia-eskaintzaren dinamizazio- eta kudeaketa-ardura hartzeko. Ikuskera horretatik eragiteak gazte horiek beste etapetako ikasleei begira antolatutako ekimenetan inplikatzeko dakar eta protagonismoa hartzea. Hala, HH/AI, LH/LM eta DBH/BMn hartzaile-rola izan duten bienbitartean, Batxilerrean/Lizeoan eragile bihurtzeko aukera dute, baita gazteagoentzako

eredu edo erreferente ere. Ikaste-ibilbidea dena delako ikastola horretan egina ez duten ikasleentzat ere, aberasgarri eta motibagarri gerta dakieke, euren gelakideekin batera, goiko ataletan aipatu ditugun gisako dinamiketan parte hartzea.

Batxilergoko gaztea adin egokian dago ordura bitartean eraikitako aisia-eredua eta hizkuntza-jarrerak kontziente egiteko eta adinkideekiko eta gaztetxoekiko eredu-rola jokatzeko, batez ere, gela-barruko curriculumean eduki horiek lantzen diren kasuetan. Bestalde, autokontzientzia garatzeko ere une egokia da eta, aldi berean, helburu dugun euskal kultura eta euskara bera indartzearen aldeko jarrera proaktiboak garatzeko eta herri-mailako ekimenetan parte hartzeko eta haiek hedatzeko.

Hortaz, goiko ataletan definitu ditugun gune eta une horiek bere horretan ez ditugu esanguratsuak etapa honetan. Hasteko, batzuk desagertu eta beste batzuk asko urritzen direlako denboraz, esate baterako, jolas-ordua, sarritan, 15 minutukoa izan ohi da, soilik eta bazkal osterik ez dago.

Horregatik, Batxilerrari begira jarritakoan, gune-kopurua urritu egiten zaigu, baina horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiagoko esku-hartzeak bidera ditzakegunik. Gainera, ikastola bakoitzak, bideratu nahi duen esku-hartzeari ematen dion garrantziaren arabera, ekimen jakin batzuetan parte hartuko duten ikasleei eskola-ordutan aritzeko aukera emango die. Kontuan izan behar da jolas-garaiek, adibidez, ez dutela bat egiten etapa desberdinetan. Hala, LHko ikasleei begirako dinamizazio jakin bat antolatuz gero, eta bertako dinamizatzailerak etapa honetako ikasleak ariko badira, klaseak galduko dituztela. Bistan da, tankera horretako ekimenak denbora-tarte laburretan antolatu ahal izaten direla, baina ez dira horregatik, balio txikiagokoak ez haurrentzat ez gazteentzat eurentzat.

Azken finean, etapa honetan ikasleak itxi egiten du ikastolako ibilbidea: aurreko urteetan jasole izan den moduan, emale bihurtzen da orain. Batetik, eredu-rola jokatzeko haur eta gaztetxoekiko eta, bestetik, jardun hori bera bihurtzen zaio akuilu bere buruaren autoerregulazioa garatzeko. Hots, aukera bizia ematen zaio portaera koherentea izateko aurreko etapetako bizipenetatik jaso dituen balore ludiko eta hizkuntza-jarreretikiko eta horien transmisio-lana egiteko.

## EKOSISTEMA 1: PERTSONA

PERTSONA - NORBERA
<p><b>EZAUGARRIAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Pertsonen garapena inteligentzia anitza eskuratzetik datorrela jabetzea.</li> <li>● Pertsonaren barne-motibazioa piztea komunitatean kooperatiboki jarduteko.</li> </ul>
<p><b>HELBURUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Pertsonaren garapen integrala lortzea.</li> <li>● Beste ekosistemetatik jasotako ekarpenetatik "Pertsona ekosistema" osotasunean garatzea.</li> <li>● Pertsonaren esparru autotelikoa ahalik eta gehien zabaltzea.</li> <li>● Ereku ez-formalean euskaraz aritzeko ohitura errotzea.</li> </ul>
<p><b>AISIA-EREDUA</b></p> <p><b>Espazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Natur eremuak (mendia, basoak, belardiak, parkeak, zuhaiztiak...)</li> <li>● Herriko eremu irekiak (plaza, eskailerak, aldapak...)</li> </ul>



- Herriko eremu itxiak ( kultur etxea, gaztetxea, kirol-instalakuntzak...)
- Ikastola

#### **Pertsona**

- autonomia eta parte-hartzea.
- auto-kontzeptua eta auto estimua
- balio hezitzaileak
  - aukera berdintasuna - parekidetasuna
  - inklusioa - aniztasuna
  - kulturartekotasuna
  - asertibitatea eta enpatia

#### **Objektua**

##### **Material aniztasuna**

- joko aske eta bideratua - kirola
- lehiaren erabilera hezitzailea
- tokian tokiko jolas eta jokoetatik munduko jolas eta jokoetarako ibilbidea

#### **Denbora**

- urtaroen ezaugarrien (eguraldia, tenperatura...) baitako antolaketa eta funtzionamendua
- ilargiaren zikloak
- ekintzen, jardueren eta ekimenen iraupena
- egunaren eta astearen banaketa
- maiztasuna

## **EKOSISTEMA 2: GELA-BARRUA - KANPO ESPAZIOA**

### **JOLAS-GARAICO KIDETZEAK**

#### **EZAUGARRIAK**

- Haur Hezkuntza eta LHra begirako kidetzeak antola daitezke, tarteka.
- Kidetzeetako esku-hartzeetan irakasleen laguntzaile joka dezakete.
- Gazte hauei eman egitarauak ideiatzeko eta garatzeko erantzukizuna, EBko dinamizatzaileek lagunduta.

#### **HELBURUA**

- Jardun librean, lagunarteko **harreman-sarea euskaraz indatzea, eraikitzea eta estutzea.**
- Hizkuntza-portaeran eredu-rola jokatzea.
- Ikastolarekiko atxikimendua lantzea.
- Etorkizuneko ikasketak hautatzeko bidean zenbait "rol" frogatzeko aukera ematea.

#### **ARDURADUNA**

Irakasleak eta Batxilerreko EBko ikasle-ordezkarriak

## **HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntza-erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Euskaraz Biziko irakasle dinamizatzailearen egitekoa izango da dena delako esku-hartzetan dinamizatzaile-lana egiten ariko diren Batxirreleko/Lizeoko ikasleak “heztea” ondoko estrategietan. Eta ekimena ganoraz gauza dadin, ikasle-hartzailea den taldeeko irakasleak ere inplikatu egin beharko dira ekimenean, batik bat, kudeaketa egitekoetan dinamizatzaileei laguntzeko.

Gela barruko “euskarazko jardunetik” gelaz kanpoko bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin edo al bait arinena izan dadin, une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

Ikasleen adian aintzat hartuta, eurekin batera antolatu ekimenak.

### **Dinamizatzailea - ikaslea**

Jolas librearen gunea izanik ere, testuinguru soziolinguistikoaren arabera maila desberdinean, baina dinamizatzaileak (Batxiko ikaslea) jokatzeko duen rola eta haren hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badiu.

Horretarako, irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntza-estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>47</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berriaren rola jokatzeko

Une jakinetan, hizkuntz portaeran eragiteko helburuz, esku-hartze jakinak egitea erabakitzen denetan, helburu lorgarriak definitzearekin batera, aurrekoek gainera, honako beste estrategia hauek ere baliatu daitezke<sup>48</sup>:

- irakaslea ekintzaren zentro izatea
- irakaslea ekintzaren parte izatea
- irakasleak ekintzatik kanpo egotea

### **Ikaslea - ikaslea**

Une jakinetan, beti ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatze aldera, ikasleen arteko elkarreraginean euskararen aldeko errefortzua bilatuz, besteak beste, ondoko esku-hartze hauen aukerak ere azter litezke:

- Adin eta hizkuntza-tipologia desberdineko haurren arteko elkarreragina bultzatzeko moduak sustatzea. Horien bidez, hizkuntz gaitasun txikia dutenek gaitasun handiagoa dutenengandik ikasteko aukerak sortuko genituzke.
- Adinaren arabera, hainbat jolas, abesti, ... proposatu daitezke (bai hezitzailearen bidez, bai gazteen bidez kideak eta antzerakoak antolatuz).
- Jolasak negoziatzeko eskatzen duenez (jolasak hautatu, rolak banatu ...), negoziatzeko horiek eskaintzen dituen aukerak aztertu beharko lirateke. Adibidez, gazteek negoziatzeko horietatik eratorritako gatazken inguruko esku-hartzeak egingo balituzte, esku-hartze horiek hizkuntzaren ikuspegitik baliatzeko egokitasuna aztertu beharko litzateke.

<sup>47</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

<sup>48</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

- Gazteek esku-hartzeren bat egingo balute, gorago aipatu ditugun andamiaje estrategien erabilera bermatzea komeni da, haurrak euskara ulertzeko eta hizkuntza horretan aritzeko baliabideak izan ditzan.

#### **BEHAKETARAKO GUNE APROPOSA**

Hiztun-neurketak egiteko gune aproposa. EBko ordezkariak jarri egiteko horretan.

### **FESTA-GIROKO OSPAKIZUNAK**

#### **GUNE HONEN HELBURUA ETA EZAUGARRIAK**

- Gune oso egokia da lagunarteko **harreman-sarea euskaraz indartu, eraiki eta estutzeko.**
- Euskal kulturen errotuta dauden usadioak transmititzea (jaiak, musika, dantzak..).
- Festa-giroan bizipen indartsuak izatea eta ikastolarekiko atxikimendua lantzea.

#### **ARDURADUNA**

Irakasleak eta gazteak eurak hezitzaile-rolean.

#### **HIZKUNTZ KALITATEA: HIZKERAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntza-erregistroa: hizkera familiarra edo ez-formala erabiltzeko gunea.

#### **ELKARRERAGINERAKO ORIENTABIDEAK**

Gela barruko “euskarazko errutinazko jardueratik” gelaz kanpoko eta festa-girokorako bidean hizkuntza-mudarik eman ez dadin eta, gainera, euskararekiko atxikimendua indartzeko baliagarri izan daitezen une horretarako esku-hartze eta estrategia jakinak baliatzea egokia izan daiteke.

#### **Hezitzailea - haurra**

Une edo egun jakin batean festa bizitzea helburua izanik, aurretik prestakuntza eta girotze luzea eskatu ohi duen jarduna izan ohi da. Testuinguru soziolinguistikoen arabera maila desberdinean, baina irakasleek eta gazteek jokatzen duten rola eta haien hizkuntza-jokaera guztiz erabakiorrak izango dira espazio honek euskararen erabilera eta ezagutzari ekarpenik egingo badio:

Irakasle eta hezitzaile orok honako hizkuntz estrategia hauek lehenetsi behar ditu beti<sup>49</sup>:

- lehen hitza beti euskaraz
- produkzio (ia) elebakarra
- ulermen (ia) elebakarra
- berritsuaren rola jokatzea

#### **Haurra - haurra**

Dena delako festaren prestakuntza-jardunean ari direla haurrak euren artean, irakaske eta hezitzaileek esku-har dezakete ahurren jardunean euskararen erabilera areagotze aldera.

<sup>49</sup> Ikus 3.1.1.1. atala

Aurrekoez gainera, honako beste estrategia hauek ere balia daitezke<sup>50</sup>:

- hezitzailea ekintzaren zentro izatea
- hezitzailea ekintzaren parte izatea
- hezitzailea ekintzatik kanpo egotea

## EKOSISTEMA 3: IKASTOLA - HERRIA

### UDALEKUETAN HEZITZAILE ARITZEKO TITULUA ESKURATU

#### AISIOLA HEZITZAILE-ESKOLA (IE)

Ikastolan antolatzen diren kidezteetan parte hartzeak, festa-giroko ospakizunetan dinamizatzaile-rola jokatzeko eta eskola-orduz kanpoko kirolatan entrenatzaile aritzeak, kasu askotan, hezitzaile-titulua ateratzeko grina pizten die adin honetako ikasleei. Jardun-bide horiek, azken finean, gogoko dituzten jardueretan aritzeko aukera ematez eta eremu ez-formalean euskaraz aritzeko ohitura eranstez gainera, euren heziketa-ibilbideari ekarpen garrantzitsua egiten diote. Horrek guztiak, aldi berean, ikastolarekiko atxikimendua indartzen ere laguntzen die.

Gazte horietako askok nahi izaten du hezitzaile profesional bihurtu. Horretarako EHIk berak eskaintzen du zerbitzua Aisiola hezitzaile eskolaren bidez.

### HERRIKO AISIALDIKO MAHAIA

#### EZAUGARRIAK

- Hezkuntza komunitatetik herrirako zubiak eraikitzeak, finkatzeko eta egonkortzeko beharra dago zenbait helburu jorrazteko: herrian zer-nolako aisia nahi dugun, zein aisialdi dugun, zer dugun faltan...
- Horretaz arduratuko den talde-eragile kritikoa, eraldatzailea eta prokomuna izatea ezinbestekoa da eta hor ekarpen garrantzitsua egin dezake ikastolak.

#### HELBURUAK

- Herritik eta herriarentzat, aisialdirako **une eta gune integral eta publiko bizi bat eratzea.**
- Adin-tarte ezberdin guztientzako herriko aisialdirako **ekimenak eta jarduerak bideratzeko bitartekoak eta baliabideak lortzea.**
- Ikastolak herrian gehiago integratzea.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisioari buruzko kezka eta ardura herrian hedatzea.

#### AISIA-EREDUA

<sup>50</sup> Ikus 3.1.1.2. atala

### Espazioa

- HERRIKO AISIALDI-MAHAIA → Elkarrekintza, antolaketa, koordinazioa eta kudeaketa.

### Pertsona

- Hezkuntza komunitateko kideen ordezkariak (gazte, irakasle, hezitzaile, guraso)
- Herriko aisialdi elkarte eta eragileak (elkartek...).
- Herriko udal-ordezkariak (udal-teknikari eta zinegotziak)

### Objektua

- Tokian-tokiko jolas/joko, dantza, musika, adierazpen artistikotatik munduko jolas/joko, dantza, adierazpen artistikoetarako ibilbidea.
- Kirol hegemoniko eta globalizatzaileak saihestu.
- Komunitatea kohesionatzeko: aniztasunaren aurrean aukera-berdintasuna sustatzen duten ekimenak eta jarduerak:
  - Jarduera fisikoa (mugimendua + gogoia) sustatzen duten ekintzak.

### Denbora

- Herriko egutegi ludikoa (jaiak, ospakizunak...) elkarrekin eraiki.
- Lagunartean astialdiaz gozatzeko aukerak (ekintzak, jarduerak, ikastaroak...)
- Eguneko jarduerak herriko azpiegutaetan.
- Eguneko kanpoko jarduerak herriko gunean anizteta.
- Asteburuak eta jai egunak.
- Oporraldiak

## 6.- Ikastolen Elkartearen AISIA-ESKAITZA<sup>51</sup>

ZIRIMOLAREN ESKAITZA				
ZER	DESKRIBAPEN LABURRA	NORENTZAT?		
Udaleku Itxiak	Hainbat (Ikus katalogoa)	LH1etik Batxi 2		
Udaleku Irekiak	<i>Eman hegoak egitasmoa</i>	3-5 urte	LH 1-3	Lh 4-6
Pulunpa	Euskara murgiltze astea, hizkuntzarekin emozioetatik konektatuz	DBH1		

<sup>51</sup> Taula honetan bildutakoak 2021-2022 ikasturtean egindako eskaintzan agertzen dira, adibide modura. Bistan da, informazio eguneratua eskuratzeko aldera, egokiena **ikastolen Elkartearen uneko web orrira jotzea dela.**

Bilboko sustapen saioak	Euskal pilota Herri kirolak	LH 5-6	DBH 3,4	
Seaska Sustapen Saioak	Gorputz Hezkuntza saioak	LH 3-4-5-6		
Jantokiko begiraleen formazioa	Jolas aske hezitzailea	Jangeletako langileentzat		
Eskolaz kanpoko jardueratako hezitzaileentzako formakuntza	Jolas asketik jolas eta jokotara	Eskolaz kanpoko jardueratako hezitzaileak		
Eskolako kanpo eremuaren inguruko aholkularitza	Haurren basoa	Ikasleak, langileak, irakasleak eta gurasoak		
Egonaldiak: Allo aterpetxean Zuhatza Eskia Surf Mus	Egonaldiak, egun 1, 2 edo 3koak, taldearen kohesioa eta euskararen erabilera gelatik kanpo sustatzeko asmoa dutenak.	LH5etik aurrera		
Aisiola begirale eskola	Haur eta gazteen aisialdiko begirale ikastaroa	Batxi 1 eta Batxi 2		
Eskolaz kanpoko eskaintza	Hatz 10 Robotika eta programazioa	LH 5 eta LH 6		
Hezkuntza proiektuen diseinua: Azkue fundazioa Arrantzale kofradia				
Bardeak	Bizikleta martxa	DBH 3-4		

## 7.- AISIAN ERAGITEKO BALIABIDE-BILDUMA <sup>52</sup>

<sup>52</sup> Atal honetan bildu ditugun baliabide horiek guztiak ez dira izan berariaz sortuak aisia-jardueretan erabiltzeko. Hala, asko gela-barruan edo bestelako esparruetan erabiltzeko baliotsuagoak dira. Dena den, zenbait une jakinetan (eguraldia dela medio edo...), bestelako planik ere egin behar izaten denez, horietan baliatzeko moduko hamaika proposamen erakargarri topa daiteke eta horiei begira

Euskaraz Biziko materiala EHI	Argitxo joko- eta ipuin-bilduma
<p>JOLASAK ETA ESKULANAK (Haur-Hezkuntza - Ama-lkastola)</p>	<p><a href="https://eibz.educacion.navarra.es/web1/">https://eibz.educacion.navarra.es/web1/</a></p> <p><a href="https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/jolasak/">https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/jolasak/</a></p> <p><a href="https://www.eitb.eus/eu/hiru3/jolasak/eskulanak/">https://www.eitb.eus/eu/hiru3/jolasak/eskulanak/</a></p> <p><a href="https://www.argia.eus/multimedia">https://www.argia.eus/multimedia</a></p> <p><a href="https://eranafarroa.eus/baliabideak/app-ak-eta-jostailuak/">https://eranafarroa.eus/baliabideak/app-ak-eta-jostailuak/</a></p> <p><a href="https://irribarrez.info/materiala/">https://irribarrez.info/materiala/</a></p> <p><a href="https://jolasak.eu/">https://jolasak.eu/</a></p>
<p>IPUINAK (Haur-Hezkuntza - Ama-lkastola)</p>	<p><a href="https://sorginatxirulina.eus/ipuinak/">https://sorginatxirulina.eus/ipuinak/</a></p> <p><a href="https://www.symbaloo.com/mix/ipuinakeuskaraz">https://www.symbaloo.com/mix/ipuinakeuskaraz</a></p> <p><a href="https://www.katxiporreta.eus/">https://www.katxiporreta.eus/</a></p> <p><a href="https://bizipoza.eus/ipuinak/">https://bizipoza.eus/ipuinak/</a> (komikiak)</p>
<p>AUDIO-IPUINAK (Haur-hezkuntza - Ama-lkastola)</p>	<p><a href="http://etxegiroan.eus/">http://etxegiroan.eus/</a></p> <p><a href="https://www.aittu.eus/?q=audioipuinak">https://www.aittu.eus/?q=audioipuinak</a></p> <p><a href="#">Euskal mitologia hurrei kontatua</a></p> <p><a href="https://booktegi.eus/">https://booktegi.eus/</a></p>
<p>EHI Joko eta jolasen bilduma (Haur-Hezkuntza / Ama-lkastola eta Lehen Hezkuntza / Lehen Maila))</p>	<p><a href="https://drive.google.com/file/d/1Gijs3OmORBeNA5KOof2yJfv29AaVnm5/view">https://drive.google.com/file/d/1Gijs3OmORBeNA5KOof2yJfv29AaVnm5/view</a></p>
<p>EHI</p>	

jarri ditugu, batik bat.. Bestalde, hemen bildu direnez gainera, litekeena da sarean beste hainbat izatea.

Hizkuntza-jolasak Lehen Hezkuntza / Lehen Maila)	<a href="https://hizkuntzajolasak.eus/">https://hizkuntzajolasak.eus/</a>
Nafarroako Gobernua Kontu eta kantuak (Haur-Hezkuntza / Ama-lkastola - Lehen Hezkuntza / Lehen Maila)	<a href="https://mattinetakattalin.eus/">https://mattinetakattalin.eus/</a> <a href="https://www.mediateka.eus/eu/bildumak/?id=105808">https://www.mediateka.eus/eu/bildumak/?id=105808</a>
Nafarroako Gobernua Kantuak, kontuak eta jolasak (Haur-Hezkuntza / Ama-lkastola - Lehen Hezkuntza / Lehen Maila)	<a href="https://xaldunkortin.educacion.navarra.es/">https://xaldunkortin.educacion.navarra.es/</a>
Eusko Jaurlaritzaren Sarean euskaraz (adin guztietarako, sarean aurki daitekeen guztia)	<a href="http://www.gozatusareaneuskaraz.eus">www.gozatusareaneuskaraz.eus</a>
Filmak euskaraz (adin guztietarako)	<a href="https://iparra.eus/filmak-euskaraz/">https://iparra.eus/filmak-euskaraz/</a>
Hizkuntza-eduki zehatzak lantzeko kanta-bilduna eta karaokea (Haur-Hezkuntza / Ama-lkastola - Lehen Hezkuntza / Lehen Maila - DBH / Bigarren Maila) - DBHO / Lizeoa)	<a href="https://sites.google.com/educacion.navarra.es/abestiak/bigarren-hezkuntza-eta-helduak">https://sites.google.com/educacion.navarra.es/abestiak/bigarren-hezkuntza-eta-helduak</a> <a href="https://docs.google.com/spreadsheets/d/13eKyOmiXYg-0LukrJw3ly3DkaTG-R0dhBe_yCYcWyAU/edit#gid=0">https://docs.google.com/spreadsheets/d/13eKyOmiXYg-0LukrJw3ly3DkaTG-R0dhBe_yCYcWyAU/edit#gid=0</a>
Zurriola ikastolako euskarazko mediateka dokumentalak - musika - serieak - filmak - liburuak	<a href="https://euskalmediateka.wordpress.com/">https://euskalmediateka.wordpress.com/</a>

## 8.- Eranskinak

[Komunikazio eraginkorra ustiatzeko estrategiak ppt-a.](#)

## 9.- BIBLIOGRAFIA

- Altuna, Jaime: D ereduko kirola
- Amonarriz, Kike: "Euskararen bidegurutzetik", Elkar (2019)
- Amorrotu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri J.): "Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak". BAT aldizkaria 104. Soziolinguistika Klusterra (2017).
- Arrue ikerketa: "EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan", (2011-2017)
- Askoren artean, Euskal Herriko Ikastolen konfederazioa : "Ikastolen Hizkuntz Proiektua" (2009)
- Euskaltzaindia - EHI: "Zenbait orientabide erregistroen trataeraz".
- Eusko Jaurlaritzaren: "Kirol hezitzailea. Gogoetak eta ekarpenak", bilduma (2007)
- Castanyier: " La Asertividad", Ed Desclée de Brouwer, (1996)
- Cskikszentmihalyi, M.: "Flow", Ed. Kairos, (1990)
- Damasio: " En busca de Espinoza", Ed. crítica, (2003)



- Damasio: “ El error de Descartes”, Ed. Crítica, (2003)
- Davis: “La comunicación no verbal”
- Etxebeste, J.: “ La riqueza motriz de los juegos tradicionales”, (1999)
- Fullea, Pedro: “El creador de juegos”, Kuba, (2018)
- Goldberg: “El cerebro ejecutivo”, Ed. crítica,( 2001)
- Hernandez, Jone M. eta Altuna, Jaime, EHU (2017): “Gazteak euskararen jolastokian”.
- Huilinga: “Homo Ludeus”, Ed. Alianza, (1972)
- Jauregi-Huegun: “Sentitu”, Ed. Truesque Vasconiane
- Jackson: “Fluir en el deporte”, Ed. Paidotribo, (2002)
- Lagardera, Lavega: “Introducción a la praxiología motriz” Ed. Paidotribo, (2003)
- Larreta, Aritz, Olana, Izarne: Euskaraz Bizi Laskorainen dokumentala
- LOWEN, Bioenergética
- Martinez de Luna, Iñaki; Suberbiola, Pablo:“Hizkuntza mudantza EAEko ikasleengan”, BAT soziolinguistika aldizkaria, 114. alea (154 or.)
- Parlebas, P.: “Activités physiques et éducation motrice”, Dossiers EPS, (1990)
- Parlebas, P.: “Juegos, deportes y sociedad. Léxico de praxiología motriz”, Ed. Paidotribo, (2001)
- Punset, E.:“El alma está en el cerebro”, Ed. Aguilar, (2006)
- Ttakun: Hezitzaileak asko egin dezake

Argitaraldia

2023ko uztaia



Euskal Herriko Ikastolak  
[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus)